GERNIKA-LUMOKO UDALA
Hezkuntza Saila
Euskera Zerbitzua

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA (HPS)

BFA
DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

GERNIKA-LUMO • 2009 URTEA • BIK - 8. Idazlan Koadernoa • DBH eta Batxilergoa

GERNIKA-LUMO
2009 urtea

8. IDAZLAN KOADERNOA

DBH eta BATXILERGOA

Argitaratzailea:

- Gernika-Lumoko Udaleko Euskera Zerbitzua eta Hezkuntza Saila

Laguntzaileak:

- Barrutialde Institutua.
- Gernika-Lumoko Institutua.
- Mertzede Ikastetxea.
- San Fidel Ikastola.
- Seber Altube Ikastola.
- HHI Gernika-Lumo.

Portadaren egilea:

- Ainhoa Urkidi Bilbao (Batxilergoko 1. mailako ikaslea)

Babesleak:

- Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila (HPS)
- Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila (Euskera Zuzendaritza)

Maketa eta Inprimaketa:

- Graficas Amorebieta.

2009ko edizioa.

HITZAURREA

AURKIBIDEA

Milia Ortiz de Pinedo	DBH 1. maila	LAGUNEN ARTEKO ABENTURA AHAZTEZIN BAT	6
Nahia Zenigaonaindia Narbaiza	DBH 1. maila	TXIROTASUNEAN ZORIONTSU	10
Leire Izagirre Urizar	DBH 1. maila	NORAT HAIZE, HARAT LORE	13
Bittor Rodriguez	DBH 2. maila	ERREGE MAKABROAK	16
Goreti Zarrabe	DBH 2. maila	ZERTARAKO IKASI	20
Ander Gonzalez	DBH 2. maila	HERRI GALDUA	24
Martin Urrutia Etxeandia	DBH 2. maila	BIDAIA LUZEA	27
Sara Abaunza Urionabarrenetxe	DBH 2. maila	EGUN AHAZTEZINA	30
Maite Urkiza Aranzabal	DBH 2. maila	BONBOI KAXA	35
Irati Arejita	DBH 2. maila	HEGAN	38
Alex Torozan	DBH 3. maila	NI, LEHOI ETA NI, GIZON !	41
Olatz Monge Etxeandia	DBH 3. maila	AMODIOZKO ISTORIOA	45
Iker Ansoleaga Villegas	DBH 3. maila	GAZA HELBURU	48
Ane Arrien Muniozguren	DBH 3. maila	LAU BEGI BERDIN, BI MUNDU DESBERDIN	52
Berezi Zabala Gonzalez	DBH 4. maila	BRASILEN JAIOA	56
Irune Aberasturi	DBH 4. maila	HITZEN INDARRA	61
Haizea Elurtza Galpasoro	DBH 4. maila	ZUBIEN AZPITIK	66
Ibon Agirre Carrero	DBH 4. maila	ZERGATIK NI?	71
Leire Olaizola Intxausti	DBH 4. maila	ASKATASUNERANTZ	75

Teresa Lopez de Larruzea Lobo	DBH 4. maila	GIZAKIA IZAKIA	79
Gorka Lopez	BT 2. maila	BAI, EGOZENTRISTA	83
Janire Ibarguengoitia	BT 2. maila	HURRENGORA ARTE, AFRIKA MAITEA	87
Gaizka Ardanza	BT 2. maila	NIRE AZKEN IDAZKIA	91
Anton Bizkarra	BT 2. maila	OHARKABEKO ESKALEA	97
Roke Ojanguren Gabikaetxebarria	BT 2. maila	ERRAUTSEN ARTEKO AMODIOA, GERNIKAN, 1937 APIRILAREN 26A.	101
Itsasne Zarrrabeitia Zabala	BT 2. maila	HITZAK SOILIK	109
Ainhoa Hernando Arakistain	BT 2. maila	ISILTASUNA ABESTUZ	113
Elena Elgezabal Bilbao	BT 2. maila	KAMERAREN BEGIAK	116
Garazi Olazar Natxiondo	BT 2. maila	TXANTXANGORRIA	121
Itsasne Lauzirika Lafuente	BT 2. maila	URAK DARAMANA ITSASOAK BATU DEZALA	129
Leonor Korta	HHIko ikaslea	NIRE HERRIA ETA BESTE KONTU BATZUK	136
Amaia Lizundia	HHIko ikaslea	IRAKASKUNTZA EUSKALDUNTZEAREN BEHARRAZ	140

Milia Ortiz de Pinedo
DBH 1. maila
"Patinatzea dut gogoko"

LAGUNEN ARTEKO ABENTURA AHAZTEZIN BAT

-Uxueeeeeeeeeeeeeeeeeeee! Amak deitzen ninduen- Ione telefonoan.
-Kaixo! Zer moduz zabiltza?
-Ondo.Eta zu?
-Ondo esan beharko. Zer iruditzen zaizu denok etzi gelditzea eguerdiko hamabiak inguruan?
-Nola ez ba! Hamabietan plazan.-bukatu nuen.

Larunbata zen, oso eguraldi ona zegoen; hondartzara joateko egun aproposa.Denbora neraman nire lagunak ikusi gabe eta lagunak ikusteko irrikan nengoen. Iritsi nintzenean han zeuden nire zain eskolako kontuak kontatzen.

Ikusi nindutenean deitu egin zidaten eta korrika bizian abiatu nintzen beraiengana. Ionek ile beltza zeukan ;ikatza bezain beltza, Iratik, aldiz, ile labur marroixka zuen eta Txikik ilehoriarekin jarraitzen zuen.Bat-batean euria egiten hasi zen eta arrapaladan joan ginen aterpe bila. Azkenik herriko baseliza zaharrean geratu ginen. Atoan, barrura sartu ginen beroago egongo ginelakoan. Ione banku batean etzan zen arnasestuka. Pixkanaka -pixkanaka bankua ondoratzen hasi zen lurraren mailara iritsi arte. Ione asaldatuta altxatu zen. Denok begira geratu ginen eta bankua gelditu zenean eskailera kiribildu batzuk zeudela ohartu ginen eta barrura sartzea erabaki genuen. Gela txiki bat zen, hauts usaina zegoen eta denbora luzean inor ez zela barrura sartu zirudien. Lekua arakatzen hasi ginen. Irati, horman zegoen zirrikitu batetik begira eta ikusten zituen gauzak esan zizkigun: plater zikinak, koilarak...

Halako batean, zer ordu zen galdetu nuen eta berandutu egin zitzaigula ohartu ginen. Beraz, elkar agurtu eta hurrengo larunbaterako geratu ginen.

Aste hura benetan luzea egin zitzaidan, eskolako orduak batez ere eta asteburuaren zain irrikitan nengoen. Lagunei ere berdin gertatuko zitzaiela uste nuen. Ezin nuen baseliza burutik kendu, ez gauez ezta egunez.

Azkenean asteburua iritsi zen eta badaezpada euritakoa eraman nuen. Baselizako bidean, txisteak kontatzen ibili ginen. Iritsi ginenean eskailerak jaitsi genituen eta berriz miaketan jarraitu genuen. Nik errezeta bat aurkitu nuen, Tailarin indartsuak izenekoa.

Halako batean, Txikik zeramikazko edalontzi bat apurtu zuen eta emakume ezezagun baten ahotsa entzun genuen. Arrapaladan ezkutatzen saiatu ginen baina berandu zen, ordurako emakumea gelan sartu baitzen eta gu ikusi bezain laster, beste batzuei deitu egin zien. Hasieran harrituta begiratu ziguten eta galderak egiten hasi ziren:

-Nola sartu zarete hona?
-Egun euritsu batean hona etorri ginen eta Ione bankuan etzan zenean, bankua hondoratzen hasi zen eta bigarrenez gatoz.-erantzun zuen Iratik.

Ez dakit nola gertatu zen baina.Roxana eta Agurne ahizpen lagunak bihurtu ginen. Biak garaiak ziren, batek ile beltza zuen eta besteak, berriz, ilehoria. Inork ez zuen esango ahizpak zirenik ez zuten antzik eta!. Euren lana tailarinak egitea zen; tailarin indartsuak. Nola egiten zituzten azaldu eta gero zertarako balio zuten esan ziguten.

Gaixo edo ahul egonez gero, tailarinak janda, indartsuago bihurtzen zinen, sendatu egiten zinen eta!

Ahizpak lan hori ohitura bezela zuen, eta diru mordoa irabazten zutenez, inork ez lapurtzeko, ez zuten eraikin normal batean lan egiten. Nork pentsatuko zuen enpresa bat baseliza zahar batean zegoenik? Bai ideia ona! Hurrengo zapatuan denok elkartu ginen: ahizpak, lagunak eta bostok. Baina Roxana eta Agurne ez zeuden. Zain egon ginen ordu-laurden bat baina ahizpak ez ziren agertzen. Erabakiak hartzeko ordua zen. Beraz , sukaldean begiratzen hasi ginen, gero janaritegia... Leku guztietan begiratu genuen, baina ez genuen inoren arrastorik aurkitu. Ez genekien zer egin. Orduan Iratik ideia bat izan zuen:

-Badakit zer egin. Poliziarenera joan gaitezke eta bi ahizpek etsairik duten galdetu genezake.
Inork ez zuen arazorik izan eta poliziarenera abiatu ginen.
-Barkatu polizia jauna- hasi zen Txiki- Ba al dakizu ermitako ahizpei noizbait lapurtu dieten?Nortzuk?
-Bai, badago lapur talde bat. Auto zuri txiki bat daukate eta pisu bat dute Amaraberri kalean- esan zuen poliziak. Bertara joan ginen eta auto zuri txiki bat ikusi genuen poliziak deskribatu zuen bezalakoa portal baten aurrean. Beraz, barrura sartu eta atez -ate jotzen hasi ginen.
Lehenengo solairuetako ateak jo genituen baina ez zegoen ezer susmagarririk eta bi ate bakarrik gelditzen zitzaizkigun. Atea jotzean:
-Barkatu jauna- esan nuen beldurrez.
-Aio!Ezin dizuet lagundu, lanpeturik nago.-erantzun zuen gizonak eta atea itxi zigun.

Hori ez zen oztopoa ordea Txikik ateak irekitzen zekizkien alanbre batekin. Beraz, Ionek bere giltzetatik klipa hartu eta Txikiri eman zion. Atea ireki bezain laster, sartu ginen bertara eta hantxe ikusi genituen bi ahizpak lotuta.

Ondoren lapurrak etorri eta gure atzetik korrika hasi ziren. Hiru lapur ziren baina erraz menderatu genituen: bat gela batean sartu genuen eta giltzaz itxi, beste bat, alfonbra gainean zegoela, bertatik tiratu eta lurrera erori zen eta azkenari lapiko batekin buruan zartako bat eman genion. Gero, poliziari deitu eta haiek beste guztiaz arduratu ziren.

Duela hilabete inguru gertatu zen. Oraindik ahizpengana lanean laguntzera joaten gara baina jada ez gara beldur, baina, noski, gurasoek entzun duten bertsioa beste bat izan da zeren eta tailarinen enpresa sekretua da momentuz.



Nahia Zenigaonaindia Narbaiza
DBH 1. maila

"Gehien gustatzen zaidan gauza kirola egitea da, batez ere saskibaloia, baita nire lagunekin irtetzea ere"

TXIROTASUNEAN ZORIONTSU

Istorio honek neska bizkaitar batek, Afrikan bizitako esperientzia kontatzen du.

Maitena, 23 urteko neska getxotarra da. Alaba bakarra da eta gurasoekin bizi zen etxe dotore eta eder batean. Irakasle eskolako ikasketak eginda ditu eta Getxoko ikastola batetako andereñoa zen. Berak gustuko ditu beti umeak.

Denbora librean kirola egitea du gustoso: igeriketa, saskibaloia, futbola, tenisa,etab. Beti dago lagunez inguratutik. Kirola egiteaz gain, bidaiatzea du gustuko eta udako oporretan egiten ditu bidaia ederrenak.

Egun baten gurasoekin bazkaltzen zegoela, eskutitz bat jaso zuen. Bere lagunik onenaren eskutitza zen. Elene zen eta orain dela 2 urte, ONG batekin Kongora joandako lagun zintzoa zen. Maitenarekin irakasle eskolan ikasitako laguna zen. Jasotako eskutitzean Elenek aipatzen zion, bertako umeei laguntzen ari zela. Gazteak Kongoko auzo txiki batean klaseak ematen zituen, baita umeei bakunak ere, xarabeak etab. eman. Maitenak eskutitza jasotako egun berean Eleneri erantzun zion. Eta honako gauzak kontatzen zizkion:

"Kaixo Elene, gaur bertan jaso dut zure eskutitz eder hau. Ikusten dut benetan pozik zaudela Kongoko auzo txiki horretan. Zenbat lan egiten duzun isilpean, zure umeei bizitza ederragoa egiteko!!! Zurea bai maitasuna!!!

Baina nola bizi daiteke, zu bezala, hemen dena eduki dezakeen pertsona bat hor? Ezer ez dagoen toki batean?

Benetan, zaila egiten zait hori imajinatzea. Eskutitz hau idazten nagoela gauza eder bat bururatu zait: Udako oporretan neu ere horra joango naiz. Zer deritzozu? Badakit hau irakurtzerakoan barre egingo duzula eta zure burutik honako hitz hauek aterako zaizkizula: Maitena lurrean lo egiten eta egunero arroza jaten?

Gauzatxo bat eskatuko dizut, hurrengo eskutitzean, zer bakuna mota hartu behar dudan esadazu eta bidali argi eta garbi zure helbidea. Eskerrik asko denagatik "

Bi hilabete igarotzerakoan Maitenak, Eleneren eskutitza jaso zuen eta bertan, aipatutako gauzak ondo azalduta zituen.

Erabakia hartuta zuenez, gurasoei komentatu zien. Baina gurasoek ez zuten oso ondo hartu berria, eta ondo pentsatzeko esan zioten, bertan arrisku handiak zeudelako. Eztabaida txiki bat izan zuten; izan ere, gurasoek bertoko udako kolonia batzuetan hobeto egongo zela esan zioten. Nahiz eta Maitenak bere Ikuspuntutik arrazoiak azaldu, gurasoek ez zituzten gauzak argi ikusten. Ezin zuten ulertu nola alabak horrelako erabaki bat har zezakeenik. Etxean denetarik zuen eta ez zitzaion ezer falta. Beraientzako ez zen bat ere erraza ulertzea alabaren erabakia. Maitena eta gurasoen arteko harremana hoztu egin zen eta etxean zuten giroa ez zen bat ere atsegina, neskak bere eguneroko bizimoduarekin jarraitu zuen, Kongora joateko eguna noiz helduko zain.

Eguna heldu zenean Maitena Kongora abiatu zen, urduri zegoen, baina pozik ere bai. Gurasoek aireportura lagundu zioten eta beraien arteko agurra oso hunkigarria izan zen.

Bertara heldu zenean Elenek emandako helbidera jo zuen, autobus txiki eta zahar batean. Bidaian inoiz ikusi ez zituen gauzak ikusi zituen. Nahiko buru-makur zegoen bertako errealitatea ikusiz. Hiru ordu egin zituen autobusean.

Azkenean, egurrez egindako txabola txiki batean bere lagun mina ikusi zuen. Bertako umeek ongi-etorri beroa egin zioten. Lehenengo egunak gogorrak egin zitzaizkion, ez zen erraza bertako ohituretara ohitzea.

Bigarren astean gaixorik jarri zen, larri eta sukar pixka batekin. Egun batzuetara ondo jarri zen.

Aurrerago, gurasoen eskutitzak jaso zituen. Bertan irakurritako hitzen arabera, gurasoak ere lasaiago zeuden, beraiek ere ikusten zutelako Maitena pozik zegoela. Maitenak, Eleneri esker gauza asko ikasi zituen eta oso ondo ohitu zen. Lan asko eta lo gutxi egiten zuten egunero. Bertako umeek beharrizan asko zituzten, baina hala ere, irribarrea ez zitzaien aurpegian inoiz falta. Maitena oso pozik zegoen, egoera gogor ugari bizi izan zituen arren. Gogorrena umeak gosez hiltzea ikustea zen.

Abuztua amaitzear zegoen eta, beraz, etxera bueltatzeko eguna gero eta hurbilago zegoen. Baina gazte getxotarrak gauza bat argi zuen: Kongon oso pozik bizi zen beste batzuen bizitza errazagoa egiten, eta ez zuen etxera bueltatzerik nahi. Hori erabaki irmoa zen. Gurasoei eta ikastolako lankideei hartu zuen erabakiaren berri eman zien.

Nahiz eta etxean denetarik eduki, Maitena konturatu zen, ez zuela ezer behar zoriontsu izateko eta egiten zuen lanarekin zoriontsu eta aberatsa sentitzen zela.

Azkenean gurasoak konturatu dira Maitenak bere laguntza behar duten umeeKin zoriontsua dela eta ez duela, etxean duen ezer behar zoriona aurkitzeko.

Gaur egun gurasoek uda guztietan alaba ikustera joaten dira hara.

Leire Izagirre Urizar
DBH 1. maila
"Gernikako haritzaren azpian ekin gazte euskara bizian!"

NORAT HAIZE, HARAT LORE

Behinola, udazkeneko goiz haizetsu batean, hego haizeak gogor jotzen duenetariko hoietan, ni poz-pozik lorategi batean nengoen. Haize zakarra nire gorputz mehea makurtu nahian zebilen, baina zorionez handik eraman ninduten eta baseliza batean agertu nintzen bikote baten bihotzak alaitzen. Ni, usain gozodun krabelin larrosa, lirain eta xarmanta bainintzen.

Musika hotsak nire barrua pil-pilean jarri zuen, ni ere ezkontza batean parte hartzen ez ezik, benetan ezkontzeko irrikitan nengoelako baina ez nuen aurkitzen nire ametsetako printzea, euskaldun peto-petoa izan behar baitzuen.

Baselizatik irten ostean, airean bota ninduten norbaitek har nitzan. Emakume baten eskuetan amaitu nuen eta honek ortusantu batera eraman ninduen. Han, erle hotsa nabari zen oso usain gozoa baineukan, baina berehala erle haiek ziztada bat eman guraz gerturatu zitzaizkidan.

Zorionez, une hartan zebilen haize bolada bortitzak urrutira eraman ninduen. Hegaz nindoan, zerutik herrixka nimiño guztiak ikusiz.

Azkenik kilometro mordia egin ondoren itsasoa gertu zegoela zirudien, kresal usaina somatu bainuen eta itsas portua zeukan Namibiako hegoaldeko herritxo batera iritsi nintzen, Lüderitzera hain zuzen ere.

Bertatik, norbait zebilela zirudien, pauso hotsak sentitu bainituen, gizontxo bat zen eta hark ni ikustean eskuetan hartu ninduen, baina Afrikarra zenez ezin izan genuen elkar ulertu bere hizkuntza eta nirea desberdinak ziren eta.

Gizontxoa bihotz onekoa zela zirudien, betaurrekoak zeramatzan eta bibotea zuen. Arrantzalea zen, eta emaztegaia zeukan, Euskal Herrian.

Hiruzpalau egunez, aire beharra sentitu arren, kementsu jarraitzen nuen, esku onetan erori bainintzen. Biharamunean besteetan ez bezala, kaira irten gabe etxe barruan geratu zen gizona, papera eta luma hartuta nire aurrean idazteari ekin zion. Ordurako herrimina izaten hasia nengoen, egun asko neramatzalako herritik kanpo. Baina azkenik, gutun harekin batera, ni, arrano baten mokoan sartuta bialdu ninduen, malkoak zerizkion begietatik eta nik haren errukia sentitu nuen.

Gizonak esan zidan bere neskalaguna Euskal Herriko baserri batean bizi zela soldataren truke familia bati lagunduz eta bera zoriontsu egin nahi zuela ni bere alboan izanda.

Ibilaldi luze-luzea egin eta gero “Nafarroa oinez” zeritzan kartel bat ikusi nuen, horrek esan nahi zuen, gure lurraldean nengoela. Hegaztiak baserri bateko atarian utzi gintuen. Hurrengo goizean, baserri hartako semerik gazteenak, eskutitzarekin batera hartu ninduen, mutilak, Benitok, gutuna irakurri bezain laster putz egin zidan, baina bat-batean, a ze, nolako miraria gertatu zen ! Neskatxa bihurtu nintzen !

Benitok, ni ikusterakoan eskua luzatu eta berarekin ezkontzeko eskatu zidan. Harrituta geratu nintzen ez nekielarik zer erantzun, baina aukera ukatu gabe etxe hartan geratu nintzen, berarekin eta bere familiarekin bizi izaten.

Izan ere, ume nintzela azti batek lore bihurtu ninduen, euskaldun jator baten eskuetaraino iritsi arte !!!!

Bittor Rodriguez
DBH 2. maila
"Euskaraz eta originaltasunez edozein kontaketa hobetzen da"

ERREGE MAKABROAK

-*"Marrazki bizidunak eteten dira pertsona ororentzako abisu bat emateko. Urtarrilaren bostero bezala, uste da Hiru Errege Makabroek kolpe berri bat emango dutela. Gogorarazten dizuegu, lapurrok oso azkarrak direla, eta nola edo hala, zuen etxeetan sartzen saiatuko direla. Lapurrok gauetan sartzen dira etxeetan, eta ondasun guztiak eramateaz gain, hiru urte edo gutxiagoko haurrak ere eramaten dituzte. Ez dakigu zer egiten dien…".* Bat-batean, aita egongelan sartu eta telebista itzali zuen, esanez:
-Zuk ez zenuke hau ikusi behar!
-Egia aita, barka. -esan nuen nik. Bost urte nituen, eta telebistan ematen zuten ezer ez ulertu arren, banekien hori ez nuela ikusi behar. Benetan aita oso zorrotza zen.

- Markel, zatoz gora oraintxe bertan!!!-esan zuen amak. Bai, nire ama ere oso zorrotza zen.
Banekien soberan zergatik oihu egin zidan amak. Bost urte nituen, baina leloa ere ez nintzen. Eskailerak igo eta pentsatu gabe eskumarantz jo nuen, nire logelarantz. Han zegoen ama, besoak gurutzatuta eta nire logelan zegoen nahaspila begiratuz.
- Zuk uste duzu hau normala dela?- ez nekien amak esandakoa galdera edo zer zen.
- Barkatu ama!-esan nuen nik, egoera hartatik bizirik irtetzeko ahaleginean.
- Barkatu! Barkatu! Nola barkatu?-Dudarik gabe, hori ez zen galdera bat-Txukun ezazu! Azken hiru urteetan, nire anaia txikia Iñaki jaio zenetik, arreta eta maitasun guztiak berarentzako dira, eta niretzako, hondakinak eta oihuak. Logela ordenatzen nengoela, egutegia begiratu nuen eta urtarrilaren 5a zela ohartu nintzen. Hiru Errege Magikoak zetozen!

Gau hartan ezin izan nuen lorik hartu. Egarriak nengoela konturatzean, eskatzera jaitsi eta ur edalontzi bat hartzea erabaki nuen. Bidean, zarata arraro batzuk entzun nituen eta hiru itzal ikusi nituen. Eskaileretan pixkat jaitsi eta “Hiru Erregeak” ikusi nituen, zaku bete batekin bakoitza. Gurasoen logelara hurbildu eta atea jo nuen. Amak ahots arraroz eta behin eta berriz “bai” esanez erantzun zidan. Nik Hiru Errege Magikoak zeudela esan nion, baina berak “bai” esaten jarraitu zuen. Nire logelara joan eta lo gelditu nintzen, erregeek opariak uzteko.

Baina hurrengo goizean, ez zegoen oparirik. Ez zegoen ezer. Ondasun guztiak desagertu ziren. Nire anaia txikia, hiru urtekoa, ere desagertu zen.

Hogei urte geroago, han nengoen ni, langabezian, mozkorti hutsa, eta oraindik ere nire gurasoen etxean. Oso txarto hartu nuen nire anaia desagertzea, nik utzi baitnien lasai-lasai etxean lapurtzen eta nire anaia bahitzen. Baina okerrena geroago etorri zen, Hiru Errege Magikoak existitzen ez zirela jakitean, nire burua lelotzat hartu nuen.

Orduan izan zen, urtarrilaren 5ean, telebistan urte hartako Hiru Errege Makabroei buruzko oharra ikustean, nire buruarekin zerbait egitea erabaki nuenean: Hiru Errege Makabroak harrapatu eta nire anaia non zegoen galdetuko nien. Banekien (edo gutxienez hori uste nuen) non izango zen haien hurrengo kolpea. Kostata, kolperik eman gabe egoteagatik nuen tripa altxatzea lortu nuen, eta bizarra ere moztu gabe atera nintzen.

Gaueko ordu bata zela, kotxea hartu eta Lorategi kaleko 15.era abiatu nintzen. Baina bide erdian nengoela ...:
- Ez, ez , ezezezezez…Putza, joder!!!!Beti berdin!!!-Bai, gasolina amaitu zitzaidan. Oinez joan behar izan nuen, baina hori gutxi balitz, txakur kaka batekin irristatu eta lurrera erori nintzen. Guzti hori borobiltzeko, aurpegia beste plasta batean sartu nuen. Behintzat nire aurpegiak ez zuen minik hartu… Potroetaraino nengoen jada.

Bide bazterrean, mutiltxo bat bere trizikloarekin jolasten zegoela ohartu nintzen. Mutiltxo hark ezeren errua izan ez arren, zorte txarra izan zuen, leku txarrean eta momentu txarragoan egoteagatik. Mutiltxoak ni ikustean, zer eta hauxe esan behar zuen:
- Olentzero da! Berriz jaitsi da bere mandoaren bila!

Begirada hiltzaile bat bota nion eta mutikoa nola kikiltzen zen sentitu nuen:
- Isil hadi, txarto erditutako mukitsu madarikatua!!! Joan hadi infernura !!!-oihu egin nion, harrapatzekotan lasterka hasi nintzen bitartean. Mutikoa lasterka eta negarrez bere etxera joan zen. Gizajoa, hartu zuen trauma ez zen txikia izango. Bere trizikloa hartu eta nire bidea jarraitu nuen. Behintzat horrek gauez kalean ez jolasten eta ezezagunekin ez berba ez egiten ikasiko zuen. Beno ezin nuen kulpatu: bizarrarekin, tripa handiarekin eta aurpegian ikatza ematen zuen mokordoarekin normala zen erratzea.

Azkenik, iritsi nintzen. Ziur nengoen hura izan behar zela etxea, hiriko handiena eta aberatsena baitzen. Benetan, itxura erridikulua izan behar nuen: Olentzero itxurarekin, triziklo baten gainean, gaua zela eguzkitarako betaurrekoekin, itxaroten.

Bat-batean, auto beltz bat etxe aurrean gelditu eta, handik itxura xelebrea zuten hiru tipo jaitsi ziren. Etxeko atea irekitzea erraztasun handiz lortu eta sartu egin ziren. Bitartean, ni, isiltasun osoz, etxean sartu eta haien atzean jarri nintzen. Begiak itxi nituen eta Khung Fhu-ko zer kolpe emango nien pentsatzen nuen meditatzen nengoen bitartean. Kontzentraturik, begiak ireki eta hiru tipoak niri begiratzen zeudela konturatu nintzen.
-Ze arraio!- esan eta bi tipoak barrabiletan jo nituen. Seko erori ziren biak. Hirugarrena jotzear nengoela, paralizatuta geratu nintzen, ongiegi ezagutzen bainuen aurpegi hura. Iñaki zen, nire anaia! Berak ere antzeman zuen antza, pelikuletan bezala nigana korrika, besarkatzeko asmoz baitzetorren.
-Ez izan marikoia! -esan eta belarritik tira eginez gurasoengana eraman nuen.

Geroago, Iñakik Hiru Errege Makabroek lapur izateko hezi zutela esan zuen.Nik, supermerkatu batean Olentzerorena egiten lana aurkitu nuen. Nire gurasoak pozik zeuden Iñaki aurkitzeaz. Azkenean, denok pozik. Beno, ia denok, Iñaki kartzelan sartu baitzuten. Bah, izorratzea dauka!

Ah, eta gero ez esateko, trizikloa umeari itzuli nion.



Goreti Zarrabe
DBH 2. maila
"Imajinazioz edozer egin daiteke "

ZERTARAKO IKASI

Irati izeneko hamaika urteko neska bat Bilboko etxe handi batean bizi zen bere gurasoekin eta bere neba Jokinekin.Bere aita mediku ospetsua zen eta unibertsitatean klaseak ematen zituen. Oso aberatsa zen eta beti zegoen Iratiri zertan lan egin behar zuen, zein unibertsitatera joan behar zuen eta asko ikasi behar zuela esaten. Iratiri ez zitzaion ikastea gustatzen eta ez zuen ulertzen zertarako ikasi behar zuen aktorea izateko.

Txikitatik gustatzen zitzaion antzeztea eta eskolako emanaldietan beti izaten zen protagonista oso ondo antzezten baitzuen.

Egunak joan eta egunak etorri, ikasi egin behar izaten zuen azterketak gainditzeko nahiz eta ez gustatu.

Egun batean, Bilboko antzerki taldeko gutun bat heldu zitzaion etxera; baina bere aita gutunak hartzera joan zenean, gutun hura lurrera erori eta txakurrak hartu zuen. Iratiren gutunik garrantzitsuena txakurraren etxetxoaren atzeko aldean zegoen erditik apurtuta eta txakurraren liztuarekin busti-bustita gainera. Neskatoa ez zen konturatu ere egin gutuna bere etxeraino heldu zenik.

Hurrengo egunean eskolarantz zihoala, atzetik norbait zuela entzun eta buelta emandakoan hantxe ikusi zuen bere lagunik onena buru gainean izugarrizko arrosa koloreko kapela itsusia, bere amonarena zirudien arropa erdi apurtutako bat, seguruenik bere ahizpa zaharrarenak izango ziren plataformadun zapatak eta eskuan bera baino handiagoa zen poltsarekin.

Iratik salto eta guzti egin zuen bere lagun Ania ikusi zuenean eta esan zion:

– Neska, zer zabiltza itxura horrekin? Oraindik ez dira inauteriak eta!
– Badakit, ez naiz hain laburra. Baina zuri ez al zaizu Bilboko antzerkikoen gutuna heldu? Zu zara eskolako antzezlerik onena eta!
– Zer diozu?
– Atzo gutun bat heldu zitzaidan esanez pertsona bat behar dutela musikal bat egiteko. Gainera gaur da froga!
– Ez esan! Eta zein pertsonaia behar dute?
– Andra martxosa erdi zoro bat behar dute.
– Orduan hori nire papera izango da. Oraintxe noa etxera aldatzera.

Irati korrika batean joan zen etxera eta lehenengo eta behin bere amaren logelara sartu zen, bitxirik garestienak, amak udan erabiltzen zuen pamela eta hamar zentimetroko takoidun zapatak hartu zituen. Gero, bere logelara joan eta bikinia jantzi zuen. Hori zen piura!

Azkenean eskolara heldu zen eta besteen arropak ikusita berea ez zela hain txarra ere pentsatu zuen.

Lo hartu zuen irakasleen gelako atearen aurrean itxaroten, baina azkenean deitu zioten, eta sartu egin zen.

Han zegoen bere tutorea zen elefante itxurako andereño itsusia, eta berak handitan izan nahi zuen bezalako aktore bat bere aurrean. Egia esan ez zuen aktore hark bezalako sudur luzea eduki nahi, baina tira.

Aktore sudur luzeak zerbait antzezteko esan zion, baina Iratiri ez zitzaion momentu horretan ezer bururatzen. Azkenean, aurreko eguneko klase bat etorri zitzaion burura. William Shakespeare-ren bizitza ikasten ari ziren Ingeleseko klasean eta bere antzezlan baten bideoa ikusi zuten. Bideoan ikusi zutena egin zuen gutxi gora-behera, baina bere amaren hamar zentimetroko takoidun zapatekin oso astiro egin behar izan zuen. Amaitu zuenean, esan zioten asteleheneko atsedenaldian abesteko froga egingo ziotela.

Arratsaldean, ostirala zenez, Irati Aniarekin geratu zen bere etxe aurrean eta han eman zuten arratsalde osoa musikalari buruz hitz egiten.

Aniak galdetu zion zein kanta abesteko asmoa zuen asteleheneko atsedenaldian, baina Iratik antzezten baino ez zekien; oso txarto abesten zuen. Denbora asko pentsatzen eman ostean, Iratik Aniari esan zion plan bat zuela eta ezin zuela hutsik egin. Bere ustetan plan bikaina zen.

Astelehen goizean oso goiz joan beharko ziren eskolara eta irakasleen gelara inork ikusi gabe sartu. Eskola goizeko zortzietan zabaltzen zuten eta ordurako han egon beharko ziren Ania eta Irati. Irakasleen gelara sartu ondoren, disko bat ipiniko zuten irratian eta Iratiri froga egiteko deitzen ziotenean,

botoiari eman eta kitto! Bere ahotsaren kontu hori konponduta zegoen. Ana eta Irati asteburu osoan egon ziren plana behin eta berriro errepasatzen, huts egiten bazuten Iratiren ametsa pikutara joango zelako.

Azkenean heldu zen plana burutzeko garaia eta Aniari eta Iratiri ondo irten zitzaien, baina Irati ezpainak mugitzen zituenean dantzatzen ari zela, nahi gabe, atzerantza joaten hasi zen eta irratiaren botoiari eman zion. Akabo, plan guztia pikutara joan zitzaion eta ez zuten musikalerako hartu. Ania hartu zuten. Irati berarekin joaten zen entsaiatzen ikustera eta oso ondo pasatzen zuten biek.

Baina laister, noten garaia heldu zen eta Iratiri ez zitzaionez ikastea gustatzen eta musikalaren kontu guzti horrekin ezin izan zuen ikasi. Horren ondorioz, normala denez, bost ikasgai suspenditu zituen eta ez zen uda osoan ezertarako ere etxetik atera. HURA BAI PLANA!

Ander Gonzalez
DBH 2. maila
"Skate eta futbol zalea naiz"

HERRI GALDUA

Londres inguruan, orain dela ehun eta hirurogei eta hamar urte baino gehiago herri txiki bat zegoela diote batzuek. Eta bat-batean herri hura desagertu egin zen. Hori diotenek, sorgin bat atrapatu eta sutan erre ostean, sorgina berpiztu eta herritarrei madarikazio bat bota zielako gertatu zela kontatzen dute: Madarikazioak herritarrak zonbi bihurtu zituen! Beste batzuk aldiz, gehienek, herri hori inoiz ez dela existitu esaten dute, istorio hau entzun ondoren zuek berdin pentsatuko duzue, historia gezurra dela… baina….

Orain dela zazpi urte gertatu zen orain kontatuko dizuedan historia… Londreseko ikertzaile batek, Wilham Chaplingek, herri horri buruz irakurri zuen eta interesgarria iruditu zitzaion herri hori benetakoa ala ez zen froga-

tzea. Chapling jauna oso ikertzaile ona zen, asko irakurtzen zuen eta oso pertsona jakintsua zen, baina oso jakintsua izan arren ez zekien nondik hasi ez baitzekien non bilatu informazioa.

Kaletik zihoala - Herri misteriotsu zantar hori! Nondik hasi naiteke?- esan zuen eta halako batean bazter batean zegoen behartsu batek esan zion:
- Zein herri misteriotsuz hitz egiten ari zara?
Eta Wilhamek txiroak zeraman arropekin aluzinatuta esan zion honi:
-Ez ahal dakizu nor naizen ala? Ni ikertzaile bat naiz. Londrestik hurbil, herri txikitxo bat zegoela esaten dute eta nik herri hori existitzen den jakin nahi dut.
-Bai, existitzen da.-esan zuen txiroak.
-Nola dakizu hori? Lagunduko nauzu ikerketa honetan?
-Bai noski! Baina jateko zer edo zer ematen badidazu, soilik?
- Ondo da, etorri nire etxera eta jaten emango dizut.
Wilhamen etxean zeudela, txiroak hamar egunetan jan daitekeena momentuan irentsi zuen, eta bukatzen zegoela zera esan zion:
-Joan zaitez Londreseko liburutegira eta begiratu hirugarren solairuko zortzigarren apalean, eskuin eskuinean. Bertan liburu zahar-zahar bat topatuko duzu. Seiehun eta hirurogei eta seigarren orrialdean mapa bat aurkituko duzu. Mapan ikusiko duzu non dagoen herria.

Hori esaten zion bitartean, Wilham beste gauza batzuk egiten buelta emanda zegoen eta txiroari begiratzean - nola dakizu zuk hori?- galdetzera zioanean behartsua ez zegoen jada eta Wilham pentsakor gelditu zen – ze arraroa, egia izango ote da horrek kontatutakoa?

Hurrengo egunean Wilham liburutegira joan zen baina… ez zegoen hirugarren pisurik!!! Biraoka zegoela, buelta eman eta eskailera batzuk agertu ziren, hauetatik igo eta bertan topatu zituen apal gehiago. Esandako lekuan, liburua aurkitu zuen, 666 orrira joan eta bertan topatu zuen behartsuak aipatutako mapa. Maparen azpialdean zera jartzen zuen: *<<Londreseko iparraldean topatuko duzu zuhaitza, itsasoaren atzean topatuko duzu zure erantzuna, X....II km-ra>>*
- Nola?-esan zion bere buruari- ez du jartzen zenbat kilometrora dagoen herria!

Ikerketa bertan bera uztekotan zegoela, bere lagun James gogora etorri zitzaion. James jeroglifikoak deszifratzen espezializatua zen. Mapa berari eraman zion eta hauxe esan zion:
- Oso zaila izango da hau deszifratzea baina ahaleginduko naiz. Oraindik zer edo zer ikusi ahal da.- Papera mikroskopio azpian jartzen zegoela jarraitu zuen- Biharko jakingo dut etorri eta esango dizut, zu bitartean egon lasai.

Wilham, bere etxera joan eta ohean etzan zen. Bere pentsamenduetan murgildu zen. Konturatu zenerako lo zerraldo zegoen, egun bi zeramatzan lo egin gabe . Esnatzerakoan bere lagun batzuen bila joan zen espedizioarekin laguntzeko, eta hauxe esan zien:
- Londres inguruan herri galdu bat bilatzen ari nahiz. Lagunduko didazue ?
-Bai!-esan zuten guztiek aho batez.
-Eskerrik asko denoi, etzi geldituko gara goizeko zortzietan espedizioa hazteko, agur.
-Agur!!-Esan zuten denok batera.

Hurrengo egunean bere lagun Jamesengana joan eta honek herria hogeita hiru kilometrora zegoela komentatu zion. Wilhamek eskerrak eman eta hurrengo eguneko espedizioa prestatzera joan zen.
-Denok prest al zaudete?!-esan zuen Wilham-ek oihuka.
-Bai!-erantzun zuten denek.

Mapa jarraituz bilaketa hasi zuten. Baso ilun batera sartu ziren eta iparraldera jo zuten. Otsoen uluak entzun eta armak prestatu zituzten zetorrenerako. Baina ez zegoen otsorik. Zonbiak ziren! Herria hurbil behar zuen madarikazioko zonbiak bertan zeuden eta. Zonbiei tiroka erantzun zieten guztiak akabatu arte.

Basoan zehar sei ordu ibili ondoren… han zegoen herria! Topatu zuten!
Misterioa argitu zen! Egia zen guztia, herri galdua, zonbiak …! Wilham asko poztu zen. Ikertzaile famatu bilakatzeko aukera zuen eta berarengan sinismenik ez zutenek onartu beharra izango zuten arrazoia zuela. Frogak batu zituzten, argazkiak, bideoak, …

Londresa bueltatzerakoan Wilhamek komunikabideak deitu zituen frogak erakusteko asmoz. Baina argazkiak eta bideoak izorratuta agertu ziren, denen aurrean barregarri geldi-tu zen. bera eta bere lagunak zoroetxera eraman zituzten.

Inoiz Londres ingurura bazoaz, baso ilun batetan aurkituko duzu HERRI GALDUA!

Martin Urrutia Etxeandia
DBH 2. maila
"Pozik egoteko dirua ez da garrantzitsuena"

BIDAIA LUZEA

Kaixo lagunok, ni bostehun euroko billete bat naiz egin berria, kaxa baten barruan nago beste askorekin, baina denak dira balio txikiagokoak. Ez dakit zertan nagoen hemen baina irrikatan nago, esan didatenez, bidaia hasteko.

Apur bat geroago, kaxa guztia mugitzen hasi da, bat-batean esku bat agertu eta gu denok bertotik ateratzen hasi gara. Dagoeneko heldu gara banku eder batera, dena dago arrosaz margoturik, aire girotua dago berton.

Handik egun batzuetara andre altu eta dotore bat sartu zen banketxera, inork espero ez zuen arren, pistola bat atera eta jende guztiak altxatu zituen eskuak. Hura zoramena, orduan andreak zuzendariari haserre aurpegiz:

- Aizu! Emazkidazu dituzun bostehun euroko billete guztiak!
- Bai, oraintxe! – dardarka ari zen bitartean.
- Bizkor ibili zaitez bestela tiro egingo dizut-eta! – andreak oihuka.
- Bai!

Segidan hartu gintuen gu denok zuzendariak eta mahai gainean utzi gintuen andreak hartu eta korrika eraman gintuen arte.

Banketxetik irten zenean gizon potolo bat zeukan motor galant batean itxaroten. Emakumearen poltsikoan bidaia luze bat egin ostean etxe bakarti batera heldu ginen eta motorra garajean utzi ostean, etxe barrura joan ginen.

Entzuten ari ginenez, hori ez zen ostu zuten lehenengo banketxea, gizonari ostu zuten diru guztia erakutsi zion. Hori egiten ari zela haize bolada bat sartu eta ihes egin zizkioten billete batzuk, horietatik bat ni nintzelarik. Aldi batean noraezean ibili ostean, kamioi baten atoira erori nintzen eta bertan hainbat patata zaku zeuden. Kamioia gelditu eta karga ateratzen ari zela aurkitu ninduen gidariak, baina poz aurpegia jarri barik nirekin zer egin pentsatzen hasi zen.

Ni hurbileneko komisariara eraman ninduen eta nola aurkitu zuen esan eta segidan, poliziari eman zion. Ni gaizki pentsatzen hasi nintzen gidariagatik izan ere nola ez zitzaion nire zifra handi eta borobila gustatu?

Polizia hark, billetea nori galdu zitzaion aztertzen hasi barik, beretzat hartu ninduen, kabroi halakoak. Beharra amaitu eta segidan, 5:45 aldera, droga saltzen zuten gizon batzuengana joan zen eta kokaina gramo batzuengatik aldatu ninduen.

Bat-batean, hainbat polizi auto agertu ziren eta horrek esan nahi du, droga erosten joan zen poliziak tranpa jarri ziela droga trafikatzaileei. Ni ninduen gizona oihuka hasi zen.
- Nik ez daukat errurik!
- Hori oraintxe ikusiko dugu. - poliziak aurpegi serioz.

Orduan Bilboko epaitegira joan ziren ni poltsikoan nintzelarik, oso toki ederra zen, baina ez epaitu behar zituztenentzat. Abokatuak ahal zuen guztia egin arren, bi urteko kartzela zigorra jarri zien epaileak.

Pentsatu nuen ea nik ere, bostehun euroko billete arrosa ederrak, kartzelan eman beharko nituen bi urteak. Bai, horrela zen, bere erropen artean eman behar izan nituen bi urteak.

Lehenengo egunak nahiko bizkor pasa zitzaizkidan, gizon hark bere buruari esaten zizkion gauzak entzuten, okerrena zen, kartzela hartan liburuak ematen zizkiela presoei irakurtzeko, baina nik, ez nekien irakurtzen.

Kartzelan ezer txarrik egin gabe pasa nituen zazpiehun eta hogeita hamar egunak oso aspergarriak izan ziren, nire bizitza guztiaren moduan, izan ere, bere liburuko berrehun eta hogeita hamabosgarren orrialdean ezkutatuta eduki ninduen. Espetxetik irtendakoan, oso damututa zegoen gizona drogak saltzen ibiltzeaz eta kalean aurkitu zuen lehenengo eskaleari eman zion poltsikoan zeukan guztia, baina nahi gabe ni ere bota ninduen. Momentu horretan eskalea saltoka hasi zen eta droga saltzaileak ikusi egin ninduen gizon haren eskuan.

- Hori nirea da! Nahi gabe bota dut! Eman iezadazu!
- Dagoeneko eman didazu eta orain ez didazu kenduko!
- eskaleak ospa eginez.
- Ikusiko duk harrapatzen bahaut!

Eskaleak, eguneroko moduan, bere gurasoen etxeko portalean aldatu zituen arropak, izan ere uste zuten bulego batean lan egiten zuela. Ni, oraingoan, bere “txupa” garbian gorde ninduen eta gurasoei kaixo esan ostean, azaldu zien, Gabonetako paga estra nintzela beraientzako emanez.

- Tori ama, bostehun euroko billetea eman didate lan-tokian.
- Eskerrik asko seme, Gabonetako gastuei aurre egiten lagunduko digu.

Afaria jaten ari zirela eskalearen amak tomateaz zikindu zuen bere alkandora eta zikin-zikin zegoenez labadorara sartu zuen ni barruan nengoela. Ikuzgailuaren barruan ordu batzuk eman ostean, piztu egin zuen.

Hasi zen bueltaka, zarata hotsa atereaz, hura zen nire azkena. Geroago, andrea konturatu zen, ni bertan nengoela baina dagoeneko, berandu zen.



Sara Abaunza Urionabarrenetxea
DBH 2. maila

EGUN AHAZTEZINA

- Maite!! Jaiki zaitez! Berandu iritsiko zara eta!-oihukatu zidan amak bere logelatik.
- Baaaii…Oraintxe noa..!-erantzun nion erdi lotan eta presarik gabe.

Goiz hartan berandu iritsi nintzen eskolara. Auskalo zein ordutan oheratu nintzen bart, gaua lagunekin igaro bainuen beldurrezko pelikula horietako bat ikusten.

Lehenengo orduan gaztelera geneukan: irakurketa. Arrapaladan eta arnasestuka sartu nintzen gelara eta andereñoak ez zidan ezer esan. Nire lekuan eseri nintzen; Mikel eta Josebaren artean hain zuzen ere, gure tutoreak talde mistoetan jartzeko agindu zigun eta. Ordu hura laburra suertatu zitzaidan,

andereñoak, nekatuta zegoenez, 10 minutu arinago amaitu baitzuen klasea. 10 minutu horiek Mikelekin berriketan eman nituen, nire auzoko marmartien moduan, esamesaka eta kuxkuxean. Gauza askoren berri izan nuen baina ez niola inori kontatuko agindu nion.

Zorte handia izan genuen astelehen hartan, bigarren orduan musikako andereñoa ez baitzen agertu eta hirugarrenean txango bat egingo genuen basora, animalia eta landareak aztertzera. Lehenengo A eta B taldeak joango ziren eta gero C eta D.

Hau entzutean bihotza poztu zitzaidan; ni C taldekoa bainintzen eta Gontzal D-koa.

Gontzal nire ametsetako mutila zen. Atsegin nituen bere begi distiratsuak, bere ile leun eta argia eta baita bere izaera ere. Gero eta gehiago hitz egiten genuen, jantokian bere mahaikoa nintzelako, edo bera nire mahaikoa, eta horri esker konfiantza hartu genion elkarri.

Basoa ez zen herritik urrun aurkitzen baina autobusez joan ginen hala ere. Lehoinabarra baino bizkorrago heldu ginen baso hartara, berandu iritsiko bagina landareak agortuko balira bezala.

Bertara heltzean gizon bat hurreratu zitzaigun. Bizar zuria zeukan, eta burusoila zen. Begiak gerizak baino txikiagoak zeuzkan eta erabat puztutako masailak. Esan zigutenez, Karlos zen, gure monitorea, beraz, berarekin basoan barneratuko ginen.

Oso baso alaia zen, berdea eta argia, zuhaitz eta zuhaixkaz betea. Txorien txorrotxioa besterik ez zen entzuten, Adrian, gelako bihurrienak, ahate bati harri bat bota zion arte noski. Laku asko zeuden bertan, denak animaliaz beteak. Asko gustatu zitzaidan paisaia hura, beraz, lagunekin batera argazkiak ateratzeari ekin nion.

Ordu erdi generamatzan ibiltzen basoan zehar, eguzkiak buruan jotzen gintuelarik. Izerditan blai geunden.

Halako batean Mikel hurreratu zitzaidan:
- Maite, ausartzen al zara bestaldeko zelaira joaten?
-esan zidan lakuaren beste aldean zegoen bide bat seinalatuz.
- Nortzuk duzue joateko asmoa?-ihardetsi nion harrituta.

- Ba..oraingoz Nerea, Josu, Ander, Jone, Gontzal, Adrian eta ni baino ez gara animatu.

Pentsakor gelditu nintzen, baina azkenean baietza eman nion. Karlos bere istorio hunkigarrietako bat kontatzen ari zen bitartean, taldetik urrundu ginen inor konturatu gabe eta lasterka batean ur-jauzi txiki baten alborarte joan ginen. Bertatik aldapa gora egin genuen, zubi bat igaro eta zelaira heldu ginen. Denok lurrean eseri ginen eta bat-batean Nereak bere poltsatik Coca-Cola botila batzuk atera zituen. Harrituta, Mikeli begiratu nion, planaren zati hau ez baitzidan kontatu. Taldetik urrundu nintzen eta errekaren ertzean eseri nintzen ez bainuen mozkor batzuk zaintzen geratu nahi.

Nire gauzetan murgildu nintzen laster, pentsakor, ez dakit zertan. Abesti bat abesten hasi nintzen baxuan, inork entzutea nahi ez banu bezala. Ez dakit zenbat denboraz egon nintzen bertan baina hirugarren abestiaren amaieran nengoela gutxi gorabehera, bigarren ahots bat entzun nuen. Hasieran ez nion garrantzirik eman baina laster konturatu nintzen norbait zela nirekin. Atzera begiratu nuen. Bertan zegoen Gontzal niri begira bere betiko irri ederrarekin.

-Ez al zara besteekin gelditu?- galdetu nion lotsatuta.
-Bai baina itzuli ez zarenez keztatu egin naiz. Gainera harrapatzen bagaituzte ez dut mozkor guzti horien arduraduna izan nahi.

Minutu batzuk isilik eman genituen.
-Zerbait ikusi nahi al duzu?-galdetu zidan bat-batean.
-Noski! Zer da ba?-

Besotik heldu zidan eta beste zelai handiago batera eraman ninduen. Zelaiaren erdialdean sasi eta zuhaixka batzuk zeuden. Bertan barneratu eta etxe bat agertu zen ezkutatuta.

Oso etxe polita zen nahiz eta zaharra izan. Gontzalek txabola bat zela esan zidan orduan. Bere aitona baso hartatik hurbil bizi omen baitzen eta txabola hori eraiki zuen, bakarrik egon nahi zuen bakoitzean bertara joateko.

Barrura sartu eta koltxoi zahar baten gainean eseri ginen. Hizketan ibili ginen denbora batez eta halako batean galdetu zidan:
-Gaur Mikelek zerbait kontatu dit.
-Zer?

Gontzal gorritu egin zen. Ez zen esaten ausartu, beraz, nigana hurbildu eta muxu goxo bat eman zidan. Orduan erantzunaz ohartu nintzen. Goizean Mikeli nor nuen gogoko kontatu nion eta seguruenik honek Gontzali zerbait esango zion.

Ez nintzen Mikelekin haserretu, alderantziz, asko poztu nintzen, Gontzalekin egon bainintzen arratsalde osoa. Zer gehiago nahi nuen?

Mugikorrak pentsamenduetatik esnatu ninduen. Nerea zen. Autobusean zeuden eta laster zerrenda pasatuko zuten. Gontzal eta ni korrika batean hasi ginen. Munduaren amaiera izango balitz bezala eta autobusera heldu ezkero mundua salbatuko genukeela. Hala izan zen, mundua (gelakideak) errieta batetatik libratu baikenuen.

Larunbatean, asteburu guztietan legez, berandurarte geratu nintzen ohean, ostiral hura gogoratzen. Eguerdian mandatu batzuk egin nituen eta gero bueltatxo bat egitera joan nintzen. Gontzalek deitu zidan, basora joateko, txabolara, hura izango baitzen gure txoko sekretua; gure txabola ezkutua.

Laster batean heldu nintzen, nahiz eta bidea aurkitzen pixka bat kostatu.

Sasi eta zuhaixka multzoa zeharkatu nuen. Bat-batean argia ikusi nuen txabolan. Ez zen etxe batetan agertzen zen argi arrunt bat, kea baitzeukan. Barrura sartu nintzen baina ez nuen su izpirik aurkitu. Orduan, soinu arraro bat entzun nuen. Txabolaren atzeko aldetik zetorren, beraz, hara hurbildu nintzen. Bertan aurkitu nuen Gontzal, zaurituta eta Jokin, bere laguna, urduri, zer egin ez zekiela. Ni ikustean lasterka hurreratu zitzaidan erdi negarrez, bere errua zela aitortuz eta oihuka. Ez nuen ezer ulertzen baina denbora galdu gabe 112ra deitu nuen. Berehala heldu ziren suhiltzaileak eta anbulantzia. Baita polizia ere. Galdera batzuk egin zizkiguten nahiz eta nik erantzun askorik ez eman. Jokinen txanda zen, beraz arretaz entzun nuen esandakoa:

- Nik ez nuen nahi..nire errua izan da…Nire amarekin eztabaidatu nuen bart, beraz, Gontzali esan diot ea berarekin lo egitera joan ahal nuen. Hona etorri gara eta gose izan naizenez zerbait frijitzea erabaki dugu. Ni nire zereginak egitera joan naiz zuhaixken artera eta itzuli naizenean horrela ikusi dut. Amarekin eztabaidatu ez banu eta nire zereginak beste baterako utzi izan banitu…

- Lasai Jokin, ez da zure errua izan. Gauzak horrela gertatu dira baina seguru nago

Gontzal laster hobetuko dela- eta besarkada bat eman nion.

Ospitalean eman nuen gau osoa. Erizainak, Gontzalek oroimen arazoak zituela esan zidan baina laster (2 edo 3 egun barru) etorriko zela bere onera.

Hurrengo egunetan ez nuen etxetik irteteko gogo handirik izan eta nire gelan eman nituen hurrengo 2 egunak.

Hirugarrenean ospitalera bueltatu nintzen. Gontzal hobetu egin zen baina gauza batzuetaz ez zela oroituko informatu zidaten.
- Kaixo Gontzal! Ondo al zaude? – esan nion pozik. – Hemendik ateratzen zarenean txabolara bueltatuko gara, ongi?

Gontzalek aurpegi arraroa jarri zuen. Zeri buruz hitz egiten nengoen jakingo ez balu bezala.
- Barkatu baina…nor zara zu? Ze txabola?

Negar batean hasi nintzen.

Orain berriz ere jantokian batera gaude. Askotan hitz egiten dugu. Dena beti bezala dago berriz, baina espero dut halako egunen batean beste txango bat egitea.

Maite Urkiza Aranzabal
DBH 2. maila
"Maitatu bizitzeko edo bizi maitatzeko"

BONBOI KAXA

Ikusi al duzue "Forrest Gump" filmea? Pelikula horren hasieran Forrest autobus geltoki batean ikus dezakegu bonboi kaxa bat altxoan duela. Bere bizia gogoratzen hasi eta adineko andre bat esertzen zaio ondoan. Forresek andreari bonboi bat eskaintzen dio eta berak beste bat ahora sartzen duen bitartean esaten dio:"Nire amak esaten zuen bizitza bonboi kaxa batelakoa dela. Inoiz ez dakizu zer tokatuko zaizun"

Ez dut inoiz ahaztuko nere bizitzako egun hura.Neguko egun oso hotza zen eta goizean goiz ikastolarantz nindoan. Bat-batean,haize bolada batek, neramatzan papel guztiak hegaz eroan zizkidan. Ondo hasi nuen eguna paper guztiak lurrean botata! Ikuste hutsak negargura eragiten zidan.

Gelara sartu, motxila lekuan utzi neskek korro bat egin eta beti bezala txutxumutxu guztiak kontatzen hasi ginen alkarri ,mutilak ordea ,bakoitza bere tokian eseri edo binan-binan batzen ziren bitartean .

Andereñoa sartu bezain pronto denak gure tokian jezarri ginen klasea hasteko asmoarekin. Baina,egun hura berezia zen,behintzat nik halako zirrara berezia sentitzen nuen,zerbait gertatu behar zuela somatzen nuen.Ez dakit...

Esan bezala, andereñoa sartu zenerako lekuan eseri eta matematikako ariketak egiten hasi ginen. Ondo gogoratzen dut ariketa hura. Ekuazio oso luzea zen....

Bapatean beste irakasle bat sartu zen gelara eta matematikako andereñoarekin hitz egin ondoren zera esan zidan:
- Olatz,etorri nirekin mesedez.

Oso beldurtuta nengoen, ez nekien zer egin. Inoiz ez nintzen ezertan sartzen nahiko formala nintzen baina... Eserlekutik altxatu eta haren atzetik joan nintzen.Ez nekien nora , baina ni formal-formal eta isil-isilik jarraitu nion.

Gela batera sartu ninduen.Bertan ama eta neba zeuden begiak lurrari josita eta negarrari eutsi ezinik.
- Zer gertatzen da?-galdetu nuen jakinminez

Amak musu eman, gogor oratu eta zera esan zidan:
- Maitea,aitatxok utzi egin gaitu.
Ni harrituta nengoen.
- Utzi egin gaituela?Nora egin du alde ba?-galdetu nuen.
Amak negarrari eman zion:
-Aitatxok istripu bat izan du eta hil egin da.
Ezin nuen sinetsi nire belarriek entzuten zutena.

Gelatik joan eta komunera sartu nintzen.Ez dakit ziur, zenbat denbora igaro nuen negar eta negar. Halako batean Nerearen ahotsa entzun nuen:
- Olatz, Nerea naiz. Mesedez , denok dakigu zer gertatu den,badakigu gogorra dela baina guk asko maite zaitugu eta ezin zaitugu horrela ikusi. Mesedez, irten komunetik. Jolastordua da eta hitz egin genezake,denak gaude gelan zuri laguntzeko prest.

Ez dakit nondik atera nituen indarrak komunetik ateratzeko baina irten nintzen eta Nerearekin batera gelara sartu nintzen.

Ez zen batere erraza izango aitaren kontu guzti horretaz hitz egitea baina lagunak bertan ziren laguntzeko prest .

Orduak, egunak, asteak, hilabeteak, urteak…oso gogorrak izan ziren baina inoiz baino gehiago sentitu nuen lagunen maitasuna. Familian ere inoiz baino elkartuago geunden. Aitaren falta handia zen baina apurka-apurka ohitu egin nintzen. Ez zitzaidan besterik geratzen.

Horrelako gauzak gertatu egiten dira eta ez dago saihesteko modurik. Baina esperientziagatik esaten dizuet maitasunak eta denborak bizitzak sortutako zauri guztiak sendatzen dituztela.

Zuek esango duzue: ez al da egia bizia bonboi kaxa bat bezalakoa dela?

Irati Arejita

DBH 2. maila

"Jendea maite duzun bezala maite ezazu bizitza"

HEGAN

Kaixo, Ainhoa naiz eta 13 urte ditut . Azkenean heldu dira Gabonak eta normalean aitonaren etxera joaten gara familian pasatzera.

Aurton aitonak talo eder bat prestatu eta urtero bezala istorio bat kontatu digu. Denok jezarri gara bere inguruan,taloa esku artean dugula. Orduan, aitona sutondoan dagoen aulkitxo batean eseri eta istorioa kontatu aurretik zera esan digu:

"Aurton kontatuko dizuedan istorioari buruz agian ez duzue ezer jakingo,nik behintzat ez dizuet inoiz honetaz hitz egin. Orain dela berrogeita hamar urte gertatu zen,baina atzo izan balitz bezala gogoratzen ditut nire amaren begiak gertatutakoa azaldu zidanean"

Hori esan digunean denok harrituta gelditu gara,niri beldur pixka bat eman dit baina bertan gelditu naiz istorioa entzuteko irrikitan nagoelako. Ez dakigu zertaz ari zaigun hitz egiten.Bere aurpegian tristura handia nabari daiteke. Orduan, kontatzen hasi da:

“Nire familian hiru neba-arreba ginen Teresa,Paula eta ni. Nik ez nuen nire arreba Paula ezagutu ni jaio nintzenerako hilda baitzegoen. Baina gurasoek kontatu zidatenaren arabera Teresak bost urte zituela jaio zen Paula.

Paula pertsona oso alaia , berezia eta maitagarria zen; down sindromea zuen eta hori zela eta, ezin zituen egin Teresak edo bere adineko beste haur batek egin zezakeen hainbat gauza.

Ondo moldatzen ziren denak,ez zegoen arazorik,baina hori guztia aldatu zen Paulak hamar urte egin zituen bueltan.

Teresak lagunekin jolastea eta egotea atsegin zuen eta Paulak bere ahizpa beste egin nahi zuen baina gauzak ez ziren errazak. Paula oso triste sentitzen zen Teresa bezalakoa izan nahi zuelako.

Baina ez zen hori arazo bakarra. Teresa lotsatu egiten zen Paulaz eta bere amak behartu egiten zuen bere ahizpa txikia zaintzera . Teresak, egia esan, ez zion jaramon handirik egiten.

Paula bihotz oneko neska zen,baserrian laguntzen zuen eta gelditzen zitzaion denbora eskasean txoriak behatzen egoten zen, hori baitzen munduko gauza guztien artean gehien atsegin zuena. Handitan txori bihurtuko zela esaten zuen.

Goizean goiz jaikitzen zen baserri ondoko landetan eserita txorien kantuak entzuteko eta beraien hegaldi urduritsuekin gozatzeko eta orduak eman zitzakeen bertan zerura begira.

Baserriko lanetan lagundu eta gero, herriko gazteak elkarrekin egoteko batzen ziren. Mutil guztien artean Teresak Tomas zuen gogoko eta zorioneko egun batean hurbildu eta hitzegiten hasi zitzaion unean Paula erdian sartu eta elkarrizketa moztu zien. Mutila oso urduri jarri zen eta buelta hartu eta aldegin zuen.

Egun horretan Teresa inoiz baino lotsatuagoa sentitu zen. Baserrira itzultzean gauza mingarriak esan zizkion bere ahizpa txikiari. Paula negarrez hasi zen ez zuelako ezer ulertzen eta ohera sartu zen.

Hurrengo goizean gosaltzen zeudela Paula Teresa musukatzera joan zen eta honek haserretuta esan zion:

- Nahikoa da! Kokoteraino nago! Lagunekin nagoenean lotsarazten nauzu eta atzo gauza berdina egin zenuen Tomasekin! Utz nazazu baketan eta joan zaitez txoriekin jolastera!

Paula bere logelara joan zen burumakur . Poltsatxo bat hartu eta mendirantz abiatu zen. “Agian txoriekin jolas dezaket, beraiekin hegan egin dezaket” pentsatu zuen.

Pare bat ordu geroxeago, Teresa esandako guztiaz damututa ahizpatxoaren bila joan zen eta gelan ez zegoela ikusita baserriko bazterrak miatzen hasi zen.

Ama eta aita asteleheneko merkatutik bueltatu zirenean urduri eta negarrez aurkitu zuten alaba nagusia. Teresa errudun sentitzen zen.

Hurrengo egunean aurkitu zuten Paularen gorpua amildegian. Soken bidez atera zuten handik baina beranduegi zen.

“Azkenean txoriak bezala hegan egin zuen” esan zigun aitonak..

Alex Torozan
DBH 3. maila
"Ordenagailuak eta internet ditut gustoko"

NI, LEHOI ETA NI, GIZON !

Behin batean, mendiz mendi zebilelarik, lehoi bat, arrano bat, xarlango bat eta inurri bat aurkitu omen zituen ehiztari batek. Eztabaida bizian ari ziren laurak.

-Arratsaldeon, lagunok! Zer gertatzen zaizue? Zergatik ari zarete eztabaidan? -galdetu zuen ehiztariak.

-Bildots bat aurkitu dugula eta ez dakigu nola banatu -erantzun zion lehoiak-. Zuk lagunduko bazenigu …

-Nola ez! –esan zuen gizonak-. Zuretzat, lehoia, haragia. zuretzat, xarlango, hezurrak. zuretzat, arrano, erraiak. Eta zuretzat, inurri laguna, burua, zer jan eta non lo egin eduki dezazun. Ongi iruditu zitzaien eta, beraien esker ona agertzeko opari bana egin zioten ehiztariari:

-Hartu nire adatseko ile hau – esan zuen lehoiak – eta larrialdiretan “Ni lehoia!” esaten baduzu, munduko basapiztia guztiak menderatuko dituzu.

-Hemen duzu neure hegoetako luma hau – esan zuen arranoak - . Eta larrialdietan “Ni, arranoa” esaten baduzu, hegaztirik arinena izango zara.

-Hemen duzu neure hanketako ile hau –esa zuen xarlangoak -. Eta larrialditean “Ni xaralangoa!” esaten baduzu, erbia baino azkarragoa izango zara.

-Nik egia esan, ez dakit zer eman – esan zuen inurria - . Hanka bat ematen badizut, herren gelditukо naiz. Adarño hau emango dizut, ez baitut hainbeste behar. Eta larrialdientan “Ni, inurria!” esaten baduzu, inurri bihurtuko zara.

Ondoren, gizon itxura berriz hartzeko, “Ni, gizon !” esatea nahikoa zela, adierazi zioten laurek.

Bidean jarri zen ehiztaria eta gaztelu bakarti batera heldu zen. “Harritzekoa da, gero, inor ez ikustea !” pentsatu zuen ehiztariak. Eta atea itxita zegoenez, “Ni, arranoa !” esan zuen eta arrano bihurturik, gazteluko dorre bateraino hegaz egin zuen . Leihoaz bestaldean damatxo eder bat zegoen lotan.

Eta leihoa itxita zegoenez, “Ni, inurria!” esan zuen eta inurri bihurturik, zirrikitu batetik sartu zen.

Behin barruan, “Ni, gizona !” esan zuen eta gizon itxura hartu zuen berriro. Une horretan neskatxa esnatu zen eta gizona ikustean, biziki asaldatu zen.

- Ez ikaratu – esan zion ehiztariak-, zuri laguntzera nator eta. Esaidazu: zergatik zaude hemen sartuta ? – Orduan neskak erraldoi gaizto batek bahitu zuela kontatu zion. Eta gero gaineratu zuen: - Hobe duzu hemendik joatea, nirekin ikusten bazaitu, bertan akabatuko zaitu eta. Mometu horretan, urrats izugarri batzuk entzun zituzten. Ehiztariak “Ni, inurria !” esan zuen eta inurri bihurturik, izara zimurren artean ezkutatu zen. Erraldoia gelan sartu eta oso haserre zera esan zuen:

- Gizaki usaina dago hemen! Nor sartu ote da?

Han inor ez zegoela esan zion neskak eta, nahi bazuen, begiratzeko. Erraldoiak zoko – moko guztiak miatu zituen eta inor ez aurkitzean, purrustadaka irten zen gelatik:

- Nik gizaki usaina somatu dut, eta nire sudurra ez da sekula oker egoten.

Erraldoia urrundu zenean, “Ni , gizona!” esan zuen inurriak eta berriz agertu zen ehiztaria. Honek esan zion neskari:

- Bihar, bazkaltzeko garaian, galde egiozu: “Zergatik hiltzen da jendea eta zu ez ordea?” Ea bera hiltzeko moduren bat aurkitzen dugun. Neskak horrelaxe egin zuen.

Hurrengo egunean, bazkaldu bitartean, disimuluz ehiztariak esandako galdera hori egin zion eta erraldoiak dena azaldu zion:

- Ni akabatu nahi nauenak hamalau mila lekotara, baso baten erdian dagoen aintzira batera joan behar da. Aintzira horretan suge bat aurkituko du . Suge hori hil eta erditik ireki behar du. Bere barnetik erbi bat aterako da. Erbia hil eta erditik ireki behar du, bere barnetik uso bat aterako da. Usoa hil eta barnean daukan arraultzea hartu behar du. Gero arraultze hori nire bekokira bota eta alaxe bakarrik hilko naiz.

Biharamunean, neskak ehiztariari kontatu zion eta honek, denborarik galdu gabe, arraultzea bilatzeari ekin zion. Lehendabizi “ Ni arranoa !” esan zuen eta arrano bihurtu zen. Gora eta gora egin zuen hegaz eta baso haren ingurunetara iritsi zen. Artzain baten bordaren ondoan pausatu eta berriz gizon bilakatu zen. Atea jo eta ostatua eskatu zion artzainari. Artzainak erantzun zion:

- Ederki. Gera zintezke , baina ostatuaren ordainez artaldea larrera eramango didazu. Baina ez zaitez aintzirara ingura, bertan ardiak jaten dituen suge ikaragarri bat dago eta. Ehiztariak berehala ulertu zuen zer egin behar

zuen. Ardiak aintzira aldera eraman zituen eta, berak pentsatu bezalaxe, suge puska irten zen. Orduan “Ni lehoia!” esan zuen eta lehoi bihurtu zen burrukan hasi ziren biak. Borroka latza zen, amaierarik gabea, elkar garaitu ezinik. Orduan esan zuen sugeak:

“ Iturri Hotzeko ura hemen baneuka, bizitza kenduko nizuke lasterka !”

Eta lehoiak orduan :

“Eta nik ogi bero bat edukiko banu, eta neska batek musu emango balit, bertan hilko zintuzket nik!”

Eta burrukan jarraitu zuten jo eta ke, baina inork irabazi gabe. Azkenean borrokari utzi zioten eta biharamunean jarraitzekotan gelditu ziren. Bordara oso berandu iritsi zenez, ehiztariak gertatutakoa kontatu behar izan zion artzainari. Artzainak alaba bat zeukan eta ogi bero bat egiteko agindu zion, basora eraman behar zuela eta, sugearekin burrukan hasten zenean, lehoiari ogia eta musu bat ere eman behar zizkiola esanez. Eta halaxe gertatu zen. Lehoiak erraz menderatu zuen sugea eta gizon bihurturik, aiztoaz erditik ireki zuen. Handik erbi bat irten zen. Ehiztaria xarlango bihurtu zen eta erbia harrapatu zuen. Erbia erditik ireki eta uso bat irten zen . Ehiztaria arrano bihurtu zen eta usoa ehizatu zuen. Usoa erditik ireki eta barruan zeukan arraultzea hartu zuen.

Hegan eta hegan, erraldoiaren gaztelura heldu zen eta inurri bihurtuta, gelan sartu zen.

-Ni, gizona! – esan zuen inurriak eta gizona agertu zen. Arraultzea eman zion neskari eta berau erraldoiagana joan zen. Sarritan egin ohi zuen legez, erraldoiari arkakusoak hiltzen hasi zitzaion neskatoa eta, gutxien espero zuenean , arraultzea bekokian lehertu zio . erraldoia izugarrizko oinazeaz momentuan hil zen.

Gaztelu sorgindua desagertu egin zen. Dama gazteak ehiztariaren balentria izaki, berataz maitemindu zen. Ehiztaria eta dama gaztea ezkondu eta zorionekoak izan ziren.

Olatz Monge Etxeandia
DBH 3. maila
"Denok ez gara berdinak, hala ere, denok gara beharrezko"

AMODIOZKO ISTORIOA

Londresko gaztelu batean, bazen Gregor izeneko mutiko bat, bere guraso Tifani eta Juan-ekin bizi zena. Gurasoak oso zorrotzak eta klase handikoak zituen, baina mutikoak ez zuen beraien bizitza oso gustuko. Hamazazpi urte betetzeko lau egun baino ez zitzaizkion falta eta haren gurasoak bazuten jada mutikoarentzako emakume perfektua. Urtebetetze eguna heldu zen eta gazteluan festa izugarria antolatu zuten: familiarteko, zerbitzari, lagun... denak zeuden bertan. Lidia bere emaztegaia izango zena ere bertan zegoen. Baina Gregorrek ez zuen inolako zirrararik sentitu aurkeztu berria zioten emakumearengatik. Aldiz, Lidia mutila ikusiaz batera erakarrita bezala sentitu zen, nahiz eta jakin ez zekien nondik zetorkion kontrolaezina zen erakarpen indar hura.

Hortaz ba, eta ia-ia non eta norekin zegoen konturatu orduko Gregorren besoetan ikusi zuen bere burua, beronen gorputza besoekin estutuz. Inguruan zeuden guztien harridura aurpegiak ikustekoak ziren, bai. Baina Lidiak lotsa handirik gabe jarraitzen zuen barne-barneko sentimenduak adierazten. Tifani eta Juan ere guztiz lotsatuta non sartu ere ez zekitela zeuden. Halako batean, Gregorrek Lidia besoetatik kendu eta lotsa-lotsa eginda eskaileretan gora abiatu zen. Ohearen gainean etzanda jarri eta bere ametsetako neskaren bila jarri zen. Baina... neskak ez zituela gustuko konturatu zen. Ohetik jaiki, eskailerak jaitsi, eta lorategiko jesarleku batean eseri zen, pentsakor. Bere barneko alderik sakonenaz hausnartzen hasi zen, neskak ez zitzaizkion inoiz erakargarriak iruditu, ezta mutilak ere. Baina bazegoen zerbait mutilengan, neskak ez zuten zerbait...

Lorategiko langileetariko batek seme bat zuen, Gregorren adinekoa. Aitari laguntzen jarduten zuen batzuetan. Mutil hura sarritan ikusten zuen lorategian, bere jantzi zaharrekin lore eta zuhaitzak zaintzen. Egun horrek, beste egun guztiak bezalakoa izan arren, Gregorren bizia aldatuko zuen. Gregorren eta Simeonen begiek topo egin zuten momentu berean, sentimendu berdinekin, eta nahiz eta hitzik ez esan batak eta besteak bazekiten emozioz betetako une hori ez zela izango azkenekoa.

Hurrengo hilabeteetan, lapurren antzera, ezkutu-ezkutuan elkartzen ziren biak, baina argi zeukaten besteek ere jakin beharko zutela beraien arteko maitasunaren berri, horregatik, ausardiaz beteta bakoitzak beraien gurasoei kontatu zien euren artekoa. Gregorren gurasoak maila handikoak zirenez ez zeuden prest erlazio hori onartzeko. Simeonen aita alarguna zen, eta honek ere ez zuen ezer entzun nahi izan erlazio honi buruz. Hala ere, biak batera erabaki gogorra eta ausarta hartzen dute, debekuak atzean utziz. Laku ondoan dagoen txalupa hartu eta norabide zehatzik gabe, itsaso zabalerantz abiatzen dira.

Simeonen aita adinekoa zenez eta Gregoren gurasoen esku utzi zuen mutilen bilaketaren ardura, baina hauek ez zuten inoiz beraien berririk izan. Bien bitartean mutilak Irlandara bidean zihoazen baina, bat-batean, izugarrizko ekaitz batek, txalupa mila zati egin eta bi mutilak uretara erori ziren. Zer egin ere ez zekitela igerian hasi ziren salbazioaren bila. Gregorrek oso ondo zekien igerian baina Simeon, aldiz, oso trakets zebilen. Gregorrek Simeonen pisua

ezin zuen eutsi eta etsipenaren ondoren Simeon ur barnerantz joan zen. Gregor, negar zotinka, zer egin ere ez zekiela zegoen; bat-batean itsasontzi bat ikusi zuen urrunean, eskuak gorantz igoaz keinu batzuk egin zituen eta itsasontzikoak bertara hurbildu zitzaizkien. Itsasontzira igo eta marinelek ahal zutena egin zuten, baina zoritxarrez Gregorren bihotzak ezin zuen gehiago. Marinelek Gregorren gorpua itsasora jaurti zuten. Han geratu ziren mutil bien ausardi eta ilusioak. Egun hartatik aurrera mutikoa hil zen tokiari, zorigaiztoko lekua deitzen diote marinelek.

Iker Ansoleaga Villegas
DBH 3. maila
"Neure bizitzaren zutabiek musika, kirola eta lagunek"

GAZA HELBURU

Danba!!!Nire ondoan entzuten ditut bonbardaketaren hotsak. Jendea korrika doa kaleetan zehar beraien etxeetan ezkutatzeko. Hildakoak lurrean ageri dira. Normalena da esku edo hankarik gabeko gorpuak ikustea. Anbulantziak ezinean dabiltza. Bertan, 6 bat urteko mutiko txiki bat, bere hildako aitari eskutik helduta "aita aita" deika erantzun baten zain. Diru gehien dutenek ogia jaten dute eta pobreenak, berriz, ogi apurrengatik borrokan ari dira. "Zergatik gertatzen da hau guztia?Zer egin dugu guk?" galdetzen diot neure buruari erantzunik aurkitzen ez dudala. Nik jadanik galdu ditut gurasoak. Bonba bat gure etxe ondoan lehertu zen eta aita eta amak gu salbatzearren, gu eta bonbaren artean jarri ziren.

Ni eta nire anaia Ifraim soilik gelditzen gara bizirik. Nik, Mohametek, 14 urte ditut eta metro eta hirurogeita hamazazpi gutxi-gora-behera; ile motzekoa eta azal beltzaranekoa. Horren gaztea izanik, dagoeneko gizon batek bezala jokatu behar dut. Azkarregi heldu naiz, azkarregi. Nik ezin dut nire urteko gazte europarrek bezala ondo pasatu edota egunero nire aita eta ama bizirik daudela ikusi. Ez, nik ezin dut. Ifraimek 10 urte ditu. Honezkero badaki zer den gosea jasatea edota bonba bat norberaren ondoan lehertzea. Gauero entzun diezaioket "aita, ama, asko maite zaituztet" esaten malko artean. Gaur beharbada etxe lehertu baten azpian egin dezakegu lo, edo beharbada ez. Ez dakigu nora joan, zer egin, zer jan. Ez dakigu nola gauden bizirik ere.

Gazan dagoeneko 900 dira hildakoak, gehienak zibilak. Israelgo lehen ministroak dioenez...

900 hildako! ez dago eskubiderik...

Gaur ez digu bonben leherketaren batek iratzarri; gaur ez dago bonbardaketarik, momentuz.

-Ifra, Ifra- deitzen diot.

-Um ... zer?

Oraindik lo dago.

-Altxa zaitez. Gaur merkatu eguna da eta mugitzen bazara zerbait lapur dezakegu.

-Ondo da.

Jaikitzen dagoela, gure etxe ondoan lehertu zitzaion bonbaren aztarnak ikus diezazkioket. Beso bat ezin du ia mugitu eta bestea zauriz beteta du.

Merkaturantz goaz. Herritar baino polizi gehiago daude. Lehen jende eta denda ugariz betea zegoen merkatua. Orain hiru dendek eta berrogei bat pertsonek osatzen dute. Ikus daiteke ama dena bere semearekin lapurtzen sagar bat, edota poliziak lapurrak jotzen lapurtutakoa ordaindu arte.

Ezin dut jasan. Ezin dut. Tripa orroaka dut eta denda horretako laranjek itxura ezin hobea daukate.

Gaur bost bat sagar lapurtu ditugu.Hauek astebete iraun behar dute.

Gaua iluna da. Izarrak ia ez dira ikusten sutan dauden etxeek jariatzen duten kearengatik. Bat-batean Ifraim entzuten dut negarrez.

-Zer duzu Ifra?
-Aita eta ama nahi ditut.
-Aita eta ama...
-Ez daude hilda! Ez! – erantzun dit nik esaldia bukatu aurretik.

Ulergarria da. Bere adineko mutiko batentzat oso gogorra izan behar da aita eta ama gabe bizitzea. Niretzat ere bai. Oso gogorra. Kokotetik eskua pasatu diot, niregana hurbildu, eta biok negarrez hasi gara.

Nahasia dut burua. “Zergatik, zergatik gu?”.Amorruz beterik nago. Ahal izango banu nik neuk ere bonbak jaurtiko nituzke Israeldarren aurka, sufrimendua zer den jakiteko, gu bezala bizitzeko, nora joan barik, etxe barik, jateko barik, bizitza barik.

Hurrengo egunean goizaldeko bostak aldera bonba baten eztandak iratzarri nau. Berehala altxatu eta Ifra aurkitzen hasi naiz. Hor dago, etxearen albo batean ezinean.
-Ifra, ondo zaude?
Ez dago erantzunik.
-Ifra!

Burua mugitzen ikusten dut. Ahoa irekitzen du hitz egiteko eta odola irteten hasten zaio.
-Ifra! Zer gertatu zaizu?- galdetzen diot.
-Mohamed, ene anaia maitea, orain aita eta amarekin egongo naiz. Agur ene anaiatxo...

Ezer gehiago esan aurretik begiak itxi eta lurrera jausi da. Bere urtebetetzean oparitu nion lepokoa kendu eta malko artean jarri dut soinean.

Banoa kaletik nire anaia eskuetan dudala, hiritik irteteko bideren baterantz. Nahasia daukat burua. Amorrua gehiegizkoa da. Anaia, aita, ama,aitona, amona... denak galdu ditut. Anaia lurperatu dut behar dut.

“Zer zentzu du bizitzak?” galdetzen diot behin eta berriro neure buruari. “Familiarik gabe nago. Neu bakarrik. Ez daukat indarrik ibiltzeko ere. Bizirik irteten banaiz ere, zer egingo dut ? Akabatua nago, akabatua benetan.”

Norabide jakinik gabe nagoela gizon baten gorpua ikusi dut lurrean. Pistola bat du ondoan. Konprobatu dut ea kargatua dagoen. Bala bat dauka.

“Agur gerrari, agur goseari, agur egarriari, agur bakardadeari,agur. Bizimodu honek ez dauka zentzurik. Nire gorpua ikusterakoan batzuek pentsatuko dute ez naizela ausarta izan, ez dudala aurrera egin. Baina, beraiek ere zer egingo lukete?”

Hartu dut pistola eskuetan. Ia ezin dut altxatu ere. Hotza da, oso hotza, buru alboan jarri dut, begiak zarratu eta pun!

Hotz naiz, dena dago ilun. Eskuetan daukadan pistola lurrera jaurti, eta banoa zerbaiten bila. Urrunean argi bat, eta bertan, aita, ama eta Ifra gainerako familiakoekin. Eskuen keinuek beraiengana zuzentzen naute.

Israel eta Palestina baliteke akordu batera heltzea eta gerra hau betiko bukatzea. Gerra honetan 1000 pertsona baino gehiago hil dira. Jendeak gerrate hau Naziek bere egunean egin zutenaren berdina dela diote.Azken inkesten arabera...

Bukatu da. Bukatu da azkenean. Ez dut gehiago sufrituko, ez, orain bakean biziko naiz.

Ane Miren Muniozguren
DBH 3. maila
"Denok gara herri honen bidea; eraiki dezagun, bada, euskaraz"

LAU BEGI BERDIN, BI MUNDU DESBERDIN

Ezin dut imajinatu nolakoa izango litzatekeen nire bizitza, edo heriotza, Sajhiran, Somalian, jarraitu izan banu.Ama hil zenetik oso bakarrik sentitzen nintzen; baina behintzat izeba Kusara neukan ondoan. Hala ere, oso bizimodu zaila neraman. Bizirik egotea, egia esan, ez zen eskertzekoa. Horrelakorik merezi al genuen? Ez dakit, baina erantzunik jaso gabe, egunak aurrera zihoazen, onerako edo txarrerako.

Beti galdetzen nion neure buruari zergatik nintzen familia hartakoa. Baina banekiena zen, ezin nuela horrela gehiago jarraitu, nolabait esateko, preso, nahiz eta beste aukerarik ez izan. Noizbait pentsatu izan nuen alde egitea baina kamarek aurkituko ninduten. Nola ez! Presidentearen laguntzailearen

semea nintzen! Etxeko leihotik ikusten nituen nire adinekoak parrandan, baina nire gurasoentzako gutxiegi zirenez, leihotik inbidia pasatzea geratzen zitzaidan. Behar nuen bakarra libre izatea zen. Bizi bai, baina zein preziotan? Niretzat libre izateak ez zeukan preziorik; lortu beharreko helburua zen, besterik gabe.

Goizean goiz jaiki nintzen ur bila joateko. Itzultzean, aita eta Sukiro, nire neba, ehizarako prestatzen zeuden.

- Egun on, Kira. – Esan zidaten. – Gu bagoaz!
- Ondo ibili!

Izebak lagundu zidan zereginekin. Nire ahizpak ere esnatu ziren, Lira eta Yomara, 4 urteko bi panpin. Eguerdian, ehizatutakoa jan genuen eta bitartean, aitak, bere gaztaroko esperientziak kontatu zizkigun. Momentu horiek ematen zioten zentzua nire izateari. Arratsaldea, beti bezala, lasai igaro genuen. Besteak lagunekin zeuden bitartean, ni ahizpak zaintzen. Horrela pasatzen ziren egunak eta asteak.

Goizean goiz jaiki eta dutxa bero bat hartu nuen. Trajea jantzi eta nire neskameak korbata jartzen lagundu zidan. Gosaltzera jaitsi nintzen.

- Egun on, Jousep Jauna.
- Egun on, bai. – Noski, Jousep ni nintzen.
– Baina ez deitu jauna, mesedez.

Mahaian eseri nintzen. Ez nekien zer jan. Gehiegizkoa zen begi aurrean nuen janari guztia. Gainera bart izandako afari ostean ez nintzen batere gose.

Txoferra atean zegoen gure zain. Egun horretan, ez dakit nongo politiko batekin hitz egitea tokatzen zen. Ni beti bezala, bazter batean eserita, kamarek jaten ninduten bitartean.

Arratsaldea logelan pasatu nuen telebista ikusten. Ostean lotara. Beste egun bat gehiago lau pareta haien artean preso.

Egun pozgarria zetorkigun. Sei hilabeteren ondoren, Gurutz Gorrikoak zetozen. Urduritasuna eta ezinegona nabaria zen auzokide guztien artean.

Eguerdi aldera iritsi ziren. Kamioitzar bat zekarren gure auzorako. Ilaran ia azkenak ginen baina berdin zen.

Azkenean gure txanda heldu zitzaigun.

- Kaixo! – Esan zidan ezezaguna egiten zitzaidan neska gazte batek.
– Zu al zara ... Kira?
- Bai! Gogoratzen zara! – Bi musu eman genizkion elkarri.

Bi poltsa izugarri eman zizkidan: Handiena elikagaiekin eta bestea arropez gainezka.

Denon pozerako, sorpresaz beteta zetozen: txertoak ekarriko zituzten hilabete batzuk barru eta gainera grabatu egin gintuzten, Gurutz- Gorrikoen iragarkirako. Baina hori ez zen guztia: Telebista ikusgarri bat ekarri zuten auzoko guztientzako.

- Eskerrik asko. – Esan genien denok.
- Ez horregatik. Ah! Eta telebista zaindu ondo; denona da.

Elizako gela batean jarri zuten, leku publiko bakarra baitzen. Hantxe ikusi nuen. Hantxe ikusi nuen nire ametsetako printzea. Jendez inguratutako toki batean zegoen, baina hala ere, ondo desberdintzen ziren kristalezko horma garden haren atzean, poztasuna eskatzen zuten begi disdiratsu haiek. Maitasuna zen. Bihotza lekutik irtengo zitzaidala zirudien. Kristala apurtu nahi nuen eta ukitu, sentitu.

Denbora aurrera zihoan, baina nire bizitza geldi, hilda bezala. Futboleko partidu bat ikusten nengoen: Milan- Juventud. Atsedenaldian, iragarki batek atentzioa deitu zidan. Gurutze Gorrikoek laguntza eskatzen zuten Somaliako Sajhira herrikoentzat. Baina iragarkiak baino gehiago, bertan agertzen zen neska batek deitu zidan arreta. Zein polita zen. Eta begi haiek, saminez beteriko begi haiek ... Txinatik ere entzun zitekeen nire bihotza taupadaka sahietsen artean. Orduantxe konturatu nintzen nire aukera zela libre izateko, eta gainera nahi nuen moduan: bihotzari kasu eginez. Argi neukan. Gurutz Gorrikoekin joango nintzela begi haiek alaitzera, egingo nuen azken gauza bazen ere.

Zer gertatzen zitzaidan? Izeba ere arduratuta neukan. Egunez nire munduan nengoen eta gauez elizako gela hartan, hain hauskorrak ziren begi

haien bila. Baina galduta zeuden."Nire bizitzako desio txiki hori ere ezin zitekeen bete?"

Gau osoa esnatuta igaro nuen. Begi haiek zer nolako zigorra jasateko sortuak zeuden? Ezin nuen gehiago. Gorputz txiki haretan halako tristezia sentitzea ezinezkoa zen.

Goizean deitu eta hiru egun barru irteteko geratu ginen. Azkenean, bihotzak taupadaka jarraitzeko arrazoi bat! Gero eta hurbilago nengoen.

"Mesedez eskatzen dizut:emaiguzu osasuna eta ea kamioiak ez duen tardatzen. Jende asko asko gaixorik dago. Mesedez, telebistan ikusitako begi haien erantzuna behar dut. Eskerrak ematen dizkizut familia zaintzearren eta egin berdina nire amatxo maitearekin ere." Auzotik kanpo dagoen toki batean nengoen, harri baten gainean eserita. Leku huraxe zen askatasuna ematen zidan leku bakarra, mutil haretaz pentsatzen uzten zidan leku bakarra.

Gurasoak konturatu gabe egin nuen etxetik alde. Aireportuta taxiz iritsi nintzen. Dena prestatu eta hegazkinera igo ginen.

Bidaia luzea egin zitzaidan baina azkenean iritsi ginen Somaliako aireportu txikira. Kamioia kargatu eta Sahjirarantz abiatu ginen. Gero eta hurbilago geunden. Nabari nuen.

Herriaren sarreran norbait zegoen harri baten gainean eserita. Bera zen! Begi haiek itsua izanda ere ezagutuko nituen.

Kamioi hotsa entzun nuen. Begiratu eta diamantezko begi haiek aurrean nituen, nigandik bost metrotara.

Bata bestearen begietan murgildu ziren eta musu eman zioten elkarri. Une hartan, lau begi haiek, aldatu egin ziren, alai zeuden. Eta horrela jarraituko zuten bata bestearen ondoan zeuden bitartean.



Berezi Zabala Gonzalez
DBH 4. maila
"Herria gorputza, hizkuntza bihotza"

BRASILEN JAIOA

Brasil ez da oso herrialde aberatsa, herrialde txiroa dela esango nuke nik. Hala ere, badaude pertsona aberatsak ere, baina txiroak diren familiak txiroak dira benetan. Pertsona asko kalean bizi dira edo txapaz, egurrez eta pertsona aberatsek erabiltzen ez dituzten altzairuekin egindako etxoletan. Umeek ez dute eskolara joateko aukerarik eta askotan familiek, ez dute janaria erosteko dirurik ere. Hau gertatzen denean, euren etxoletatik hirira jaisten dira dirua eskatzera.

Ni herrialde honetan jaio nintzen duela 24 urte, Rio de Janeiro hiriaren inguruetako etxola txiki batean. Ama oso gaztea zen jaio nintzenean, 18 urte baino ez zituen; aita berriz, nagusiagoa zen, 20 urte zituen.

Bizitza ez da batere erraza izan guretzat, baina arazo guztiei aurre egin diegu.

Bi urte nituela nire neba jaio zen, bi urte beranduago ahizpa bat izan genuen eta bost urte nituela, amak bikiak izan zituen. Bost anai-arreba ginen eta gurasoek ez zuten diru askorik irabazten, zazpi pertsonako familia bat elikatzeko eta janzteko ez behintzat.

Ama egunero lanera joaten zen, hirira. Etxe handi bat garbitzen zuen eta bertako umeak zaintzen zituen. Egun osoa etxetik kanpo igarotzen zuen eta askotan taberna bat garbitzen geratzen zen diru pixka bat irabazteko. Aitak ere, lan egiten zuen. Nekazaria zen hau, eta gure etxolatik sei kilometrotara zeuden ortu batzuetan aritzen zen lanean. Ia ikusi ere ez genuen egiten, oso goiz joaten zen lanera eta berandu itzultzen zen.

Arreba nagusia nintzen ni eta gurasoak lanean zeuden bitartean, nire neba--arreben kargu egiten nintzen. Hauentzako, euren ama nintzen ni. Nik irakatsi nien hitz egiten eta ibiltzen, batez ere bikiei.

Amak janaria ematen zigun lanera joan baino lehen, askotan ez zen denontzako heltzen eta nire neba eta ni jan gabe geratzen ginen, txikiagoek jan zezaten. Beste batzuetan, hirira jaisten ginen diru eske. Sei urteko neskatxo bat eta lau urteko mutiko bat euren ahizpak lepoan zeramatzatela eta ahizpa ertaina oinez. Txikiak negarrez, eta nik zer egin ere ez nekien. A ze panorama! Horrela jaisten ginen hirira.

Bertan, batzuek begi txarrez begiratzen gintuzten, beste batzuek janaria eta diru pixka bat ematen ziguten eta askotan baita arropa ere. Ikusi dezakezuenez, eskolara joatea ezinezkoa zen. Amets bat, inoiz beteko ez zen amets bat. Amak irakatsi zigun irakurtzen eta idazten. Domeketan ez zuen lanik egin behar eta etxean geratzen zen gurekin, aste osoa domeka noiz helduko zen zain egoten ginen.

Hamabi urte nituela lanean hasi nintzen, nebarekin. Gure ahizpa txikiak etxolan geratzen ziren, gu bitartean, hiriko tabernetan erabilita zituzten bei-

razko boteila guztiak batzen genituen. Ez genuen askorik irabazten, baina lagungarria zen.

Ez dut haurtzaro zoriontsua izan. Txiki-txikitatik nire neba-arrebak zaindu behar izan ditut, ez dut eskolara joateko aukerarik izan eta lanean edo diru eske egon naiz.

Garrantzitsuena, familia izan da beti niretzat. Eta zer gehiago gerta zekidakeen bizitzan zorte txarragoa izateko? Hamasei urte nituen aita gaixotu zenean. Mediku batek esan zigunez, ebakuntza bat egin ezean, urte gutxi geratzen zitzaizkion bizitzeko.

Egunak joan ahala aita ahulago ikusten nuen, ezin zitekeen lanera joan eta amak irabazten zuen diruarekin ezin gintezken bizi.

Nire ametsa, noizbait zoriontsu izatea zen, oraingo honetan nire ametsa aita gaixotasun madarikatu hartatik atera ahal izateko dirua lortzea zen, horrela izango bainintzen zoriontsu. Brasilen horrenbesteko diru mordoa lan eginez lortzea ezinezkoa zen. Hamazortzi urte bete nituenean, Espainiara joan nintzen lan bila. Gurasoak eta neba-arreba guztiak agurtu nituen eta aurpegia malkoz bustita nuela, herrialde ezezagun hartara eramango ninduen itsasontzian sartu nintzen. Beldurra nuen, bakarrik nengoen, lagun barik, familia barik, ikasketa barik. Zer egingo nuen Espainian ikasketa barik? Gazteleraz hitz egiten ere ez nekien.

Asteak eman nituen lan bila baina ezinezkoa zen, inork ez zuen nahi ikasketa gabeko pertsona bat. Aita Brasilen zegoen apurka-apurka hiltzen eta ni lan gabe. Aita galduko nuen lan bat aurkitzen ez banuen.

Ez nuen beste irtenbiderik izan. Gogorra izan zen niretzat, baina aita eta familia guztia aurrera eramateko irtenbide bakarra zen. Ez zen oso lan ona, baina ederki kobratuko nuen. Ia egunero ezezagun batekin oheratzen nintzen, aurpegi ezberdinak ikusten nituen beti nire ohean, ez zen batere atsegina. Askotan min ematen zidaten, baina ez zegoen aita hiltzen zegoela jakitea baino min handiagorik.

Jendeak esango zuenez, “putetxe” batean bizi nintzen ni, ez zen putetxea gartzela baizik, nire sentimenduekin jokatzen zuten gartzela bat. Bertan bizi nintzen ni, ez nintzen etxe madarikatu hartatik atera behar, bertan jaten, lan egiten eta lo egiten nuen. Brasilen hiru urtetan lan egiten irabazi nuen dirua, hilabete batean irabazi nuen Espainian. Sei hilabetetan irabazitakoarekin ai-

taren ebakuntzarako behar zen dirua lortu nuen. Hilero nire irabazien hiru laurdenak bidaltzen nizkien, diru honekin ondo konponduko ziren.

Ni emagaldu bat nintzen bitartean, aitari ebakuntza egin zioten.Hilabete bat beranduago gutun bat heldu zen niretzat.

"Kaixo maitea:

Zelan zabiltza Espainiatik?

Ikusten dudanez lan ona aurkitu duzu.

Zure neba-arrebak eta ni asko pozten gara zu ondo egoteaz , baina laztana, berri txar bat eman behar dizugu. Aita ez da bizirik atera ebakuntzatik.

Medikuek esan digutenez, oso ebakuntza zaila izan da eta ezin izan dute ezer egin.

Laztana, zuk ahal zenuen guztia egin duzu, asko sentitzen dut une hauetan zure ondoan egon ahal ez izatea. Maitea, arazo honi aurre egingo diogu denok batera. Lehenbailehen joango gara zuregana eta dena ongi aterako da.

Aitaren mezu bat dut zuretzat, asko maite zintuela esan zidan eta eskerrak ematen dizkizu denagatik. Aita ongi egongo da orain, ez du ezer sentitzen eta behintzat ez du minik.

Adio maitea, laister batera egongo gara. Musu asko denon partez."

Inoiz irakurri ditudan hitzik bortitzenak izan ziren hauek, min handia eman zidaten. Ezin nuen sinetsi, ez nuen aita gehiago ikusiko. Amets gaizto bat zen. Gartzela hartan egotea paradisua zen honen aldean. Bizitza osoa putetxe madarikatu hartan sartuta emango nuke aita bizirik egoteagatik.

Sei hilabete gutxi gorabehera igaro ziren aita hil zenetik, ama eta neba arrebak berriz ikusi nituen arte. Benetan amaren eta neba-arreben besarkaden hutsunea nabari nuen eta ikusi nituenean zulo handi bat estali nuen ene barnean.

Heldu zen ordua, amari dena kontatzeko ordua. Onartu egin zuen, baina hori egiteko beharrik ez nuela ere esan zidan. Hala ere, banekien amak diru horren beharra zuela eta ez zidan axola orain esango zidanak. Bertan lanean jarraitu nuen, bizitzeko leku bat behar baitzuten guztiek. Pisu bat alokatu genuen. Nik ordaintzen nuen alokairua eta nire neba-arreben eta amaren arropa.

Ama lanean hasi zen taberna batean, aita gurekin egon ez arren zoriontsu ikusten nuen ama. Bere ametsa egi bihurtu zen. Nire neba eta ahizpak eskolaratu egin ziren, ikasketak izan zituzten eta hau zen amaren ametsa, bere seme-alabei ikasketa batzuk eman ahal izatea, hain zuzen.

Bestalde, lana uztea erabaki nuen. Oso zaila izan zen hau lortzea, baina azkenean leku hartatik alde egitea lortu nuen.Gau batean, beste gizon nazkagarri eta ezezagun haietako batekin oheratu behar ez nuen gau batean, alde egin nuen, inor ohartu gabe. Taxi bat hartu eta amaren etxera bueltatu nintzen.

Gartzela hartatik alde egitea lortu nuen. Lan berri baten bila hasi nintzen, baina ezer ere ez. Aurreratutako diruarekin amak eta biok taberna bat alokatu genuen. Hasieran ez zuen ospe handirik izan, baina denbora igaro ahala gero eta ospetsuagoa egiten hasi zen. Gero eta jende gehiagok esaten zuen <<goazen “La Brasileñara”>>. Hitz hauek poztasunez betetzen ninduten.

Azkenean aurkitu dut nire lekua munduan, amaren eta neba-arreben ondoan,
”La Brasileña” tabernan. Azkenean taberna erosi dugu, azkenean.

Aita, zoritxarrez, ez dago gure artean, baina ez dut inoiz ahaztuko. Bere gorputza Brasilen dago, hilobiratuta, baina egunero gurekin bizi da, gure bihotzetan dago eta beti izango da horrela. Noizbait, Brasilera joango gara, aitari bisita egitera, noizbait. Agian bertan geratuko gara, agian ez.

Ikusi dezakezuenez bizitza ez da erraza izan guretzat, batez ere niretzat, baina arazo guztiei aurre egin diet, familiari esker. Beraiek eman didate borrokan jarraitzeko ahalmena, eurengatin izando ez balitz, agian ez nintzatekeen zuei nire istorioa kontatzen egongo, agian.

Eta bizitza osoan maitemindu al naizen galdetuko zenioten zuen buruari, erantzuna, ez dut maitasunean pentsatzeko astirik izan. Orain 24 urte luze hauetan galdutako denbora berreskuratzen hasi naiz. Gaztea naiz oraindik eta maitemintzeko denbora soberan dut.

Azkenean nire ametsa egi bihurtu da, zoriontsu naiz.



Irune Aberasturi
DBH 4. maila
"Nahiak bihotzean gordetzen dira; ilusioak irudimenean"

HITZEN INDARRA

2009ko urtarrilaren 3a.

Maitasuna, gorrotoa, poza, indarkeria, harremanak, esklabutza, krisia, beldurra, suspensea, komedia, adorea… hainbat eta hainbat gairi buruz hitz egin dezakegu; baina zein ote da egokiena ikastetxean nahi eta nahi ez idaztera behartu gaituzten ipuin baten muina izateko?

Urtero legez, aurten ere ipuin bat idazteko eskatu digu irakasleak, eta imajina daitekeen bezala nire buruan ez da ideia onik geratzen. Batetik, ideia orijinala izan behar da eta bestetik, hitzen erabilera ulerkorra eta erakargarria ezinbestekoa da. Ideia orijinal bat lortzea ez da erreza, gaiak behin eta

berriro errepikatzen direlako eta hitzak estiloz erabiltzea ez da inoiz nire espezialitatea izan.

Buruari bueltak ematen ibili behar baldin badut hobe ohean etzanda bada; horrela, biharko pentsatuko dut pasiozko istorioa edo gerrako pasadizoa idatzi behar dudan.

2009ko urtarrilaren 4a.

Nire ametsa ez da inoiz idazle izatea izan ezta filosofo izatea ere; baina atzo gauean ausnartzen nengoela ohartu nintzen hitzen indarra eta balioa izugarria dela. Hitzak ondo erabiltzen jakitean dago koxka.

Teoriekin nahikoa ez denez, hor doa praktika:

Gorputza gogoz kontra eserlekuan bota eta aurpegia kristalaren gainean alde batera eta bestera nola mugitzen den sentitzearekin batera motorraren hotsa entzuten geratu da; egiteko ezer hoberik ez balego bezala. Eta egiteko ezer hoberik ez daukagun uneetan pentsatzen hasten garenez gelako mutilak, Julenek, kokoteraino daukala gogoratu du Unaik. Julenek oso pertsona garrantzitsua dela uste du, bere gurasoak dirudunak direlako eta besteak baino hobea dela dio, bere lagunek jainko moduan tratatzen dutelako. Horregatik indarra eta burla ditu beste ezeren gainetik; eta noski, Unairi ez zaio batere gustatzen egoera.

Unai, Bizkaiko baserri handi batean bizi da bere guraso eta bi anaiekin. Mutil normala da oso eta hitzak dira bere armarik onena. Hala eta guztiz ere, ez litzaioke indar apur bat gaizki etorriko. Indarkeria ez zaio batere gustatzen eta hori dela eta, bere adineko mutilek burla egiten diote.

Fisikoki, ile marroi luze samarra eta begi marroiak dauzka. Oso altua da eta argala; bere janzkera besteena bezalakoa da: astelehenetik ostiralera txandala eta asteburuan praka bakeroak.

Eskolako autobusetik jeisten den bitartean Maialenekin Gabon osteko solasaldi tuntun hoietako bat partekatzen ari da; Gabon zaharretako juerga, opariak etab. Egia esan berari guzti horrek, bost. Ondoren, klasera sartu eta han topatu ditu betiko harroputzak, lehen aipaturiko Julen, Kortabitarte abizenez, eta beste bi marmarka jendearen kontura. Unaik nahiago du kasurik ez egin, bestela beraien jokuan bukatuko du eta hori ez du onartuko. Ostera, egunak aurrera doaz eta Julenenganako gorrotoa geroz eta handiagoa da. Egun batean nazkatuta horrela bota dio:

Orain behar dodana
hustea barrena
eta esango deutsut
egia aurrena
handiputz planta horrek
ematen du pena,
isilik egotea da
daukazun onena

Haserretu eta ospa egin du, mendeku bila edo… baina egia esan Unaik ez dio errespetu handirik pijo kuadrilla horri. Bere tokian eseri eta denbora pasa hasi da albokoarekin kontu kontari edo aurrekoari zirikatzen. Eta Gazako gerran zenbat ankerkeria dagoen pentsatzen zegoenean tripak gosez zituela gogoratu eta nahi baino lehenago etxera bueltan zegoen Unai.

Klaseko kontuak alde batera utzi eta Unairen beste pasadizoetako bat kontatuko dizuet. Ez zaio telebista batere gustatzen ezta bideo jolas txatxu horiek ere; baina, gazte guztien antzera, ikasketez paso egiten du. Beraz, denbora librean bertsotan aritzea, irakurtzea, paseatzea eta neskatan aritzea gustatzen zaio. Hala ere, igande goizetan mezetara joaten da, abadeari laguntzera monagllo gisa; denbora pasa edo mesede egitearren.

Elizan pasatzen dituen uneak, bera konturatu ez arren, oso baliagarriak izaten zaizkio gero egiten dituen ausnarketetan eta barneratzen duen jakindurian. Apaizak asko irakurtzen du eta ez bakarrik Jainkoaren inguruan, inork baino gehiago daki hainbat arlotan. Mediku lanak ez zaizkio gaizki ematen, aita mediku izan baitzuen; lan sinpleak egiteko ere balio du: abeltzaintza, nekazaritza, tabernari lanak edo obrako gizon; eta justizia kontuetan inor baino hobea da gizon hau.

Herriko apaiza alkatea bezain garrantzitsua da herritarrentzat, asko dakielako eta laguntzeko prest izaten delako. Arazo baten aurrean, apaizarengana jotzen dute eta hark babesten ditu herriaren izenean. Don Jesus apaizak, ez du gustuko tokatu zaion papera eta Unairi kontatzen dizkio behin eta berriz herritarrek egiten dizkioten eskari eta eskaintza tuntunak. Askotan badirudi jendea elizara apaizarengana mesede eske doala eta ez gure Jainkoa gurtzera. Hori ez da kristau baten portaera zuzena.

Bertan, Unaik herriko kontuak entzuten ditu eta gertatutako guztiak nahi eta nahi ez heltzen dira bere belarrietara, jendearen aitorpenak, txutxumu-

txuak eta bestelakoak. Apaizari behin mesedea eskatu eta mezatan bertso bat bota nahi duela esan dio, jendeak utz diezaion albokoei buruz hitz itsusiak esateari eta bide batez, mesedeak eskatu aurretik bi aldiz pentsa dezaten:

Elkar gaizki esaka
beti zabizie,
aztu egin jatzue
egia aitortzie,
zuek maite bazue
herriko abadie
eskatuko deutsuet
bakien iztie

A zer nolako giroa sortu den orduan. Herritarrak bata besteari txutxumutxuka hasi dira eta baten bat abadearen albora joan eta bertsoak abesten hasi da. Orduan hauxe esan die Don Jesusek: "nik ezingo dizuet bertsorik bota; baina gauza bat argi izan dezazuen nahi dut. Mutil honek ez du bertsoa bota barre egiteagatik, zuek pentsatzeko baino, eta berak eskatutakoaren justu kontrakoa egiten zabiltzate. Eliza ezta kontsultorio bat ez eta udaletxea ere. Noizean behin mesederen bat eskatzea ez dago gaizki, baina beharrezkoa baldin bada, bestela gorde zeuentzat. Eta orain pentsatu egin duzuenari buruz eta gurtu Jainkoa zuen eskariak proposatuz; berak nahi baldin badu lagunduko dizue aurrera ateratzen."

Han joan da Unai patxada ederrean etxera bidean. Etxera heldu, liburu bat hartu, kaleko bankuren batean txukun txukun eseri eta irakurtzeari ekin dio.

Urteak aurrera doaz, jada Unaik ez ditu 14 urte eta bere bizitzarekin zer egin behar duen erabakitzeko ordua da. Ikasketak utzi edo ez pentsatu behar du eta ikasten jarraitzea egokiena iruditzen zaion arren, ezer ez duela egingo dakienez, amaren oniritziaz lanean hastea erabaki du.

Mutil gazte ororen buruan neska gazteak dauden legez, Unai maitemindu egin da. Pixka bat berandu hori bai, 20 urte dituela jo baitio maitasunak bihotzeko atea. Eta hantxe dabil ingurukoak aspertzen Amaia dela eta ez dela.

Amaia neska ederra da, ule beltzarana eta begi berde handi handiak ditu. Ez da oso altua eta Unai bezala oso argal dago. Neska txukuna eta fina da, amari laguntzeko prest beti eta ikasketetan paregabea. Gaur egun, horrelako gutxi geratzen zaizkigu.

Amaiaren aitak herrian arraina banatzen du bere furgonetarekin eta ama tabernaria da. Amaia tabernan aritzen da, baina aitari ez dio inork laguntzen eta Unaik ikusten du laguntza ez litzaiokeela gaizki etorriko.

Udaberriko arrats polit batean, irakurtzen zebilela han topatu zuen Amaia txakurra paseatzen batetik bestera eta nola ez, hitz egiten hasi zitzaion. Amaia gustura zegoela nabaritu zuen eta bi aldiz pentsatu gabe Unaik bere bertsoetako bat bota zion:

Zure aitak saltzen du
kristoren arraina,
neuk lagunduko deutsat
behar duen aina,
nik ez dot gure zugaz
ezkondu gura baina
gozatu daigun biok
elkar, alajaina!

Espero daitekeen bezala, Amaiarengandik ezezkoa jaso du Unaik eta bihotza hamaika mila zatitan gelditu zaiozera. Handik aurrera Unairi ez zaio bururatu berriz ere maitemintzerik eta neskekin zer ikusia duen gauza oro burutik ezabatzen saiatu da behin eta berriz, ezer gutxi lortu duen arren.

Denbora asko igaro da ordutik eta Unaik jada ahaztu ditu neska kontu horiek. Don Jesus hil zen egun berean apaiz sartu zen herriko elizan, xoxik lortuko ez duen arren. Barruko satizfakzio hori ez dio inork kenduko eta orain, lantzean behin Amaiarekin ibiltzen da kontu kontari.

-Bukatu dira ipuinak gaurkoz; bihar gerra garaiko istorio polit bat kontatuko dizuet- esan nien nire bilobei. Eta musu bat emanez, ohean sartu nituen goxo-goxo.

Haizea Elurtza Galpasoro
DBH 4. maila
"Istorioak idaztea eta lagunekinirtetzea oso gogoko ditut"

ZUBIEN AZPITIK

John Miller polizia ikertzaile bat zen, lanari atxikia, ez zuen atsedenik egiten bere kasuak argitu arte. Baina bere lagun mina hil zutenetik aldatu egin zen..

Behin zubi baten azpian hilotz bat agertu zen. Emakume gazte baten gorputz biluzia zen. Polizi bat zubi baten azpitokira joan zen pixagura zuelako eta gorputza aurkitu zuen. Garbia eta erdi bustia zegoenez, errekan egon zela pentsatu zuen Johnek. Eszenatokia bere buruan irudikatzen hasi eta zerbaitek zentzurik ez zuela konturatu zen. Gorputza itotzean errekan geratuko zen eta agertu zen tokian. Bapatean, errekaren beste aldean zeho-

zer aurkitu zuten. John beste aldera pasatu zen aurkikuntza ikusteko. Biktimaren arropa eta polta ziren. Latexeko eskularruak ipini eta poltsa miatuz emakumea identifikatu zuen. Biktimak, Anne Gones zuen izena, 20 urtekoa. Poltsan, mugikorra zegoen . Proba guztiak plastikozko poltsetan sartu zituzten. Biktimaren arropak tolestuta zeuden, eta hori arraroegia zen. Komisaldegira bueltatu zen papeleo guztia egitera.

Gaueko hamabiak eta piku ziren eta John autopsia frogak itxaroten zegoen. Bapatean Mr.Brooks komisarioak deitu zion. Bulegoan sartu eta ezezagun baten alboan jarri zen. Mr.Brooksek elkar aurkeztu zituen:

– Arratsaldeon. John, hau Bryan Stoker da eta zure lankide berria izango da. Bryan, hau da John Miller.

– Zer da hau, nagusi?- galdetu zion Johnek.

Bryanek, egoera ikusiz jeiki eta kafetegira joan zen Mr.Brooks eta John bakarrik utziz.

– John, bi urte daramazu jo ta ke lanean. Zenbat lo egiten duzu egunero. Bi ordu edo?

– Bai nagusi.- erantzun zion begirada makurtuz.

John bulegotik atera eta forensearengana joan zen frogak amaitu zitutenez, hauek entzutera:

– Ez zen ito, biriketan ez du urik eta kloroformo arrastoak ditu ezpainetan, beraz lokartu egin zuten. Odol asko falta duenez, hilordua zehaztea zaila da, baina gutxi gora behera gaueko hamarrak eta goizeko hirurak tartean hil zen odoluztuta. Ematutua harraskatuta eta josita zeukan, ebaketa garbia zuen, beraz, bisturi edo stich-kutter batekin irekin ziotela uste dut. Umontzia, trompak eta obarioak erauzi zizkioten. Erauzi ondoren odola galtzeari utzi zion eta geroago josi zioten ematutua. Hori da guztia.

John arreta handiagoz hasi zen kasua ikertzen. Behar zuen guztia eskatuz, kasua errepasatzen hasi zen bere bulegoan. Anneren mugikorraren dei zerrendan zenbaki bat askotan errepikatzen zela konturatu zen. Zenbaki horren jabearen datuak eskatu zituen. Annek ez zituen inolako aurreko kartzela zigorrik. Ohiko lan bat zuen, baina bere lantegira joan nahi zuen, Anneren nagusiari galdera batzuk egitera.

Kafetegira joan zen, bertan Bryan hasberrirekin topatu zen. Beraz, derigorrez berarekin eraman behar zuen. Bidean, kasuaren zehaztapen guztiak azaldu zizkion. Bryan nekatuta, autoan lokarturik geratu zen. Heldu zirenean berehala hitzegin zuen Anneren nagusiarekin.

Goizeko hamar t' erditan komisaldegira bueltatu ziren. Johnek mugikorraren zenbakiaren datuak zituen mahai gainean, baina zer edo zer ahastu zuela iruditu zitzaion. Anneren mugikorraren mezuak ikusiz jasotako mezu bat aurkitu zuen, honela zioen: *Bildu zaitez nirekin San Juanen zubian. Egon zaitez gaur gaueko hamabietarako*. Anne hil zuten egunean jasota zegoen, eguerdiko ordu batetan. Zenbaki ezkutua aztertzera bidali zuen. Geroago zenbakiaren datuak irakurri zituen, jabea Barbara Green izeneko emakumea zen, 20 urtekoa. Komisaldegitik 30 minututara bizi zen, beraz, Barbararen etxera joatea bururatu zitzaion. Bidean zijoala, Mr.Brooksen deia jaso zuen Johnek bere mugikorrean:

– Beste hilotz bat aurkitu dute hemendik 30 minutura... zubiaren azpialdean... Joan eta abisua egiaztatu, oraingoan arrantzale batek deitu digu.

– Norabide horretara gindoazen beraz, begiradatxo bat emango dugu, nagusi.

Heldu zirenean, zubiaren azpian beste hilotz bat zegoen. Hiltzeko metodoa Anne hil zuteko berdina zen. Hilotza Barbara Green zela identifikatu zuten. Eguerdiko ordu batak ziren, Bryan jatera joan zen alboko jatetxe batera eta Johnek biktimaren poltsa miatzen gelditu zen. Barbararen mugikorra hartu eta mezuak begiratzen hasi zen, azken mezuak Anne mugikorraren mezu berdina zuen zubiaren izena izan ezik, ordu berdinean eta 2005-03-02 egunean jasotakoa zen. Denborarik galdu gabe, komisaldegira bueltatu ziren. Bryan etxera joan zen segiduan, Mr.Brooksen baimenaz.

Johnek kafetegira joan zen zehozer jateko asmoz. Bigarren hilketaren datu guztiak laborategiko zientifikoei eman eta bere bulegora joan zen. Aulkian eseri eta mahaiaren kaxoian kaxa bat zehukan. Barruan bere lagun minaren hilketaren kasua zeukan. *ARGITU BARIK* jartzen zuen kaxaren alde batean. Egun guztientan kasuko datu guztiak berrikusten zituen. Gaueko hamabiak ziren eta Bryanek atea zabaldu zuen:

– Gabon John, laborategitik nator karpeta hau eman didate zuretzat.

– Gabon Bryan eta eskerrik asko. Mezuak irakurriz, uste dut beste biktima bat edukiko dugula bihar, ordu honetan hildakoa. Gaur 2005-03-03 izan da eta.

– Lehen mugikorraren zenbaki ezkutua saldoko txartela da, eskuz erosita, deiak ikertuz, mugikorra lehen zubiaren alboko lautadan aurkitu dute, beraz, pista hau hemen bukatzen da. Bigarren mugikorraren zenbaki ezkutua jakin ondoren, metodo bera erabiliz bigarren zubiaren alboko lautadan aurkitu dute beste mugikorra. Hilketa bakoitzean, mugikor eta saldoko txartel berria erosten ditu. Eguerdiko ordu batetan hilko duen pertsonari mezua

bidaltzen dio. Baina abantaila bat dugu: Barbara Greenek egin dituen dei gehienak Elora Windsokeri egin dizkio. 19 urte ditu. Bagoaz bere bizilekura!

John gustura zegoen Bryanekin lanean.

Elora Windsok oso urrun bizi zen. Goizeko ordu bietan ailegatu ziren, baina etxean ez zegoen inor, beraz, hurbilen zegoen zubira joan ziren korrika. Ahalegin guztiak alferrik izan ziren. Johnek, Elora Windsok zela egiaztatu zuen. Komisaldegira deitu zuen. Zubira igo eta bertan jesarri zen Bryani itxaroten alboko lautadara joan bait zen. Ordu erdi bat pasatuz gero agertu zen, eskuan plastikosko poltsa bat zuela eta honen barruan mugikor berri bat. Bryan guztiz serio zegoen. Goizeko laurak ziren eta ikertzaileak eszenatokia utzita komisaldegira bueltatu ziren. Biak Johnen bulegoan zeuden. 2005-03-04 zen eta laugarren biktima egotea saihestu behar zuten. Kafe batzuk eta zigarro mordoak hartuta zeuden. Eloraren dei gehienak Ukara Lawrenceri ziren, 21 urtekoa, beraz, Ukararen etxera joan behar ziren. Eguerdiko ordu biak ziren eta Ukararen etxeko eskaileretan itxaron zuten. Gaueko bederatzietan Ukarak agertu zen. Hirurak aurkeztu ziren eta Johnek berehala hitzegin zion mezuari buruz eta Ukararen mezua ikusi zuen.

Komisaldegira deitu zuen, laguntza behar zutela azalduz. Hamar t' erdiak ziren eta polizia bertan zegoen, zubi guztia inguratu zuten.. Hiltzailea infraganti harrapatu behar zuten. Horretarako, polizi argal bat emakumez mozorrotu zuten. Gaueko hamabiak jotzear zegoen. Hamabiak jo zuten, eta bapatean polizi horren atzetik itzal bat agertu zen. Frankotiratzaileak gauean ikusteko betaurrekoak zituten. Bapatean poliziaren bizkarraldean zegoen eta besoa luzatzerakoan...PUM! Mozorrotutako polizia buelta emanez, atzeratu zen ikaratuta. Hiltzailea senik gabe geratu zen, sorbaldan jaso zuen tiroa. Poltsikoan jostorratz bat, josteko haria eta stich-kutter bat zituen eta odol arrastoak zituen. Bereala ospitalera eraman zuten. Sendatu eta identifikatu egin zuten, Sarah Wolsen zuen izena, ospitale psikiatriko batetik ihes egindako geixo bat zen. Eta hilketa guztiak aitortu zituen:

– Guzti hau psikiatrikotik ihes egin nuen egunean hasi zen. Kaletik korrika nindoan eta atseden hartzeko eseri nintzen, alboan neska bat norbaiti

bere zenbakia ahozkatzen zegoen eta buruz ikasi nuen zenbakia, neska hori neure lehenengo biktima izan zen. Eguerdiko ordu batetan bidaltzen nuen mezua hau esanez: *Nirekin bildu zaitez ... zubian. Egon zaitez gaur gaueko hamabietan.* Mezua bidali eta gero mugikorra garbitu eta zubiaren lautadara botatzen nuen. Egun horretan gaueko hamabietan biltegi batetik lapurtutako kloroformoa erabili nuen biktimak lokartzeko. Biluztu egiten nituen eta arropak tolestu. Biktima nirekin sartzen nuen errekan. Harri batekin biktimaren ematutua harraskatzen nuen. Bost minutu pasatuz gero, nire stich-kutterrarekin umontzia ireki eta obarioak, trompak eta umontzia erauzten nien. Odol asko ateratzen zen, baina odol guztia errekak zeraman. Ia odol guztia galdu eta gero ematutua josten nuen. Arropa tolesturik zegoen kontrako alderdian etzanda jartzen nuen. Bere mugikorrean dei zerrenda ikusita banekien nor izango zen hurrengo biktima.

Epaiketan, Sarah, psikosi obsesiboa eta bipolarra zela azaldu zuten psikiatrek. Epaiketa egin eta erruduna zela argitu zen . Saint Mary kartzelako gaixo psikiatrikoen sailera bidali zuten, betirako kartzela zigorra jaso zuen.

Ibon Agirre Carrero
DBH 4. maila
"Eraso sexista gehiagorik ez gure gizartean"

ZERGATIK NI?

Orduan korrika hasi zen, tximista bezain arin. Ez nukeen harrapatuko nahi izan banu ere. Bertan gelditu nintzen, sukaldeko lurrean botata, mugitu ezinik. Ikaratuta. Zer gertatu zen, zelan heldu nintzen egoera hartara? Zer egin nuen txarto holakorik merezitzeko!

Larunbat goizean esnatu nintzenean ez nintzen ezertaz gogoratzen. Begiak zabaldu aurretik ere, arraro sentitu nintzen. Ez nekien non nengoen ere. Gorputz osoa minduta nuen. Or-

duan, beso argalean nuen sueroa ikusi, eta ospitalean nengoela konturatu nintzen. Gertatu zenaren susmoa baneukan baina ez nengoen ziur, burua nahiko nahastuta neukan. Eneko sartu zen gela hartan. Nire neba zen. Ilea laztanduz, begietara begira, nire alboan zegoen besaulkian eseri zen isil-isilik. Gure aitaren begirada bera zuen, begirada sakona. Askotan bota izan dugu faltan aita. Askotan gogoratu izan gara berarekin mendira egiten genituen txangoekin, gauetan, sutondoan bero-berotan geundenean, kontatzen zizkigun istorioekin… Tamalez, kartzelara sartu zutenetik, hilero Jaenera joaten baginen ere,ez genuen ia elkar ikusten. Gaztea zen eta, zergatik? Askotan galdetzen diot nire buruari, zer gertatu ote zitzaion, bere buruaz beste egiteko. Inoiz jakingo eta ulertuko ez dudan gauza izango da, hala ere. Ordutik, Eneko izan da niretzat laguntzarik handiena, beti nire ondoan egon dena edozertarako.

Marokora nindoala esan nion egunean, kontu handiarekin ibiltzeko esan bazidan ere, munduko zorterik onena oparitu zidan. Eta nork esango zidan erabaki hura hartzeagatik gaur hemen egongo nintzela.

Badira bi urte, Amaiak eta biok, motxilak harturik Marokora alde egin genuela. Gertatu ahal zitzaigunaren beldurrik gabe, zenbat denbora emango genuen etxetik kanpo pentsatu gabe, ezer antolatu barik. Genekien bakarra, bidaia hura gure munduan gora eta behera ibiltzeko aukera paregabea izango zela zen. Eskalatzea baitzen gure zaletasun bakarra, gazte-gaztetatik.

Marokora heldu ginen, hiri inperial nagusira. Hiritik zehar milaka buelta eman genituen pezozko etxeen artetik, hiriari, haien kolorearengatik izena ematen dioten etxeen artetik. Azkenean andre nagusi batek hartu gintuen bere etxean. Etxe bizia zen oso. Asko harritu ninduen, oso txukun baitzegoen guztia. Andrea, bere hogeita bat urteko semearekin bizi zen. Yasin zen bere izena. Oso gazte jatorra. Altua, indartsua eta begi izugarri politak zituena. Hainbat leku ikusgarri erakutsi zizkigun, baita eskalatzeko leku aproposak ere. Goizero gosaldu eta mendiak eskalatzera. Lagun handiak egin ginen. Gu biok, batez ere. Lehen egunetik zerbait berezia sumatu nuen harengan, eta argi zegoen, bi hilabete igaro ostean, lagunak baino zerbait gehiago ginen. Denbora pasa ahala, nire sentimenduak areagotzen joan ziren, maitemindu egin nintzen. Marokiar gazte hura izan baitzen maitatzen erakutsi zidan pertsona bakarra.

Amaiak, zazpi hilabete geroago, utzi egin zuen Maroko Euskal Herrira bueltatzeko. Familia eta mutila zituen hemen, eta denbora larregi zegoen

beraiengandik urrun. Nik berriz, Marokon jarraitu nuen. Yasin nuen alboan, eta nire bizitzako esperientzietatik politena izateaz gain, momentu hartan gehien maite nuen pertsonarekin egoteak, zoratu egiten ninduen.

Urte eta erdira, nire lurraldea faltan botatzen hasi nintzen. Familia eta lagunak batez ere, baina baita janaria, ohiturak, paisaia… Larregi gustatzen zait hau, eta beti jakin izan nuen noizbait hona bueltatuko nintzela. Buruari buelta asko eman ondoren, Yasini esan nion, eta nirekin etortzera gonbidatu nuen. Erabaki gogorra izan zen berarentzat, baina azkenean biok bueltatu ginen Euskal Herrira. Yasinek bere ama lehengusuekin utzi zuen eta nirekin etorri zen.

Hemen etxe bat alokatu eta elkarrekin bizitzen jarri ginen. Bikote arrunt baten moduan. Ni taberna baten lanean hasi nintzen, berak berriz, zituen ikasketekin, lanpostu on bat lortu zuen enpresa batean. Asteburuetan koadrilakoekin irteten ginen, txangoak egiten genituen, jai ederrak egiten nonahi… Nire lagunekin ondo konpondu zen hasieratik eta nire familiarekin ere, hori baitzen beldur handiena ematen zidana hasieran. Azken batean, beste kultura batetik zetorren eta hemengo ohiturak eta bizimodua oso desberdinak ziren. Baina, hala ere, bizitza ezin hobea geneukan, egia esateko.

Gauzak horrela, ezkontzea erabaki genuen. Hau izan zen nire bizitzako erabakirik garrantzitsuena. Ezkondu eta gero ere dena zihoan primeran, ordura arte moduan.

Baina ez dakit zergatik, ez naiz gogoratzen zein unetan, bere portaera aldatzen hasi zen. Ez zen betiko Yasin. Lehenengo egunetik ezagutu nuen Yasin jatorra eta arduratsua. Umorea eta irribarrea galduta zituen, triste eta burumakur ibiltzen zen nire inguruan, ia ez genuen berbarik egiten, eta ezezagun bihurtu zen. Ordura arteko solasaldi lasai eta luzeak amaitu eta garrasiak eta haserreak heldu ziren. Eta hau nahiko ez balitz, egoerak txarrera egin zuen. Hasiera bateko besarkada, laztan eta musuak, irain eta gorrotozko begirada bihurtu ziren. Hemengo bizimodua erreza egingo zitzaiola uste nuen, baina ez zen horrela. Lanera joateko, edota nire betiko lagunekin irteteko bere ondotik urruntzea ezin zuen jasan. Berea eta berarentzat bakarrik banintz bezala. Eta bizitza aldapa gora izaten hasi zen, biontzat. Baia hala ere, inoiz ez nuen imajinatu ere egingo, honelakorik niri gertatuko zitzaidanik. Eta bai, askotan entzundakoa, telebistan ikusitakoa, egun hartan neure etxean gertatu zen.

Ostiral gau hartan, tabernako lana amaitu eta etxera bueltatu nintzen. Berandu zen, baina izarrik zegoen, egongelan, ilunean eserita. Eskuartean garagardo bat eta mahai gainean beste hainbat lata huts. Begirada hura beldurtzeko moduka zen, oihuka hasi zen, berandu zela, nondik nentorren, norekin egon nintzen hain berandura arte… Ezezaguna zen dena aurrean nuen pertsona harengan. Burua galdu zuen. Itzelezko eztabaida izan genuen eta lehenengo iraindu, gero bultzatu, sukalderaino atzetik joan, lurrera bota eta jipoitu egin ninduen, ondo gainera. Inoiz esandakoak entzun nituen, eta handik bizirik ez nintzela irtengo uste nuen. Konortea ia galduta nuenean, bat-batean gelditu egin zen, isilean geratu eta eskuak burura eraman zituen, eta gero ahora, eta gero burura berriz ere…

Zer egin dut? Barkatu!

Ametsetan nengoen? Ez horixe, ametsik txarrena gainditua zuen errealitate gordinak. Eta korrika hasi zen. Ezer esan gabe, eskaileretatik behera arrapaladan zihoala ikusi nuen. Telefonoa hartu eta Enekori deitu nion.

Hilabete beranduago ospitaleko gela baten izartu nintzen, ez nuen ezer ulertzen. Alboko mahaian gutun bat zegoen eta irakurtzeari ekin nion:

“Barkatu egin dizudanarengatik, ez dut merezi zure ondoan egotea, ezta bizitzea ere. Nire azkeneko hitzak hauek dira: ez zaitut inoiz ahaztuko, MAITE ZAITUT.”

Betiko leloa...

Leire Olaizola Intxausti
DBH 4. maila

"Dakitenek erabiliz ez dakitenek ikasiz,
herri bat osaturik euskaraz nahi dugu bizi"

ASKATASUNERANTZ

"Oraindik ez dira lagun egin, irabazteko prest datoz honantz,
oraindik sua ez da urtu, oraindik ez dira zapi zuriak ikusi.
Laino mamintsuek ez dute fruiturik ematen,
gosea nabari da inguruan, umeen garrasiak emakumeen deiadarrak.
Jendea oihuka, jendea korrika, jendea beldurtuta.
Eta ni…"

-Zerbait gertatzen da.
Argi dago zerbait ondo ez doala.

“Ene nere bihotza
nora zoaz zu laztana?
txapela alde batera jarrita
zuk orain duzu lana.

eskopeta eskuan daramazula
beltz ikusten dut iragana,
jan egingo gaituztela
argi dago hori dela beraien plana.

Agur esan beharrak
tristeziara narama,
ez dut nahi zu joaterik
baina badakit zuen esku dagoela dena.”

PD:Peru noizbait eskutitz hau helduko hau helduko zaizulakoan; zure guraso, neba-arreba, Lutxi, Patxaran eta nire partez, besarkada handi bat. Laster etorri bihotza.

martxoak 20

Goizero jaiki eta leihora joaten naiz zu ikusteko prest baina ez zara agertzen. Hilabete eta piku zutaz ezertxo ere jakin gabe, herritik kanpo, badakit eskutitzak ez zaizkizula heltzen baina berdin-berdin idatziko dizkizut beti.

“Aske, aske, aske.
bizi nahian eman zena,
bihotzean eta inguruotan
Bizirik dirau.
Gurekin dirau.
Indartsu dirau.

Jare, jare, jare.
Hain hagitz erabili ez,
baina gogor dabil gure ahoetan
nahiz eta beraientzat zendu izan.
Hilda izan
Begiak itxita izan.

Lokabe, lokabe lokabe.
Lili, zuhaitz, animalia
familia, lagunak jendea
lokabe bizi nahian dabiltza.
Zuhaitzen adarrak igo nahian,
burdina eskuekin apurtu nahian.

Libre, libre, libre
Libre?
erabili ezean jai
baina bera negarrez hastean,
nahiz eta haizeak hegoaldetik jo,
nahiz eta guda etorri,
nahiz eta…
gogotsu zainduko dugu.

Solte, solte, solte.
Bizi nahiko ginateke,
Tximeletak menditik ibiltzen diren moduan
Solte-solte, pozik-pozik
Dantzan, abesten.

Libro, libro, libro.
Olatuek beti jarraituko dute
arant eta onant,
gure ahoak isilduko dira.
Ametsak eta ametsak, gure amets gutxia,
noizbait egia bihurtuko ote da?

apirilak 26

Peru nondik zabiltza, Jon Buru, Xeferino, Markesin eta Pirri etorri ziren duela lau egun herrira.

Eta zu? Eta zu? Nondik zabiltza?

“Peru herria atzo kiskaldu zuten
beste herri batetan gaude jakina,
Patxaran ez da agertu
guk sentitzen dugun bakarra orain da mina.

Ez daukagu ezer
oraintxe lapurtu digute irina,
argi ikusten dugu
ez dela egun atsegina ”

Hiru hilabete Peru. Non demontre sartu zara? Bakarrik sentitzen naiz beldurra daukat.

PD: Asko maite zaitut.

apirilak 26

Peru 70 urte igaro dira eta oraindik ez zara agertu beste mila eta mila gudari bezala.

Argi izan, beti izango zaitudala gogoan, batez ere zu, baina zure lagun guztiak ere bai, urtero legez gaur herriko hilerrian batu gara herritar piloa zure eta beste guztien omenez.
Beti izango zaituztegu gogoan.

“gure ahotza desagertuko da, gure irribarrea galduko da, gure arima desegingo da, baina zuek egindakoa, betirako jarraituko du gure bihotzetan ”

Teresa Lopez de Larruzea Lobo
DBH 4. maila
"Askatasunean hegal azpian kabia egiten ohituak gare"

GIZAKIA IZAKIA

Nor naiz ni, zer naiz ni? Itsasoan olatuak dabiltzan gisa, haizearen pentsura dabilen biztanle bat gehiago naiz ni, noraezean galdurik dagoena, bere lekua non dagoen jakin ere ez dakiena. Iragandakoaren gomutak bihotza arrakalatzen dit etengabe, urratuz- urratuz doa, etorkizunaren mamuak zatitu egiten duenera arte. Milaka zati horiek bata bestearen ondoan jartzen saiatzen naizen arren, ezinezkoa zait berriz taupaka entzutea, bizitzaren azken arrastoak aspaldi utzi baininduen ni; ni, nire familia, nire herria.

35 urteko palestinar bat naiz, bizi izandako udaberriak asko izan ez diren arren, behar baino ilunago eta ustelagoak bizi izan dituena, neguan loreekin gertatzen den bezala, bizitzaren zentzua galdu duenera arte zimelduz joan dena.

Nire izena Amira da eta Gazako iparraldekoa naiz. Amesgaiztoaren hasiera kontatzen hasi beharko banu, 60 bat urte atzera egin beharko nituzkeela deritzot, ni existitzen ez nintzen arren, etsaia gure lurretan bai existitzen zelako; hots, israeldarra Palestinan. Gure lurrak, zapalduak ez izateko borroka konstantean bizi behar izan duten lurrak, gaur egun kolore gorriz tindaturik daudenak, gero eta txikiagoak egin dituztenak, odolezko errekak ikusi dituzten lurrak. Palestina.

Noizbait neskato alaia izan nintzela esan zidan behin amak, borrokatzeko indarra eta gogoa zituena, justizian sinesten zuena. Denborak aldiz, plastilinazko mundua eta benetakoa ezberdintzen erakutsi dit eta laugarren armadarik sendoena daukan herrialde baten jolasak (Israelenak) araurik ez duela, potentzia ekonomiko izugarridun etsai batekin justiziarik ez dela. Txikitatik heriotza eta hilketak hurbiletik bizi izan ditudan arren, ezin dezaket duela egun batzuk hasi zenarekin konpara.

Abenduaren 27a, hemisferio erdia gosez hiltzen ari denean beste erdiak Gabonak gozatzen zituen bitartean, hemen, arerioak gure herriak bonbardatu zituen, israeldarren segurtasuna bermatzeko aitzakiarekin. Gure aberria isolatzea, gune txiki batetara mugatzea, erreserba bat bihurtzea, hesi batez inguratzea ez ziren nahikoa beraien “segurtasunerako”, ez! Palestina baliabiderik gabe, industriarik gabe, zerbitzurik gabe, herritarrak lanik gabe uztea bidezkoa izango balitz bezala! Lanera joateko hesia gurutzatzerakoan jipoiak, galdeketak eta demasak jasatea normala izango balitz bezala! Haur, gazte zein zahar, alaba zein aitona; palestinarrak hiltzea…

Barrena erretzen zait gertatutakoa gogoratzean, irudiak nire burutik igarotzen direnean. Bonbak jaurti zituzten lehen egunean, kaosa zen nagusi; jendeak izuturik egiten zuen lasterka alde guztietara, estropezu egin eta lurrera erortzen zen, haurrek negar egiten zuten. Ezin mingarriagoa da hildakoen kopuruak entzutea, zure herria den familia erraldoi honetan hainbeste lagun falta zaizkizula aditzea. Lehengo bonbardaketa horren ostean, beste bat egon zen, eta beste bat, eta beste bat… Etsaiaren aliatuei esker, Estatu Batuei esker, alegia, egoerak berdin jarraitzen du, egunak pasatu ahala txarrerantz egiten du gainera. Orain, Israelgo armada Palestinan sartu da eta tiro biziz gutarrak hiltzen dabil.

Gure etxera sartu ziren herenegun; bi haur dauzkat, Ali, zazpi hilabetekoa eta Fatima, 14 urte dituen neskatoa. Nire senarra kanpoan zen, eta batbatean tiro hotsak entzun genituen. Militarrek atea bota zuten eta barru-

ra sartu ziren; denbora batez begira egon ondoren, bietatik indartsuenak Fatima hartu zuen eta besteak Ali pistolaz destatu zuen. Soldadu handia Fatima ukitzen hasi zen, ilea, aurpegia, zama, bularrak… laztantzen zizkion. Nik bitartean garrasi egiten nuen, ama baten garrasia zen, alaba batengatik bizitza emango lukeen amarena. Baina ezin nezakeen ezertxo ere egin, beste militarrak Ali pistolaz apuntatzen baitzuen. Momentu hartako inpotentziak, gorrotoak, baina bereziki bihotzetik gorputz osora zabaldu zitzaidan minak nire alaba utz zezaten erregutzera bultzatu ninduen. “Utzi bera bakean, mesedez! Ni naukazue hemen” eskatzen nien negar zotinen artean. Alik negarrez zirauen, Fatimak niri begiratzen zidan, etsipenez beteriko begiak errekak baino malkotuago zituen bitartean. Gizonezkoak Fatimarekin bukatu zuenean, etxea apurtzeari ekin zion, nik nire semea eta nirea alaba besarkatzen nituen bitartean. Eta horrela egon ginen, hirurok besarkaturik, israeldarrak etxetik irten ziren arte, gure besoek elkar babesten zigutenaren ustearekin, maitasun hura edozein armarri baino sendo eta apurtezinagoa zenaren ustearekin.

Nire senarra ez zen egun hartan itzuli eta etxerik gabe geunden. Kalean, 30 urteko neska bat, seme batekin besoetan eta alaba aldamenean, galduta, nora edo norengana jo jakin gabe. Guztiz kiskalita zegoen herri batean, eskuina eta ezkerra bereiztezinak gertatzen ziren egoera hartan. Momentu horietan zergatik gertatu behar izan zaizun zuri planteatzen zara, zergatik zure herriari. Eta gizakiaren krudelkeriaz kargutzen zara, hain

Gizakia, aurrerapena lortu nahian, diruaz eta aintzaz itsuturik, mundu perfektua eraikitzearekin obsesionaturik dago. Zientziaren garapena, teknologiaren garapena, luxuzko jantzietan mozorroturiko zoriontasuna. Ustezko perfekziozko mundu hori gure gainera erortzen ari da orain, gizakia, eta gainerako izaki errugabeak bere azpian zanpatuz. Asmaezina asmatzearen itsumen horrek ez dio berarenarengandik haratago dagoena ikusten uzten, herrialde zapalduetan bizi dugun sarraskia ikusten uzten.

Nola eraiki perfekzioa, gure artean bakean bizitzako gai ere ez bagara?

Ni, itsasoko olatua, haizearen pentsura mugitzen, nire semea eta alaba herrestan eramanez. Orduak noraezean ibili ondoren, familia Palestinar batek hona ekarri gintuen. Eskola batean gaude, gizakiarengandik errefuxiaturik. Albo banatan nire seme-alabak ditut, baina hemen dauden 400 pertsona inguruk ez dute zorte berbera. Asko bakarrik aurkitzen dira, beste asko hemen egindako lagunekin, guztion artean eratzen dugun klan bereziaz babesturik.

Zauritu ugari daude, hildakoak ere bai, baina ospitaletan ez ei dago medikamentu nahikorik, ezta argindarrik ere. Janaria eskasa da, ura ere bai, elkar laguntzeko gogoa da daukagun gauza bakarra. “Ama! Ama! Non zaude? Nire bila etorri, beldur naiz” bezalako esaldiak nire buruan ditut bueltaka; haurrak dira, egia bortitza jakiteko txikiegiak diren ume errugabeak. Gauetan, aldiz, inork lorik egitea lortzen ez duen gauetan, isiltasuna edozein oihu baino sarkorragoa da. Itxaropen faltsuz beteriko isiltasuna, etsipena nabaria den abesti beldurgarria.

Hamazortzi egun igaro dira sarraski hau hasi zenetik eta jadanik mila bat izan dira hil dituzten lagunak, bideojokoetako pertsonaiak bailiran aurretik kendu dituztenak. 4.200, aldiz, zaurituak. Bi egun daramatzagu hemen eta ez dut senarraren berririk izan. Agian hildakoen zifra horren barruan egongo da, edo zaurituenen artean. Batek daki; agian bihar gu zerrendetariko batean agertuko gara, edo agian etzi. Etorkizunak luzaroan errepresiopean borrokan dirauen herri baten mamua izaten jarraituko duelako.

Hau guzti hau egun hori heldu arte gainean eraman beharko dudan zama da. Aurrera egiten jarraitu beharko dut, bizirik edo hilik zauden ere ez dakizun itsaso zabal honetan bizirauten, arnasa hartu ahal izateko indarrak batzen.

Gorka Lopez
BT 2. maila

"Bakoitza den modukoa izateko, sarritan bakarrik eta izuturik sentituko zara, baina ahaleginak merezi du"

BAI, EGOZENTRISTA

Miresgarria, bakarra, bikaina! Hau baino momentu hoberik gizakiak ezin lezake bizi. Urte berri batean sartu gara, milaka asmo eta helburuz betetako urte batean. Eta esperantzak, ilusioak eta indarrak, etorri ziren bide berberetik doaz; ez orain, noski, hemendik hilabete batzuetara baizik. Ni, momentu hain berezi honetan, pantaila daukat aurrean, nire lagun onenarekin nago, berotan, inor baino pozago!

Telebistako kate guztietan gauza berdina, nazkatu naiz eta aspaldi dago tramankulu hori itzalita. Nik badaukat erloju bat ordenagailuan, eta honek, telebistako pertsonaia famatu horiek bezain ondo daki zein ordutan hasten

den eguna eta urte berria. Gainera zarata gutxiago egiten du eta isiltasuna miresten dut, gozatu egiten dut.

Bai, nola ez, egun hau aukeratu dut, egun hau eta ordu hau, kontakizun madarikatu hau idazten hasteko. Adi, hasteko esan dut, bukatzea beste kontu bat baita. Bukatuz gero, bihar goizean pozez zoratzen izartuko naiz; eta ez bakarrik jateko ezin hobea dagoelako mahaian nire zain, baita buruhauste hau ezabatu dudalako ere.

Baina... Gorka: zeri buruz idatz dezakezu? Amodioa, gai bikaina. Bikaina bezain txatxua eta zentzugabekoa. Maitasun istorioak bizi egin behar dira eta ez kontatu. Kontatzerakoan grazia eta zentzua bera ere galtzen dute, prostituta batek bere kuleroak galtzen dituen erraztasun berdinaz.

Baina gauza zer da, zuri gustatzea edo irakurlearen gustuko izatea? Zentratu zaitez. Bai, argi daukat, gauza nik gustura idaztea da, eta doazela pikutara irakurleak; zerbait ona irakurri nahiez gero ez baitute hona joko, baizik eta gaur egungo idazle moderno horietako batengana.

Zer idatzi ere ez dakizu koitadu halakoa! Zaila da behartuta zaudenean lan ona egitea. Baina hori kontraesan bihur daiteke, gaur egungo gazteok, ez baitugu ezer egiten inork aginduta ez bada. Beraz, ahaztu ezazu inguratzen zaituen guztia eta ekin lanari! Itxoin pixkat... ondoko guztia ahazten badut, zer demontre idatziko dut? Beno, beno, ez interpretatu literalki nik esandako guztia, eta has hadi zerbait egiten behingoz!

Beraz, amodio kontuak alde batera utzita, biolentzia eta misterioz betetako zerbait egitea da erremedio bakarra. Baina hori ere ez dut gustuko; ia ezer ez duzu gustuko, gaur gauean jandako itsaskiak alde batera utzita. Kaguen! Nazkatu nauzu jadanik, zure bizitzako kontuei buruz hitz egiten; joan zaitez muinera eta laga alde batera itsaski, telebista eta zure ordenadore ziztrin hori!

Demontre, ez dut goiko lerro guzti horietan tutik ere idatzi, baina atzamar hauek tekleatutako guztiak balio du! Amodioa, biolentzia, misterioa... gai benetan atseginak eta erabiliak dira. Zuri ez zaizkizu gauza erabiliak gustatzen. Baina, baina... zuk ze ostia dakizu nitaz? Nor zara zu?

Ixo! Zerbait entzun dut eta. Egongelako egurrak karraskada bat egin du. Bihotza... bihotza zer? Milaka taupadatan? Neurtu al dituzu bada? Hori alde

batera utzita... ez dut zaratatxo hori ahaztu oraindik. Hurbiltzen doala ematen du. Burura etorri zait joan den astean ikusi nuen Bruce Willis delakoaren filmea; ni hura banintz, orain daukadan bi astetan garbitu gabeko kamiseta kendu eta ostikoka hasiko nintzateke egongelan dagoenaren aurka. Baina... burutik al zaude? Hau ez da pelikula, zu ez zara Bruce, eta bai, kamiseta hori garbitzeko ordua da!

Lehengoaren zarata antzekoa berriz ere. Zientzialariek diote, gorputzak, momentu jakin batzuetan, gure buruak igarri nahi dituen minak igartzen dituela eta entzun nahi ditugun soinuak entzunarazten dizkigula. Orduan, nola jakin zarata hori nire buru argi honek sortutakoa den edo benetan norbait dabilen etxean? Ez, lasai, ez dira gurasoak. Arreba txikia lagun baten etxean dago eta gurasoak parrandan joanak dira. Etxeko jaun eta jabe naiz. Baina bakarrik al nago? Bizia existitzen al da ordenadore honen ingurutik haratago? Noski baietz, baina kasu honetan, oholen dilatazioa besterik ez da izan.

Momentu polita izan da misteriozko istoriotxo bat hasteko, baina ez naiz hain merke salduko. Hain merke eta hain hurbil. Nire aitonak ezagutu zuen fraide Saoli batek esaten zuen legez: denak du prezio bat, jar iezaiozu zure buruari beste bat!

Laster beherapenak hasiko dira, eta ez daukat nire burua balio duena baino merkeago saltzeko gogorik. Gogorik ez eta interesik ere ez. Ez nik ezta nire gurasoek ere. Hau ez da tontakeria bat, gure burua beti baitaukagu salgai, beti arrain freskoa bezain ikusgai. Baina arrain freskoa eta fraide Saoliak alde batera utziz... hemen garrantzitsuena narrazio madarikatu hau idaztea da! Hori eta ez beste ezer!

Badakit! Bai! Bururatu zait! Ideia ezin hobea da! Ez, ez dut belarrik erre ez eta alkoholik edan ere; inspirazioa etorri zait, beti bezain alai, beti bezain itxaropentsu! Eskupeko bat eman eta etorri dena baino pozago joan da, kabroi halakoa. Inspirazioak ere bere prezioa du, eta egia esan... ez da zuek pentsa bezain merkea.

Gai polita da, erraz jorratzeko modukoa, udaberriko ortuak jorratzeak baino gozamen handiagoa sortuko dit. Horrela, beharbada, jendea konturatuko da gure burmuinak daukan ahalmenaz. Gure gorputza, gure sentimenduak, gehien komeni zaiguna egitea... guzti hori kontrola dezake. Noski, psikologikoki oso gogorra izan behar zara eta konformismotik pixka bat urrundu.

Baina gai horretaz gain, interesgarria iruditzen zaidan beste bat sartuko dut azpitik, ea irakurleak konturatzen diren mezu horretaz. Irudia, guk sortzen dugun irudia, proiektu batek sortzen duen irudia,... bera bere funtsean baino askoz ere garrantzitsuagoa da. Eta, komentario merke bat egitearren, mundua dagoen moduan egotearen arrazoi nagusia dela iruditzen zait.

Orduak pasatu dira, Chopenen maisu lan asko eta asko entzun ondoren, gozokitan gastatu dudana baino diru gehiago inspirazioari emanez, azkenean lortu dut lantxo hau, ipuintxo hau bukatzea. Egia esan, egia, bai, egia: esfortzu nahiko egin behar izan dut, buruhausteak barne, ahalik eta hoberen geratu zedin kontakizun hau. Gainera, hiru aldiz hasi behar izan naiz hasieratik, eta hori gogorra da.

Maisuari asko gustatuko zaio, argi daukat. Eta bi aukeratuetako bat izateko esperantza dut. Heldu zaizu eguna eta hiru hile pasatu ondoren, maisuari eman diozu ipuina; ondo grapaturik, garbi, garbi, bi aldiz inprimatu behar izan duzu, arratsaldeko kafearekin zikindu baitzenuen lehena. Izenburua irakurri eta harriduraz begiratu dizu. *Irakurri, irakurri, eta gero esango didazu kakaren hurrengoa den edo merezi duen.*

Hurrengo astean, aukeratuen izenak ematean, ez duzu zure izena entzun. Lasai Gorka, amets gaizto bat zen! Itzartu, astean behin tokatzen den moduan haginak garbitu eta dotore jarri ondoren klasera joan zara. Euskarako klasea azken orduan daukagu, baina zu lasai zaude. Berriz ere, gauean lotan entzun dituzun bi izenak esan ditu. Eta ez, oraingoan ez zaude ametsetan, laguntxo!

Porrota bereganatu eta aukeratuei zorionak ematera joango naiz, merezi baitute, nire antzean lan eta lan ibiliko baitziren Gabon jaietan zehar.

- Zorionak Eu... Eus... takio!- inoiz ez zait erreza egin izen hori ahoskatzea.
- Bai, niri ez eman zorionik motel, entregatzeko egunaren bezperan lehengusuari eskatu eta irakurri ere egin gabe entregatu dut, ja,ja,ja,ja,ja, erantzun dit inolako lotsarik gabe.
- Aaaaa...je je- irribarre faltsu bat erantsi diot.

Alu madarikatua! Ahalko banu hanka biak hautsiko nizkioke beisboleko bate batekin! Kaka zaharra! Hainbeste esfortzu ezertarako... grrrrrrrrrrrrrrr...

Janire Ibarguengoitia
BT 2. maila
"Izan gaitezen gu geu, bizi eta goza dezagun momentua"

HURRENGORA ARTE, AFRIKA MAITEA

Guztiak amaiera bat du, edo hori diote, behintzat. Egunetik egunera, nire bizitzarena ere gero eta hurbilago dagoela sentitzen dut. Edozein momentutan etorriko dira nire bila, horrenbeste urtetan nire etxea izandako paisaia eder honetaz urrunduz, lagun minak eta familia agurtzera behartuz, hainbeste oroitzapen alai atzean uzteko aukera bakarra emanez, herrimina nitaz jabetuz. Erabakia, ordea, nik neuk hartu dut eta, beraz, nik neuk onartzerik ez badut, akabo.

Bakarra bada ere, gutxik aurrera egingo luketen irtenbide ezezagun eta arriskutsuko tunel honen amaieraren hasieran nago, argia ikustean errealitateak zer eskainiko didan itxaroten, aukera ezberdinen zain. Ezinegona

izugarria da. Ez daukat atzera egiterik, ordea: itsututa banengo bezala, atzean daukadan iluntasunaren beldur naiz, aspaldi hura ezaguna banuen ere. Gauzak bestelakoak baitira orain: egunero, jaikitzerakoan eta begiak irekitzerakoan, ordu gutxi batzuez poztasuna eta lasaitasuna ematen dizkidan ametsen mundu zoragarri horretatik alde egin izanaz damutzen naiz. Izan ere, harrigarria da nola 23 urtetan zehar, nire burua baino hobeto ezagutu izandako inguru hau, gauetik egunera, ezezaguna zaidan. Ondorioz, amorrua bera baino indartsuagoa da tristura, baina tristura bera baino handiagoa da hemendik alde egiteko gogoa.

Urtaro euritsuan berde maitagarri batez eta urtaro lehorrean hori lehor batez estalitako garai bateko zelaiak, edertasunaren adierazgarri ziren landare eta lore koloretsu guztiak, lasaitasun osoz inguruko herri guztiak zeharkatzen zituzten ibaietako ur osasuntsu eta garbiak, kantu alai eta biziko txoriak, gainerako animalia guztiak bezala, faltan somatzen ditut, baita herritarrok bizitzeagatik geneukan ilusioa ere. Guzti horren lapur bat izan balitz bezala, luze joko duen gerrate naskagarri honek irribarre egiteko indarra bera ere kendu digu, aurrera egitea gero eta zailagoa delarik. Negar tantetan blai egindako gehienon begiek errealitate beldurgarri bat besterik ez dute ikusten: erretako etxe eta zuhaitzak, odolez beteriko gorpuak alde guztietatik eta uneoro mehatxatzen gaituzten suzko armak tiro egiteko prest.

Diotenez, inoiz ikusi ez ditugun bihotzik gabeko gizon zuri hauek soldadu amerikarrak dira eta lurralde hau konkista nahian dabiltza. Emakumeak eta umeak eramaten dituzte, gizonen aurka egiten duten bitartean. Askok eta askok alde egin dute, nik egingo dudan bezala. Bidaia ez da erraza izango, baina amets gaizto hau atzean utziko dut.

Eguna argituz doa, guztiak daude lo. Azken aldiz ikusi ditudalako ideia nire pentsamenduetatik urrunduz, gauzak hartu ditut. Heldu da momentua: bi orduz oinez ibiliko naiz, harik eta Sgtupko portura iritsi arte. Gezurra dirudi, baina banoa. Hurrengora arte, Afrika maitea.

Goiz epel eta lasaia da, itsasoa ere bare dago. Nik bezala, beste hainbat gaztek ere, haien bizitzetan etapa berri bati hasiera emango diote: Frantziara goaz. Antza denez, jendea zoriontsua da bertan: etxe propioa dute, kotxez doaz lanera, zinemara eta erosketak egitera joaten dira lagunekin, oporretan doaz… Oraindik ez dut siñezten ni ere gizarte zoragarri horren parte izango naizela egun gutxi batzuk barru. Gainera, lana izango dudala ziurtatu didate. Hori bai poztasuna! Baina, horretarako, mugak gainditu beharko ditugu eta ez omen da erraza izango.

Azken besarkadak, azken musuak eta azken agurrak. Guztiok prest gaude eta, tristuraz jantzitako lurralde honi azken begirada emanez, paradisura eraman behar gaituen paterara igo gara. Nire inguruan daudenen begiak garbitu berriko beira zati gardenak balira bezala, gainezka egin beharrean dagoen sentimenduetako bakoitza nabaritzeko gai naiz: gaztetxoenen beldurra, helduagoak direnen urduritasuna eta ardura, abentura zaleenen irrika… Hala ere, haien barnean murgiltzeko erraztasunik handiena eskaini beharko zidaketen sentimenduak ez ditut inondik ere aurkitzen: ez naiz momentu honetan sentitzen dudanari buruzko zentzuzko hausnarketa bat egiteko gai. Pena, damua, duda eta beldurra ari ote dira nitaz jabetzen?

Sei egun igaro dira jada eta itsasoan gehiago barneratu ahala, eguraldia gero eta ezegonkorragoa da. Bat-bateko ekaitzek arriskuan jartzen gaituzte, bata bestearen gainean jarritako bi elefante bezain handiak diren olatuek untzia desegonkortu eta jarraitu beharreko bidetik aldendu ere izan gaituztelarik behin baino gehiagotan. Horrenbestez, asko itotzearen beldur dira, gutxi batzuk baino ez baikara igerian dakigunok. Hala ere, lehenengo eguneko lasaitasunak itzultzerik ez duela eta, ondorioz, gorabeherak egunotako protagonista nagusiak izango direla onartu eta euri zaparrada eta haize gogorrei aurre egiten diegu. Zaila da, ordea; sorteak ere ez baitu gure alde egiten: motorretako bat hautsi eta bidaia luzatu omen egingo da.

Egunak aurrera doazen heinean, beraz, itxaropenak zapuztuz doaz: Frantziara heltzea gero eta zailagoa da, hurbiltzen garenean, eskuratu ezineko amets hau gehiago aldentzen dela dirudielarik. Baldintzak ezin gogorragoak dira, gauetan hotzez hiltzen baikara eta ia ia ez baitaukagu janaririk. Funtsezkoa dugun ura ere agortu beharrean dago eta egarria jasan ezineko beste oztopo bat bezala aurkezten zaigu. Ondorioz, asko eta asko gaixorik daude, gutxi batzuk hiltzera ere heldu direlarik. Ahulezia nabaria da guztiongan, baina ni neu behintzat, gogor arituko naiz, familiari zor baitiot: zin egin nien soldataren zati handi bat bidaliko niela, haiek ere, egunen batean, Frantziara joan ahal izateko eta guztiok batera zoriontsu bizitzeko, gerra hasi aurretik bizi ginen bezala.

Bidaiko hamargarren egun honetan, inoiz baino naskatuago eta aspertuago sentitzen naiz: hasiera bateko 45 lagunetatik 30ek bakarrik irauten dugun arren, oraindik ere, mugatutako espazio txiki hau ez baita minberatuta ditudan hanken mugitzeko beharra asetzeko nahikoa. Hori dela eta, gaur ere, nire gotorlekua bihurtutako mantaz estali eta lo besterik ez dut egingo. Zer beste gauza egin dezaket bada? Aspaldiko partez gutako batzuk nola

pozten diren ikustearekin konformatu beharko naiz, poztasun horren zergatia ulertzen ez badut ere. Izan ere, ez dut uste egoera latz honek horretarako pisuzko arrazoirik eskaintzen digunik, jarraitzen dugun hori aurkitzen ez dugun bitartean, noski. Baina, momentu bat… ez, ez da posible! Han atzean ikusten dudana ez da ba lurra izango…! Izugarrizko ahaleginak eginez, gorputzaren alderik ezkutuenean nituen indarrak berreskuratu eta zutitu egin naiz, buruak irudikatuko hau egia izan dadin erregutuz. Begiak igurtzi eta bigarren aldiz begiratu dut, oraingo honetan egunotako amaierarik gabeko ur biziak berriz ere ikusko nituelaren pentsamendu ezkorraz guztiz ziurtaturik. Ez da horrela gertatu, ordea… Miraria, miraria izan behar da! Heldu gara!

Gure zain daude hondartzan. Berehala erropak eman dizkigute, baita janari beroa ere. Ez dut zuriz jantzitako hauek diotenaren tutik ere ulertzen, baina atseginak dira, oso. Zauriak sendatu eta, nire herrian ikusitako suzko armak bezalakoak daramatzatenengana hurbiltzeko agindua eman digute. Susmo onik gabe aurreratu dira besteak, noraezean ibilko banintz bezala, pausu motz eta azkarrak emanez jarraitu ditudularik. Galderak egiten hasi dira, baina ez dut erantzunik eman, ez baitakit zer nahi duten jakin, eta jakingo banu ere, ez bainintzateke gai izango.

Lerro bat egin behar izan dugu eta, banan-banan, inoiz ikusi izan ez dudan neurri ikaragarrietako auto batera igoarazi digute. Azkenik, tramankulua martxan jarri dute eta ordu erdi inguru luzatu den bidaiaren ostean, eraikin handi batera heldu gara. Ez dabil jende askorik inguruetatik, baina soinu mingarriko eta behin eta berriro itzaltzen eta pizten diren argi urdinetako auto asko sartzen eta irtetzen dira. Harritu egin naiz, ez bainuen pentsatzen gure etxea horrelakoa izango zenik. Agian… noski, lana ziurtatu ziguten bulegoak izan behar dira hauek! Ziur nago momentu batetik bestera azalduko digutela egin beharrekoa eta, orduan, lanari ekingo diogu. Ederto!

Barrura sartu eta eskailera batzuk jaitsi ditugu, geroz eta estuagoak diren pasiloetatik aurrera eginez. Lekua gero eta ilunagoa da, ez zait bat ere ez gustatzen… Hotz handia egiten du, eta harrizko jesarlekuak baino ez dituzten oso usain txarreko gela txikitxoak daude hemen. Ez dirudite oso erosoak… Horietako batean sartu naute eta burdinezko atea giltzaz itxi dute. Argia itzali dute.

Bat-batean guztia ulertu dut: inoiz beteko ez diren hitz eta ametsak. Gezurrak besterik ez.

Gaizka Ardanza
BT 2. maila

"Esna zein lo egon, ametsak irakasten digu geure burua ikusten, entzuten, konturatzen"

NIRE AZKEN IDAZKIA

Gaur, maitasuna azkenik niregana heldu den egunean, gaur, maite ditudan lagun eta senide guztiak hain pozik ikusten ditudan egunean, gaur, nire amets gaizto eta hainbeste min egiten didaten iraganeko sentipen guztiak atzean utzi ditudan egunean, gaur, ene gorputza beste pertsona baten eskuen laztanetan murgiltzen utzi dudan lehen egunean, gaur, barne itomen honekin bizitzan aurrera egiteko indarrik ez dudala izango sentitzen dut.

Pozik jaiki naiz ohetik. Goizero bezala leihoa ireki eta kanpoaldera begiratu dut, eguraldi paregabea dago eta gaur egun borobila izango denaren susmoa daukat. Ohe alboan dudan mahaitxoaren gainean dagoen aitaren

argazkiari erreparatu diot gaur ere. Bere begi berdeek dir-dir egiten dute bere haragi mamitsuan, eta gaur ene aitak ere pozik dirudi.

Orain 3 urte galdu nuen aita. Gibeleko kantzerra zela eta ospitalean eman zidan bere azken agurra, baina hori bai, bere nahia bete egin zen, berak beti esaten zuen bezala, lasai eta sufritu gabe beste mundura joatea baitzuen helburu.

Gaua zen eta aita amarekin hizketan zegoen iritsi nintzenean, iada argi zeukan bere azkena gertu zegoela eta nik ez nion bere pentsamenduari kontra egin nahi. Bere alboan eseri eta eskua helduz behin eta berriz maite nuela esaten nion, nahiz eta berak ez entzunarena egiten zuen. Bat-batean zerbait esan zidan, harrituta utzi ninduen zerbait eta begi zabalik begiratzen nuen, bere ahotik hitz haiek nola irten ziren sinistu nahian. Baina barre egin nuen, ez dakit zergatik, baina barre egin nuen. Ama ongi zaintzeko eta etxean laguntzeko esan ondoren, ama baino lasterrago beste mundura ez abiatzeko esan zidan, horrek utzi ninduen ni “sock” egoeran. Haiek izan ziren aitaren azken hitzak, eta oraindik buruan bueltaka ditut behin eta berriz, “ez zaitez ama baino lasterrago beste mundura abiatu”. Gaur ordea nire hitza jan beharko dut. Barre algara batez baietz erantzun nion arren, gaur ezinezkoa zait aurrera jarraitzea. Sentitzen dut aita, baina banoa.

Dutxara sartu aurretik arropak prestatu ditut, amari egunon esan eta Maialen telefonotik deitu dut gau parterako ze plan dauden galdetuz. Itzel! 12etan zinea eta ondoren giro paregabea dagoela komentatu dit Gernikan, gainera Gorka ere joango dela! Arropak berriz kaxoietan gorde ditut, gaurko egunak zerbait benetan ona dakarren susmoa daukat eta ez naiz edonola prestatuko, gaur neu izango naiz Gernikako neskarik ederrena!

Pozik irten naiz arratsaldean ere etxetik, ama ere pozik ikusi dut eta besarkada batez agurtu dut autoa hartu baino lehen. Lehenengo deia nola ez, Maialeni egin diot eta honekin batera poltsan daukadan “Chester” paketetik zigarro bat atera dut, egia esan gidatzen noanean lasaitu egiten nau tabakoak. 5 minutu pasa ondoren Maialenen etxe aurrera heldu eta autora sartu da, berak ere zigarro bat dauka ahoan, baina Maialenena normala da, eguneko 24 orduak erretzen pasatzen ditu eta. Naia eta Ainhoa ere hartu ditugu autoan eta barre algara artean laster iritsi gara Gernikara. Autotik irten eta mutilek daukaten lokalera abiatu gara gero. Alkohola, belarra eta musika, zer gehiago behar da ba jai bat ongi hasteko?

Arratsalde guztia trago batzuk eginez lagun arteko giro gozoan pasatu ondoren, azkenik irten gara Ikaletik eta zinera abiatu beharrean segituan tabernetara joan gara. Han zegoen han giroa, inoiz ez dut horrenbeste jende ikusi Gernikako Urriko Azken Astelehena alde batera utzita. Etxetik atera aurretik izan nuen nik honen susmoa, gaurko eguna benetan ikaragarria izango zenaren susmoa. Gaur dena horren ondo irtenda, Gorkari beragatik sentitzen dudana aitortzeko egun aproposa ere izan daiteke.

Gau guztia parrandan aritu ondoren eta oraindik alkohol lurrinak aldean ditudala Gorka hurbildu zait. Beti bezala hasi zaizkit oinak dardarka, tripak bueltaka eta bihotzak bularretik kanpo salto egingo didalakoan, baina oraingo honetan alkohola nire laguna da eta lotsa kaxa batean gordeta daukat, gaurko aukera hau ezin dezaket galdu.

Hizketan hasi gara, elkarrekin dantzan. Ipurmasailetatik heldu nau eta koloreak gorritu zaizkidala sentitzen dut, hala ere gustuko dut eta ez diot eskua nire ipurditik askatzen uzten. Ni ere ausartu naiz eta bi eskuak bere lepo gihartsu eta luzean jarri ditut eta hau goxo-goxo laztanduz egin naiz. Gero eta hurbilago noa eta azkenik bere hanka artean dagoen zer hori sentitu dut, bero dago eta nik pentsatzen nuena baino handiagoa da. Bat-batean berarekin bat egiteko nahia nabaritu dut, biok bat izateko nahia, berarekin oheratzeko nahia. Gaur prest nago eta ez dut atzera bueltarik emango, ezpainak miazkatu dizkiot eta isil isilik nire gorputza bere eskuetan uzten dudala sin egin diot, bai, gaur gauean berea naizela. Gorkak segituan erreakzionatu du, bere lagun bati eskatu dizkio bere autoko giltzak eta bertara eramateko plana azaldu dit. Nire aukera da, ezin diot ezetzik esan, egin egingo dut, joan egingo naiz. Baiezkoa eman diot eta eskutik heldu nau. Amets batean nagoela dirudi, maite dudan pertsona daukat aurrean eta eskutik helduta narama, plazerra bilatzeko bidean zehar. Kanpoan hotz egiten du baina ni beroturik nago eta ez dit kanpoko hotzak inola ere kaltetzen. Gorkak bere jertsea jartzeko eskatu dit baina nik uko egin diot, ez naizela hotz esanez.

Azkenik heldu gara autora eta azkenean heldu da, hainbeste denboran beldurturik eduki nauen eta parte hartzera ausartzen ez nintzen jokoan sartzeko aukera, eta jokatzen, gozatu egin dut. Lehenengo aldia mingarria dela diote, baina nik ez dut ezer sentitu, beno bai, sentitu dut, baina sentitu dudan hauxe inoiz imajinatzen ez nuen sentsazio ikaragarria izan da. Izarrak ikusi ditut, beste mundu batean murgildu naiz, eta dena Gorkarekin. Dena maite dudan pertsonarekin.

Arnasa ezin harturik gaude oraindik biok, autoaren kristalak lausoturik daude, zuri-zuri, gure beroa haietan geratu izan balitz bezala. Biluzik, bata bestearen ondoan goxo besarkaturik jarraitzen dugu eta autoaren leiho bat irekitzera altxatuko ez banintz horrela jarraituko genuke gau osoa. Gorka pozik ikusten dut eta prakak jartzen ari naizela maite nauela aitortu dit. Bi hitz horiek entzutean, harriduraren harriduraz, praka okerreko hankan sartu eta buruz behera lurrera jauzi naiz. Gorkaren barre algarak ikaragarriak dira eta nik ere gauza berbera egiten dut lurretik. Bere alboan eseri naiz berriro eta nik ere beti maite izan dudala aitortu diot, gaurtik aurrera betirako bere alboan egon nahi dudala belarrira isilpean esan eta gero. Gorkak irribarre egin du eta bere besoa nire buru gainetik pasatuz, gogor besarkatu nau musu goxo bat emanez.

Goizeko 8ak dira eta jada egunak argitu du. Oraindik alkoholak nire barruan jarraitzen du baina amaren hitza errespetatuz 8 eta erdietan etxean egon behar dudala etorri zait burura. Gorka eskutik heldu eta nire lagunengana hurbildu gara, batera gauden notizia eman eta bide batez, ni etxera noala esateko. Ainhoa eta Naia ere nirekin etortzera animatu dira, baina hobe horrela izango ez balitz. Hobe autoa bakarrik hartu izan banu, hobe autoan sartu bezain pronto oraindik edanda nagoela eta ezin gida nezakeela konturatuko banintz, hobe atzeko biek ere gerrikoa jarri izan balute, hobe autoa etxean utzi izan banu...

Sartu gara hirurok autoan eta musika altu zamar jarri dut, jaia bukatzeko gogorik ez dudala eta bizitasun pixka bat emateko inguruari. Naiak eta Ainhoak pozik hartu dute musika jartzearen ideia eta zinturoia lotzea ahaztuta, dantzan hasi dira atzeko aldean. Nik irri egiten diet goiko ispilutik eta etxerako bidean jarri dut autoa, gaurko gau ahaztezin honen emaitzei buruan, bueltak eta bueltak ematen dizkiodala.

Zigarro bat piztu eta lehen zurrupada eman bezain laster telefonoa hasi da abesten. Pantaila begiratu dut eta Gorka dela ikusi dudanean bihotza ere gelditu egin zait. Hunkiturik, telefonoa hartu eta haren ahots ederra entzun nahian, bolantea segundo batez askatu eta telefonoa poltsatik ateratzera joan naiz, baina ezin izan ditut espero nituen “aupa laztana” edo “gabon maitea” hitzak entzun. Bolanteak eskuetatik ihes egin dit, telefonoa lurrera erori zait eta autoa kontrolik gabe maldan behera erortzen sentitu dut. Hiru edo lau buelta eman ditugu airean eta azkenik arbola batek amortiguatu du gure jaitsiera. Atzera begiratu dut, Ainhoa eta Naia ez daude, eta odolez beterik daukat aurpegia. Azken esfortzu batekin telefonoan 112 markatu eta anbulantzia bat eskatu dut negar malkotan, gero, kontzientzia galdu dut.

Ez dut ezer sentitzen eta ez dut ezer entzuten. Begiak itxita dauzkat eta ametsetan nagoela dirudi, baina gauza bakar batek larritzen nau barruan, non daude nire lagun biak? Betirako galdu al ditut? Ezinezkoa da.. esan iezadazue ezetz mesedez.. zer egin dut...

Burua min ematen hasi zait orain eta mina gero eta handiagoa dela nabaritzen dut. Gorputzaren zati bat ere hasi naiz sentitzen, azkenean nire onera nator, espero dut Ainhoa eta Naia nire alboan egotea, ezingo nuke jasan haien bizia nire eskuetan izan eta galtzen utzi izana, ezingo nuke aurrera jarraitu, ezingo nuke!

Begi bat ireki dut eta ama ikusi dut nire alboan, eskutik helduta nauka eta begiak kolore gorriz tindaturik dauzka. Begia ireki dudala ikustean eskua gogorrago heldu dit eta norbaiti deika hasi da. Medikua dator eta eserita jarri nau, haren esanetan horrela errazago errekuperatuko nintzelako.

Ama hizketan hasi zait, ea nola sentitzen naizen galdezka, baina nik ez diot erantzuten. Leihotik begiratzen dut eta etxe zahar asko ikusten dut kanpoan. Amak ez du etsitzen eta hizketan jarraitzen du, nik eten diodan arte. Nire nahi bakarra orain Naia eta Ainhoa ondo dauden jakitea da, eta hauxe bera galdetu diot amari, beste ezer erantzun aurretik. Amak burua alde batera eta bestera mugitu du poliki, eta geratzen zitzaion azkeneko negar malkoa irten zaio eskuineko begitik. Eskua askatu diot, nire barruan larritasun bat sentitzen hasi naiz, momentu batean oka egingo nuelakoan egon naiz, baina ez da halakorik gertatu. Berriz leihora begira jarri naiz eta begiak itxiz, nire min guztia aurpegitik irristatzen sentitu dut, negar malko artean. Ama hurbildu egin da, baina buruarekin ezetz esan diot. Bakarrik egon nahi nuela, ordu erdi batez gutxienez, lasai egoteko. Atea itxi du eta bakarrik utzi nau azkenik, ohe gainean eserita hain maite ditudan bi lagunen aurpegiak ikusten ditut nire aurrean eta are gogorrago egiten zait aurrera jarraitzea. Idazteari ekin diot. Lehen eta bizi telefonoa hartu eta Gorkari mezu bat bidali diot:

Zaila egiten zait gehien maite dudan pertsonari agur esatea, baina ezin dezaket min honekin jarraitu. Ez dakit jada notizia jakingo duzun baina inoiz ezingo diot nire buruari barkatu nire lagun biei egin diedana. Bizia kendu diet Gorka, badakizu zer den segundu bakoitzeko haien irudia nire begien aurrean ikusi eta betirako desagertu direla pentsatzea? Ezin dezaket honekin jarraitu. Jakin ezazu benetan maite zaitudala eta ez dudala inoiz ahaztuko gure artean pasatu dena. Zail egiten zait zutaz agurtzea, baina ez diot honi

beste irtenbiderik ikusten. Beste barik, ahaztu zaitez nitaz eta bila ezazu beste norbait benetan zoriontsu egingo zaituena. Bizi honetan onena opa dizut laztana. Agur...

Ezin dezaket gehiago idatzi, begiak malkoz beterik ditut eta ez ditut telefonoan agertzen diren teklak ongi ezberdintzen, nahikoa dela uste dut, idatzi diodanarekin ulertuko duela uste dut nire azken agurra, nire biziaren amaiera, min honek eraman nauen bidearen amaiera.

Ama eta lagunak ere agurtu behar ditudala sentitzen dut, baina ez dakit gai izango naizen nire sentimendu guztiak paper txiki batean idazteko. Gainera ez dut mundu hau malko gehiagoren artean agurtu nahi, beraz labur eta argi zuzenduko natzaie, uste dut beraiek ere eskertuko dutela.

Nola hasi hau idazten ...

Lehenengo esan behar dizuedana zera da: Ama, niri bizitza oparitu, maitasunez hasi, hezkuntza bat eman eta bizitzeko behar izan dudan guztia emateaz gain nitaz beti harro sentitu zara eta eskertzen eta maitatzen zaitut horregatik. Baina gaur ez dut indarrik aurrera jarraitzeko eta ezin dezakezu inola ere hau aldatu. Sentitzen dut baina banoa.

Lagunok, nahiz eta badakidan egin dudana inoiz ahaztuko ez duzuela, eskerrak eman nahi dizkizuet beti hor egotearren, gehien bat zuri Maialen. Niretzat bizitzan zehar izan dudan gauza baliotsuena zeu zara eta besteekin batera beti aurkitzen izan duzu nire aurpegian irribarre bat jartzeko modua, gau, ordea, zuk zeuk ere ezin dezakezu hori egin. Beraz, idatzi labur honekin agurtzen naiz. Zaindu ezazue elkar eta bizi zaitezte zoriontsu. Ni ondo egongo naiz aitarekin batera ama, eta ez nigatik malko bat bera ere isuri, bestela ez naiz beste munduan ere zoriontsu izango. Besterik barik, eskerrik asko nigatik egin duzuen guztiagatik eta espero dut noizbait nik egindakoa barkatu didazuela. Asko maite zaituztet. Agur.

Idatzia ohe gainean utzi dut eta botikak dauden apal batera hurbildu naiz poliki-poliki, bertan mina arintzeko lasaigarriak daude. Zenbat izango ote dira nahiko…

Anton Bizkarra

BT 2. maila

"Itxaropena galdu barik iluntasun artean argia bilatzen bagoaz aurrera"

OHARKABEKO ESKALEA

Sortu nindutelako jaio nintzen, aspaldi jaio ere. Ez dut inoiz jakin nortzuk izan ziren nire gurasoak, baina ez zait inoiz asko inporta, izan ere, jende askoren babesa izan baitut beti.Bizitzaren legeak bereari ekiten zion, eta hazten nindoan heinean nire bizipenak gero eta aberasgarriagoak ziren, jende asko eta asko ezagutu nuen Euskal Herri osoan zehar, batzuk han, besteak hemen… Euskal Herriko bidaiari bihurtu nintzen, eta oso gustuko nuen noranahi joan eta jendeak etxekotzat hartzea.Garai guztiak ez dira berdinak ordea, hegan ibiltzeak bere mugak izaten ditu batzutan, eta niri halaxe gertatu zitzaidan, hegoak ebaki zizkidaten. Nork ez dakit, baina baten batek ziurrenik, handik hona ibiltzeagatik arriskutsua nintzela, hari eta besteari gaixotasun arraroren bat kutsatzen joan banintz bezala. Horrek nire bizitzan gehiago ondoratzen ninduen.

Boteredun jaunek harrapatzeko beldurrez ezkutuan ibili nintzen denboralditxo batez, baina nola edo hala lortzen nuen bidaiatzen jarraitu eta nire lagun denak bisitatzea. Denboraren joanean, boteredunek lasaiago ibiltzen utzi ninduten, eta nire lagunek izugarrizko errespetua hartu zidaten.

Urteak pasatzen joan ziren, eta nire presentzia handitzen joan zen indar izugarria izatera iritsi arte. Hala ere, nire boterea momentuko boterea besterik ez zen izan, niganako zuten miresmena eta maitasuna itzaltzen joan baitziren. Nire presentzia nabaria zen oraindik, baina gauzak asko aldatu ziren, ez dakit niganako konfiantza sutsu hori jadanik ez zelako horrenbesterakoa edo… ez dakit zergatik, baina horrela gertatu zen. Jendearengandik hitz goxoak entzuten nituen eta nire borrokarekin bat zetozen, baina beraien lehentasunetatik aparte utzi ninduten eta hori asko nabaritu nuen. Alegia, dena omen dela prozesu baten ondorioa, eta neu ere zein den ez dakidan prozesu baten ondorioz bihurtu nintzen naizena. Eskalea.

Kale ixkina batean bizi naiz orain, neguan kutxazain automatikoak noiz irekiko zain egonez hotzaz babesteko eta udan berriz beroak ito ez nazan noizean behin uretan murgilduz.

Esango nuke bide bazterreko paisaiaren parte bihurtu den eskalea naizela, orain ere ezagutzen naute, baina ez era berean. Tartean-tartean txapon txiki bat ikusten dut goitik erortzen, eta nik irribarre egiten diet laguntzen nautenei. Baina haiek ez didaten irribarrerik bueltatzen, gauza eder eta merkea izan arren. Hala nola jende askoren bihotzak kolpatzen ditu segundo bat soilik ez bada ere, poztasuna sorraraziz.

Jende ezberdina dabil kaleetatik, batzuek nazka aurpegiz begiratzen naute, eskale zikin eta baztertu bat besterik ez naizela uste dute. Beste batzuk, ahal duten heinean laguntzatxoa ematen didate, eta gehienek pena aurpegiz begiratu baina poltsikora eskua eraman, baina antza denez ez dute ezer topatzen niri emateko modukorik, poltsikoak askok zuloa dutela esango nuke. Jaka beltza dut soinean eta txartel txiki bat jartzen dut nirekin batera. “Lagundu nazazu”.

Txartel zuria eta kaleko argi txikia zaizkit lagun nire bazter honetan. Denbora igarotzen ez den bazter honetan. Egiak aitortzen hasita, aitortu behar baitut ez dakidala zenbat urte pasa ditudan hemen, ezta noiz eta nola iritsi nintzen munduko azken txoko honetaraino.

Urteak pasa direla ukaezina da ordea, nire ingurua aldatuz doala sumatzen dut etengabean. Iritsi nintzenean inguratzen ninduen guztia iluna zen, nire desgraziak adierazten zituen zulo beltz baten erdian nengoela ematen zuen. Horma arrailduak, espaloi pitzatuak eta trafikoak eta tabakoak sortzen zuten hodei gris bat, horiek ziren paisaiaren ezaugarri nagusiak.

Udaletxeak ordea, biziberritze plan antzeko bat martxan jarri zuela pentsatzen dut, eta inguru oro atondu zituen, iluntasuna zegoen tokian, zarata franko atera eta hautsak ongi astindu ondoren goitik behera berriztatua geratu zen dena. Baina nik ordea toki berean jarraitzen nuen, txartel eta argi beraren lagun, inolako aldaketarik pairatu gabe. Nigan ez zegoen aldaketarik urteak pasa ahala, nik antza, ez nuen biziberritzerik behar.

Ohartu nintzen, instituzioek gutxi egiten dutela gure egoera lazgarriari laguntzeko, eta oihu egin arren, eskatu arren, eztarria urratzea besterik ez nuen lortzen. Ahuntzaren gauerdiko eztula bezalakoak errepikatuz.

Kaletarren artean berriz, begirada tristez begiratzen ninduten, haietaz gogoratzen naiz. Batzuetan egiazko pena eta errukia azaleratzen zuten nigatik. Txanpona bota eta beren bidea jarraitzen zuten. Baina nik ez dut errukirik bakarrik nahi, nik justizia nahi dut. Baziren bi neska gazte noizean behin nitaz hizketan aritzen entzuten nituenak eta tarteka hurbiltzen zitzaizkidan txapon batzuk ematera, elkarrizketa ere ematen zidaten bost minutuz bazen ere. Ahots xume eta goxoa zuten, belarria alaitzen zidaten eta denboraz etxeko ahots bihurtu zitzaizkidan, atseginak ziren. Bost minutu eta aurreko biei gehitutako bost txanpon horiek onartuz bizirauten nuen, ahal nuen bezala.

Gaur egun, neskato horiek beren alaba gazteekin pasatzen dira nire ondotik eta “hori da gure inguruaren irudia zikintzen duena Maddi” esaten dio batek alabari eta besteak “arrazoi duzu” erantzuten dio. Txoko honetatik ohartzen naiz zenbat bira ematen dituen munduak denbora tarte une bakoitzeko, askotan txarrerako eta bestetan onerako. Mundu ezkor, zikoitz eta berekoiz betetako pilota baita mundua.

Kalean nagoela jendea aztertzeko denbora izaten dut, behealde honetatik dena antzematen da, eta aditasun pixka batekin asko ikasten da. Jende multzo ezberdinen artean beraz badira asko negarra ez esateagatik barre gurea ematen didatenak. “Ustez” izena jarri diet. Lagunen aurrean niri aurpegia atera eta gero batere laguntzarik ematen ez didaten guzti horiek. Us-

tez ezin hobeak direla uste duten horiek. Eta nik, ezin ditut hipokritak jasan. Ez banauzu lagundu nahi ez ezazu egin, baina ez plantarik egin.

Ez naiz inoiz lekuz mugitu, batzuek ikustezin bilakatu nauten arren nik hor jarraitzen dut geldi eta tartean-tartean mugimendu itxaropentsuak sumatu izan ditut. Kontzientzia astintzea tokatu den garaietan indarrak bildu eta jendea protestaka ikusi dut, aldarrikapenetan, beren eskubideen defentsan, tinko, gogotsu. Horrek argiz betetako itxaropena dakarkit zainetara. Nirekiko kontzientzia arduratsua izan dutenak gutxi dira, eta beraien ahaleginak eskertu arren nire kabuz bizitzen ikasi beharrean aurkitu naiz.

Biribila dela dirudien egoera batean nago, zerbait gehiago lortuko dudala ematen duen aldiune bakoitzeko lehen nengoen leku berera iristen naiz.

Zortzi, bederatzi. Gaur hamarrera ere ez naiz iritsi, bederatzi txanponekin eta irribarre batekin soilik konformatu behar, nahiz eta zoriontasunarekin eta eguneroko ogiarekin konformatu.

Zer egingo zenidake zuk? Jarri nire egoeran eta erreflexiona ezazu mesedez.

Roke Ojanguren Gabikaetxebarria
BT 2. maila
"Gustura idatzi nituen Gernikari eskainitako lerro hauek"

ERRAUTSEN ARTEKO AMODIOA GERNIKAN, 1937KO APIRILAREN 26A

Udaberriko beste edozein egunetan bezala, Maite, goizean goiz esnatu zen. Leihotik zetorren herriko haize eztiak bere aurpegia laztandu zuen; eguzki izpi distiratsuak abegi egiten zioten egun berriari, eta epeltasun sentsazio bat isuri zuten bere gorputzean zehar. Gustura zegoen momentu hartan, ohean izara artean gozo-gozo, loaren azken minutu luzeak kontzienteki gozatuz. Bereziki gustuko zuen goizeko une hau, jaiki baino lehen ematen zituen minutu apur hauek. Leiho irekiak egun zoragarri bat iragartzen zuen, inguruko mendiak zirraragarri altxatzen ziren eguzkiaren argipean, eta Lumoko eliza ezarle jasotzen zen herriaren gainean. Eguraldi on hark umore onez jartzen zuen Maite. Izan ere, neska alaia zen bera, gauza gutxik ardura-

tzen zuena, eta bozkarioz jaikitzen zen egunero, bere ohiko denbora-pasetan aritzera. Bai, neskato laño eta tolesgabea zen bera. Larregi beharbada, garai ilun eta latz haietan.

Maitek ez zuen lanik egiten, ez zuen horren beharrik eta, eta margotzen, irakurtzen eta noraezean herrian zehar ibilkatzen ematen zituen orduak. Horrek, agian, mesede egiten zion bere umetasun eta lañotasunari. Ez zuen lagun askorik, gutxitan nahasten zen herriko jendearekin, baina adiskide bat bazuen, zinez kutuna, Elisa, medikuaren alaba. Arratsalde luzeak igarotzen zituzten elkarri kontuak kontatzen, solasean, arbolen itzalpean paseatzen, irakurri berri zituzten olerki eta eleberriak komentatzen, ahoz aho zebiltzan esamesen inguruan txutxu-mutxuka. Elisak, Maiteren antzera, ez zuen gauza handirik egiten bere bizitzan, josi, irakurri, funtsean, familia oneko edozein neskatxak egingo lituzkeen ohiko beharrak.

Bikote honi, adin hartako edozein neskatilari bezalaxe, gauza batek hartzen zion bereziki gogoa: ezkongai fin eta galant bat, zeharo maiteko zituena aurkitzea. Baina Maitek aurkitua zuen bada, gazte lerden eta xeratsu hori; zeharo maite zuen irin usaineko mutil hura …

Txorien kantuek gela betetzen zuten. Jaiki eta leihora hurbildu zen. Ohetik sumatu zuen eguzki irribarretsua uste baino indartsuago zegoen dirdaika. Leihoko geranioak agurtu zituen irribarre batez, eta jan gelara hurbildu zen. Etxea isiltasun oso batean murgilduta zegoen. Bakarrik zegoen, neskamearen salbuespenarekin. Aita goizean goiztik bulegora joana zen, eta ama enkarguren bat egiten irtena izango zen nonbait. Mahaian jada zerbitzatuta zegoen gosaria jan zuen, eta logelako idazmahaira hurbildu zen. Ohi zuen moduan, bere egunerokoa zabaldu, eta orri zuri batean data idatzi zuen. Gernikan, 1937ko apirilaren 21a, Asteazkena. Ohitura hori zuen, goizero gosaldu ondoren, bere egunkarian data idaztea, beranduago, gauean egunean zehar gertatutakoak eta bere gogoetak bertan idazteko.

Ez ziren sasoi onegiak urte haiek. Gerraren itzalak hilabete luzez estaltzen zuen herriko bizimodu atsegin eta arraia. Kaleetan ez zegoen beste berbabiderik, batez ere azkenaldian jazotzen ari ziren gertakari bortitzen ostean. Egun gutxi ziren Durango eta Elorrion agitutako sarraskiak gertatu zirela, eta Gernikan ez zegoen beste hizketarako gairik. Kezkaz aditzen ziren Madriletik eta frontetik zetozen berriak. Herrian txarrenerako prestatuak zeuden, eta martxan jarri zituzten babesleku eta alarma sistemak. Herri osoa zegoen kanpaien dei beldurgarriaren zain.

Baina gertakari horiek ez zuten gehiegi arduratzen Maite. Egunero egiten zuen bezalaxe, meza entzutera joango zen gaur ere, amaren besotik helduta. Beti bezala etxeko atarian zuen ama zain, mandatuak egin ostean etxean baitzen. Goizero bezala, Maitek bere arropa dotoreak jantzi zituen, eta amarekin batera etxetik irten zen. Irribarretsu zihoazen biak, kaleetan zehar, mantila buruan, eta meza liburua eta arrosarioa eskuan zeramatelarik. Herrian denak ezagutzen ziren, eta elizarako bidean hainbat etenaldi egiten zituzten, batarekin eta bestearekin une batez agurtzeko. Maitek eta amak ez zuten gerraz hitz egiten. Ez gerraz eta ez politikaz. Nahiago zuten beste edonolako gaiez jardun, eta kontu horiek gizonezkoei utzi. Elizako atarian Elisa eta bere ama zeuden emakume batzuekin hizketan. Bikotea taldean sartu zen. Andra Mariako kanpaiek mezaren hasiera iragarri zuten, eta eliza aurrean bateratu zen artaldea barrura sartu zen.

Martinek opilak labetik atera zituen. Ez zuen nahi hauek erretzeagatik ugazabak errieta egiterik. Orduak zeramatzan jada labearen aurrean ogi labekadak ateratzen. Hamabost urterekin hasi zen okindegi hartan lanean, eta ordutik lan berbera betetzen zuen, ogiak labetik ateratzea, puntu-puntuan, ogi samur eta apatza. Umore onez joaten zen goizaldeko ordu txikietan okindegira, labea berotu, eta bere lan amaigabea hastera. Gustura egiten zuen lan, eta ugazabak asko estimatzen zuen horregatik. Martinek amets bat zuen buruan, amets eder eta esperantzagarri bat, eta hori zen, eguneroko lan astuna aurrera eramatea ahalbidetzen ziona. Martinek Maite izeneko neskatoa maite zuen. Neskato lirain eta ederra. Irribarretsua eta alaia. Martinek berarekin ezkondu nahi zuen, Maiterekin ezkondu. Horretarako egiten zuen lan gogor mutil hark, egunen batean, Maiteren aitarengana joan, eta haren eskua eskatzeko moduan egoteko, Maiteri bizitza on bat eskaini ahal izateko. Goizero legez, ogiak labetik atera, eta mostradorean utzi zituen. Elizako kanpaiek meza orduaren amaieraren berri eman zuten, eta Martin prestatuta zegoen, meza ostean dendara olatu baten antzera hurbilduko ziren etxekoandre eta mirabeak hornitzeko.

Elisak Maite agurtu zuen, eta ama besotik hartuta, etxerako bidean abiatu ziren biak. Ezin zuen Maitek lehengoan kontatu ziona burutik kendu. Txikitatik ezagutzen zuen Maite, eta ez zuen inoiz horrela ikusi. Guztiz lelotuta zeukan mutil ezeduki eta zarpail hark. Elisak ez zuen batere gustuko mutil hori. Ez horixe. Maiteren akabua izango zela uste zuen berak. Argi zuen, okin-gai hark ez zion onik ekarriko bere lagunari. Maitek mutil harekin ezkondu nahi zuen, gurasoei bere nahia azaldu, eta familia bat sortu. Elisa, Maite ez bezala, errealitatetik hurbilago bizi zen, eta ez zion Maiteren

planari etorkizun handirik irizten. Herri osoan zabalduta zegoen Maiteren gurasoek bere alabarentzat prestatuta zeukaten ezkontza, Santanderren zuten senitarteko baten semearekin. Elisak bazuen susmo horien berri, baina ez zuen Maite izutu nahi, bere ametsetatik hain bortizki iratzarri. Bazekien Maite egunen baten konturatuko zela benetako egoeraz, baina hala ere, ez zuen bere lagunaren ameskeria suntsitu nahi, eta horregatik pasatzen zizkion Maitek idatzitako gutunak Martini, eta era berean laguntzen zion Maiteri asteazken arratsaldero bere maitalearekin topatzera. Astero, bi lagunek ustezko txangoa egiten zuten, Lumoko maldetara, udaberriko eguzki gozoaz gozatzera. Han aurkitzen ziren bi amoranteak, Elisaren begirada mesfidagarriaren aurrean. Behin eta berriz saiatu zen Elisa bere adiskidea enkontru haien arriskuaz ohartarazteaz, baina alferrikakoa zen, bi gazteen maitasunaren itsutasuna handiagoa baitzen beraien adimenaren arrazoia baino. Elisak argi ikusten zuen Maitek ez zuela bere gurasoek ezarriko zioten ezkongaia onartuko, eta horregatik estutasunean bizi zen Elisa.

Arratsalde hartan ere betiko lekuan aurkitu zuen Elisak Maite, Udaletxe aurrean bere zain. Baina neskatoak zekarren aurpegia ez zen asterokoa. Maite pozez gainezka etortzen zen asteazken arratsaldetan Elisarekin topatzera, bere amorantea ikusteko irrikaz. Baina egun hartako bisaia ez zen ohikoa; eta Elisak bazekien zergatik.

Maitek segituan kontatu zion dena bere lagunari, eta honek ez zuen inolako ezuste aurpegirik erakutsi. Maite ezkondu egin behar zen, hala esan zioten egun hartan bere gurasoek, eta gernikarren ahotan zebilen bezalaxe, Santanderreko ahaide batekin izango zen, ontzitegi batzuen jabearen seme batekin; Maiteren gurasoek beti nahi izan zuten bezala. Ezkontza laster izan behar zuen, Maiteren ezkongaiak bidaia bat egin behar baitzuen Ameriketara, eta horregatik, eztei eguna maiatzaren batean ezarri zen. Maitek astebete lehenago bidaiatu beharko zuen Santanderrera bere gurasoekin, ezkontza festa prestatzeko.

Berriak izugarri goibeldu zuen Elisa. Bazekien noizbait Maitek egoera honi aurre egin beharko ziola, baina hala ere laguna modu horretan sumindurik ikusteak asko penatu zuen. Maitek ez zuen nahi inola ere gurasoek ezarritakoa bete nahi, baina, nolanahi ere ez zuen hauek agindutakoa hautsiko; ez zuen horretarako indarrik. Maite sufrimenduzko aintzira batean hondoraturik zegoen, bere sentimendu hautsien artean itotzen. Ez zekien zer ekarriko zion etorkizunak, egia esan ez zuen horretan pentsatzeko adorerik. Orain izen bakarra zuen buruan: Martin, eta ez zekien beraien arteko amodio

sutsuak bukatu egin behar zuela nola esan behar zion. Ez zuen horretarako kemenik izango.

Arratsalde hartan ez ziren Lumoko magaletara hurbildu betiko legez, eta Elisak etxera lagundu zion Maiteri. Ez zuen Martin ikusteko indarrik, eta koldarkeriaren eraginez, errukiarenaz, beharbada, etxean sartzeko beharra izan zuen Maitek, ohean sartzeko eta amaigabeko loan murgiltzeko beharra.

Gau hartan ez zuen lorik egin Martinek. Ezin zuen buruan zeukan ardurari eutsi. Ez zuen ulertzen zergatik ez ote zen azalduko Maite beraien asteroko topalekura, ez eta zergatik ez zion inongo azalpenik eman. Kezkak bere gogoa astintzen zuen eta erantzunak behar zituen bere galderentzat. Zerk eragotziko zion Maiteri beregana joatea?

Egunsentiak lehen adierazpenak egin zituen zeru ilunean. Martinek izarrik jarraitzen zuen bere ohean sabaiari begira. Eta hala zegoen Maite ere. Ezin izan zuen gau osoan begirik jo. Erabaki bat hartu behar zuen, eta hartu egin zuen, baina ez zegoen erabaki hori egokiena izango zela guztiz ziur. Goizeko hamar eta erdiak izango ziren ordurako, eta etxeko txirrinak jo zuen. Elisa zen, eta honek ohean botata aurkitu zuen Maite. Elisak ahalegin guztiak egin zituen Maite animatzeko, baina hau ez zegoen inoren animoak hartzeko umoretan. Gauean pentsatutakoari buruz hitz egin zion Maitek bere adiskideari, eta hartu zuen erabakia azaldu zion. Gauaren ilunpean idatzitako gutun bat erakutsi zion lagunari. Elisak adi irakurri zuen paperezko orri hura. Gutuna Martini zuzendua zegoen, eta bertan, Maitek, gertatutakoa azaltzen zion bere maiteari, eta beraien amodioak aurrera egiteari uko egin behar ziola esaten zion. Elisak ozta-ozta eutsi zion malkoari. Inoiz irakurri izan zuen gutunik ederrena zuen esku artean, baita lazgarriena ere. Maitek gutuna Martini helduarazteko erregutu zion Elisari. Elisak ezin zuen gertatzen ari zena sinetsi. Denbora luzez jakin izan zuen Maitek erabaki hau hartu beharko zuela, baina momentua helduta, gauzak ziruditena baino gogorrago zetozkion Elisari. Orain lagunak eskatutakoa egin beharko zuen, ezdeustasun sentipen arraro baten pean. Inoiz ez zuen gustuko izan bere lagun mina mutil horrekin ikusteak, baina honen tristura sakona ikusita ezin zion bikote gazteaz errukitzeari utzi.

Elisa Maiteren etxean bizitakoaz pentsatzen zihoan kaletik, etxerako bidean. Bere adiskideak hartutako erabakia zuen buruan. Maite zuen gizonaren amodioari uko egin behar zion, gurasoen esana bete eta ia ezagutzen ez zuen gizon batekin ezkontzeko! Eta guzti hori aste baten buruan. Hurren-

go astelehenean, Maite eta gurasoak trena hartzekoak ziren Santanderrerako. Maiteren gurasoak pozez beterik zeuden, beraien betiko ametsa, alaba bakarra ganorazko gizon batekin ezkonduta ikustea, betetzear baitzen. Egunak igaro ziren, eta Elisak ez zuen oraindik esana bete. Esku artean zuen Maitek idatzitako gutuna. Ez zuen une egokirik aurkitzen eskutitz hori bere hartzaileari helarazteko.

Martinen leihotik eguzki izpi lotsati batzuk sartu ziren. Egunsentiaren hasiera aurkezten zuten. Hasi berria zen eguna, eta Martinek ez zuen hari aurpegia emateko kemenik. Azkenaldian bezala, ez zuen loak hartu gau osoan, eta sabaiari begira pentsatzen igaro zituen orduak. Maite zuen buruan. Ez zuen besterik bere gogoan, Maite, eta bera ikusi ez zituela ziren aste bi haiek. Altxatu eta okindegira abiatu zen. Bertan, egutegia begiratu, eta beste orri bat kendu zion; pisutsu egiten zitzaion egutegitik orriak kentzen joatea, pisutsu egiten zitzaizkion modura egun latz haiek. Apirilaren 26a, Astelehena. Martinek ogia egiteari ekin zion, berriz ere bere adimena Maiterengan jarria zuelarik. Ez zekien zer gertatu zitzaion, ez eta zergatik ez zion inolako azalpenik helarazi. Asteazken hartatik, lana bukatzean, egunero joaten zen Maiteren etxe ingurura, bere arrastoren bat aurkitzeko asmoz, leihotik noiz agertuko edo elizara irtengo zen unearen zain. Baina ez zuen Maiteren berririk izan.

Elisak trenka jarri zuen soinean, eta kalera abiatu zen. Eguerdiko eguzkiak epeltasun sentsazioa ematen zuen udaberriko egun hartan. Egun zaratatsua zen Gernikan. Kaleak jendezka zeuden, eta merkatua inguruetako baserritarrez josita. Astelehena zen, eta betiko legez, merkatu eguna. Bazirudien udalaren debekuari entzun gor egin ziola herriak, eta beste edozein astelehenetan bezala, Gernika gainezka zegoen. Elisak argi zeukan bere helmuga. Egunetan ibili izan zen une hartan egin behar zuenaz pentsatzen. Eskuartean zeraman Maitek egun batzuk lehenago eman zion eskutitza, eta egun hartan Martini emango zion. Okindegirantz abiatu zen eta beteta zegoen dendan sartu zen. Zuzenean hurbildu zen salmahaira, eta Martinengatik galdetu zion dendariari. Bizitzako momentu luzeenak egin zitzaizkion Maiteren maitalearen zain zegoela. Bat-batean, Martin sukaldetik irten zen. Elisak ez zuen astirik soberan. Maiteren trena lau etaerdietan irtetekoa zen, eta Elisak agurtzera joan nahi zuen. Martin ustekabean hartu zuen Elisak. Ez zuen neskatoaren bisita espero. Elisak zuzenean eman zion gutuna inolako azalpenik eman gabe, eta irakur zezan esan eta segituan alde egin zuen, tren geltokirantz.

Geltokiko plazan jende asko zegoen. Tartean, jolasten ari zen ume talde batek Elisaren arreta deitu zuen. Berandutu egin zitzaion, eta trenak ospa egingo zuen beldur zen. Baina ez, garaiz iritsi zen, Maiteren zorionez. Bi lagunak besarkada luze batean murgildu ziren. Orduantxe gertatu zen. Batbatean elizetako kanpaiak beraien berri beldurgarria iragarri zuten. Geltokian eztanda ikaragarri bat entzun zen, lurrak dardara egin zuen neskatoen azpian. Isiltasuna zen nagusi geltokian bildutako bidaiariengan, eta beldurra, beldurra denen aurpegietan. Orduan, jende guztia noraezean hasi zen, eta kalera irten zen geltokiko jendetza, zer gertatu zen aditzera. Jendeak eztanda Errenteria auzotik zetorrela zioen, beste batzuek hegazkin bat ikusi zutela … eta, infernutik zetorren madarikazio baten antzera, berriro ere, kanpai-hotsak gernikarren entzumena astindu zuen. Momentu hartan islatu ziren Maiteren begietan deabruaren txoriak. Jendea zarata hutsean noraezean hasi zen; babeslekuetara zihoazen, Jainkoari erruki eskatzera. Eztandak eta izugarrizko burrunbak Gernikako bazter ezkutuena ere hebaindu zuten. Herria errautsetara birrintzen ari zen.

Maite geldirik gelditu zen, ez zen bere inguruan gertatzen ari zenaz ohartarazten. Bista galdurik zuen … une hartan Maitek konortea galdu zuen.

Martin suntsitutako kaleetatik zihoan korrika. Herria su-leize bat zen orain. Orduak ziren ez zela eztanda gehiagorik entzuten, eta jendea zaurituak zaintzen zegoen, eta batzuk hildakoak ateratzen ari ziren, garai batean eraikin sendoak izandakoen hondarretatik. Martinek gauza bakarra zuen buruan momentu hartan. Maite aurkitu behar zuen, kosta ala kosta. Irakurri berri zuen eskuan zeraman gutuna. Gauzak argi zeuzkan orain, eta ez zuen Maite beregandik urruntzerik onartuko. Gizon asko herria kiskaltzen ari zen sua itzaltzen saiatzen ari zen. Martinek ez zuen argi non bila zezakeen, baina eskutitzak zioenez Maite trena hartzekoa zen, eta beraz, geltokirantz abiatu zen. Geltokiko eraikinak orain ez zuen teilaturik, eta inguruko etxeak jada iraganeko oroitzapenak ziren. Lekua miatu zuen, baina ez zuen ordea ezer aurkitu. Bat batean ahots bat entzun zuen bere atzean. Elisa zen. Itxura tamalgarria zuen, eguneroko Elisa pinpirin eta dotorearen arrastorik ez zegoen inondik inora. Begirada batez ulertu ziren bi gazteak, eta Maiteren arrastoa aurkitzen jarri ziren biak. Biek zuten neskatoa onik aurkitzeko esperantza, infernu hartan miraria bazirudien arren. Baina mirariak ematen dira, horixe pentsatuko zuten bi gazteek beharbada, Maiteren gorputz ahula egur eta harri pila baten artean aurkitu zutenean. Maite zauri gabe zegoen. Gorputza ubelduraz eta kolpez beteta zuen arren, Martin ikustean begiak piztu zitzaizkion. Bikotea musu gartsu batean urtu zen. Une hartan ahaztu zituen

Maitek bestelako pentsamenduak. Gauza bakarra zuen gogoan, eta hauxe argi zeukan: ez zen bere bizitzan inoiz Martinen ondotik aldenduko. Eta bere hitza bete zuen. Maitale gazteek ihes egitea erabaki zuten, ez ezerk ez inork beraien maitasuna geldituko ez zuen tokiren batera. Martinek bere ugazabaren furgoneta hartu zuen. Maitek Elisa besarkatu zuen, lehenago egin zuen moduan, eta laster ikusiko zirela agindu zion bere adiskide kutunari. Elisak bikotea urruntzen ikusi zuen, su eta hondarren artetik, eta bistatik ihes egin behar zuenean, furgonetako leihotik esku batek agur egin zuen. Ibilgailua urruntasunean murgildu zen, eta aireak zerion sufrimendu eta minaren artean galdu zen, behe-lainoarekin bat. Bere biziaren zati bat galdu izanaren sentsazio ankerrak Elisaren gorputza zeharkatu zuen.

Inork ez zuen gehiago Maiteren gurasoen berri izan, gernikar asko bezala, ahanzturan erori ziren.

Elisak, ez zuen bere bizitzan berriz bikote hura ikusi, baina gau hartan ezustean zerbait aurkitu zuen geltokiko hondarren artean, Maitek hain estimatu zuen egunerokoa. Azken orrialdean zabaldu, eta han idatzirik zegoena irakurri egin zuen: Gernikan, 1937ko Apirilaren 26a, Astelehena. Papera zuriz zegoen.

Arratsalde hartan gernikar askoren egunerokoak zuriz geratu ziren, baina ez ordea gure bihotzak, eta Elisak berriz ikusi izan ez zuen lagun mina gogoratu zuen bezalaxe gogoratuko du gizadiak Gernikan udaberriko egun batez jazotakoa, eta ez dira inoiz ahaztuko Euskal Herriko herri txiki hartan eraman zituzten arima errugabe horiek, haritz zaharraren itzalpean jaio garen gernikar guztiok beraien gomuta betierekotasunera eramango dugulako.



Itsasne Zarrabeitia Zabala
BT 2. maila
“Gogoko dudana baino ez dut gustuko”

HITZAK SOILIK

Nik zientziak ditut ikasgai
eta badakit olerki politak egiteko ez naizela gai.
Hala ere, hemen uzten dizkizut
nire buruan oihuka ibiltzen zaizkidan pentsamenduak
islatzen dituzten hitz batzuk,
hitz soilak,
sentitzen dudana ulertzera heldu nahiez gero
zeureganatu beharko dituzun hitzak.

MELODIA BERRI BATEN ZAIN

Maitasuna musika da.
Eta maitasun istorio bakoitza kantu bat,
Kantu eder bat.

Zure notek utzi zuten,
nire bizitzako pentagraman,
beraien aztarna
eta akorderik politenen
bila aritu ginen biok batera.

Gure picato zakar
eta crescendo bortitzak eduki genituen arren
pianissimo eta legatoak leunak ere
bizi izan genituen,
biok batera notarik altuenetara helduz
baita baxuenetara jaitsiz ere.

Orain ordea isiluneak dira nagusi
eta hurrengo kantuaren zain gelditu naiz,
da capo batera bueltatuko nauten
bi puntutxo horien zain.

EZ NINDUZUN AURKITU

Itsasorik lehorrenean bilatu ninduzun
Baita basamorturik hezeenean.

Usainik gabeko loreetan
Eta disdirarik gabeko izarretan

Erretzen ez zuen suan
Baita bustitzen ez zuen uran.

Bilatu ninduzun, bai
Baina ez ninduzun aurkitu,ez,
izan ere ni ez naiz
kontraesanez beteriko mundu batean bizi.

OPARITU ZENIDAN LOREA

Behin lore bat oparitu zenidan
Politenen artean politena
Eta bion artean zainduko genuela
Zin egin zenidan.
Ez zenuen ordea ondo hezi,ez
Emandako hitza janez.

Ematen zenizkidan ostikada,
Zaplasteko eta kolpe bakoitzaren
Testigu izan zen gure landare kuttuna
Eta horrela hasi zen bere kolore distiratsua
Gutxinaka galtzen.

Eskaintzen zenizkidan oihu,
Irain eta mespretxuez ere
Ase zenuen ene lore laztana
Eta horrela bere petalo ederrak
Banan banan galduz joan zen.

Azkenik nire malkoz eta odolez
Ureztatu zenuen
Eta horrek, ene “lagun”
Zeukan usain gozoa galarazi zion.

Denbora pasa da
Eta orain lore horixe bera da
nire hilobia apaintzen duena.
Zuk zeuk eraiki didazun hilobia
eta nigana zenuen gorrotoaren erakusle
Behin oparitu zenidan loreaz apaindu duzuna.

ITSASO

Ilargi handiaren ispilu zara
Ta baita bizi eragile.
Suak itzaltzen dituzu
Ai zure hezetasunaz.
Sari bat bailitzan
Olatuak eraginez gure aisirako.

ARGAZKIA

Argazkia,
momentu konkretu bati
garrantzia ematen dion irudia.

Bizitako une goxo eta kuttunenak
batzen dituen gordelekua.
Oroitzapen txarrenak behin eta berriz
gogora ekartzen dizkiguna
eta denboraren poderioz ahaztutako familiakoa
berriz ere gure artera ekartzen diguna.

Egia probatzeko konfiantzazko lagunak eta
gezurretan dabilena lotsarazteko tresnak.

Argazkiak dira gure aldaketa fisikoak
aurpegiratzen dizkigutenak
eta gure defektu guztiak
argi eta garbi islatzen dituztenak,
baita hauei aurre egiten laguntzen digutenak.

Baina paper zati marraztu horiek
Barnean istorioren bat gordetzen dute beti:
maitasun istorioren bat,
lagunekin egindako txango ahaztezinen bat ,
20urte bete zenitueneko
eta jadanik heldu sentitu zinen eguna…
Garrantzia ematen diegun momentu guztiak
eta betiko gogoratu behar izango genituzkeenak.

Izan ere argazki horietan tintak
bere kabuz hitz egiten digu
eta hurbilduz gero
barreak,
negarrak,
oihuak…
askatzen dituztela ohartzen gara.
Jai hartan jarri zizuten musika ere
baliteke zure belarriek sumatzea.

Ainhoa Hernando Arakistain
BT 2. maila
"Inkontzienteki denok egiten dugu poesia"

ISILTASUNA ABESTUZ

Zergatik?

Jausitako ekaitz bustietan
trumoi hotsek sorgintzen naute
hodei artetik melodia baten zain
beste arrazoi batek zanpatzen nauen arte.
Hanka erraldoiak ditu, atzapar minkorrak.
Inork salbatuko ote nauen,
inori axola diodan…
Sufrimentua eguneroko jaki garratza,
tristetasunaren zergatia,
iraganaren isiltasunean giltzapetua.

Bizitzeko gogoa

Heriotza bezain mantso badator maitasuna,
maitasuna bezain iheskor badator bizitzeko gogoa,
bizitzeko gogoa bezain hutsik badator bihotza,
bihotzaren hutsune iheskor mantsoan, bizkorregi joango naiz.

Herriko tabernan

Neguko egun euritsu eta tristeek,
Herriko tabernan geratzera behartu gaituzte:
ni eta nire tristura hezea.
Negar zalapartatsuan dihardut
baso bete ur malkoz egin arte;
-Zerbait nahi?
-Ez, lasai, zerbituta nago.

Faltsukeria

Sentimenduei badiezu atzea ematen,
faltsukeria izango duzu aurrean,
aurrean luzatuko faltsukeria.
Geroztik, faltsukeria dukezu etsai:
hura nora, zu hara;
hura aurretik,
zu atzetik,
zure faltsukeria egia bihurturik.

Nire izarra

Gaua maite dut
eta gaueko giroa.
Gauetan zerua garbi badago
izarrak ederki ikusten dira.
Nik ikusi nahi dudan izarra, ordea,
ezkutuan da, lainopean,
askatasun haizeak lainoak urruntzean
ageriko den izar gorria.

Otsoaren ahoa

Ahoa, nere amonak,
ahoa, jan zuen otsoak,
leizezulo iluna bezain handia,
leizezulo handia bezain iluna,
ahoa, otsoak,
estolda irekia dirudi,
kiratsaren kiratsaz,
amona jandako otsoaren ahoak.

Momentu politenak denbora gelditzeko gai direlako

Sentipen batzuk nahasteaz batera,
une hori iristea desiatzeaz batera,
haizeak eramaten zituen orbelen antzean
segunduak geldo pasatzen ziren
orbelek iparra galdu zuten arte
haizea indar gabe gelditu arte.
Niretzat instant horretan denborak ez zuen zentzurik hartzen;
lotsak ahazten
erlojuak lehertarazten
kantoi batean argiaren itzalpean desagertu ziren milaka muxu
dastatzeaz batera
mututu ziren egonezinak
hutsean gelditu hitzen esanahiak
azaleratu ziren sentipenak
esnatu zentzumenak
ez zegoen burua pentsamendu batez gidatzerik.
Itzali ziren kantoietako argiak eta
itzalek norabide desberdina hartu zuten
soberan zeudelarik,
eta momentu batez desio izan nuen
aurreko egunetan lez,
konpartitzen ari ginen segundu bakoitza geldo pasatzea
haizeak eramaten dituen orbelen antzean.

Elena Elgezabal Bilbao
BT 2. maila
"Argazki baten atzean dauden sentimenduak azaldu nahi izan ditut"

KAMERAREN BEGIAK

Iluntzeetako argi gorri hura izan zen nire bizitzako zeruak distiratsu egiten zituena, nire begi ninien bihotz beltzean islatzen zen argia. Zeru hura zen koloreen isilpetik deiadar egiten zuen biziaren oihua, nire oihua, gero eta urrunago entzuten nuen bizi oihua. Argi izpi haiek islatzen ziren Braamfonteinspruit errekaren uretan, urrezko malkoez blai zegoen ibai hartan. Zebra, lehoi eta elefanteen oinatzak sabanako erregeenak ziren lur haietan gailendu egiten zen eguzkia jaistean entzuten zen kantu isila, begiak itxiz entzuten zen malenkonia kantu bizia. Argi izpi haiek autoaren barnea ere blaitzen zuten, tristezia sentimendua besarkatu nahian, oroitzapenen erreinuan murgilduz.

Braamfonteinspruit ibaia zen nire ihesleku maitea, Afrikako lur horietan jaiotzen zen ur tanten harmoniaren ondorioz sortua. Arratsalde amaigabe haietan guztietan izan ziren nire begiak paisaia eder haren testigu, haize epelaren gozotasuna lagun nuelarik. Haize goxo haren laguntasuna izaten nuen gogoan eskolan igaro behar izaten nituen egun guztietan, eta egunak pasatu ahala gero eta biziagoa egiten zen eguzki izpi gorri beroek eragiten zidaten hotzikara sentitzeko gogoa, denbora gelditu egiten zen ibaiaren doinua entzuteko gogoa. Ikastetxeko ateak zabaldu eta etxera bueltatzen nintzen, nire etxe bezala sentitzen nuen Afrika hartara, naturaren botereek edertasun miresgarria eman zioten lur hartara, nire iheslekura. Han sentitzen nintzen mundutik salbu, gudu eta gerrilletatik salbu, azalaren koloreak piztutako gudutik salbu.

Txikitatik entzun izan nuen apartheid hitza, arraza ezberdinak banatzen zituen hitz eta ideien barrera, zuriaren kolore boteretsua nonahiko eginez. Zurien ahotik irtendako hitz haren botere izugarriaren menpean jaio eta hazi izan nintzen, Johannesburgo hiriaren itzalean, zurien agindupean zegoen itzal beltz hartan. Azal argia izatea poderioaren sinonimoa zen injustiziaren kolonia hartan, gizon zuri gutxi batzuek isilarazi baitzuten ebanozko herriaren ahotsa, hainbeste urtetan mutu iraun zuen ahotsa. Baina ahots haren garra piztu egin zen, mututasunaren kateak hautsi eta lapurtu ezin ziren eskubide eta askatasunak oihukatzen hasi ziren zuriak agintzen zuen lur beltz hartan.

Txikitatik irakatsi izan zidaten apartheid hura zela guretzako onena, zuriontzako onena, kolorezkoak zirenak zibilizatzeko bidea, nire ikastetxeko irakasle apaizen hitzetan gure kultura ezin hobea hedatzeko bidea. Baina bide hartan bazeuden hainbat harritan trebukatu egin zirenak. Bazeuden bide hartako oztopoetan bizia galtzen zutenak, inposatutako bidetik irteten ahalegindu izanagatik bizia galtzen zutenak. Eta nik ez nuen ulertzen haren zergatia, ez nuen ulertzen nire bihotz berbera zutenen heriotzaren zergatia, ez nuen ulertzen zuriak beltzaren gain zuen boterearen indar suntsitzailea, ez nuen ulertzen gerra haren zergatia. Nire arrazoiak konpreni zezakeen bakarra gudu hartako militanteen askatasun egarria zen, apartheid hartatik askatzeko irrika bizia, hainbeste urteren isilpetik pizteko gogoa.

Nik farmaziako ikasketak egiten nituen bitartean, nire Afrika hartako zerua su bizian zegoen, tiroak ziren zeruaren iluntzea apaintzen zutenak, eta gizonen haserre eta min deiadarrak ziren orain nire iheslekuaren ahotsa mutu bilakatzen zutenak. Bihotzean neraman ebanozko lur liluragarri hura sutan

zegoen, nire babeslekua hautsiz zihoan, haren aurrean nire eskuen indarrak gauzaezak zirelarik. Baina nik nire babesleku haren beharra nuen, arratsaldeko haize goxoaren laztanen beharra, ihes egiteko beharra, gehiago ez bueltatzeko beharra. Eta lo egiteko pilula eta kapsulen barnean aurkitu nuen ihesleku hura, bueltatu ezinekoa zena uste nuena. Saminaren pilula haiek nire eztarrian zehar amaieraren bidea irudikatzen zuten heinean, nik ikastetxetik irtetean sentitzen nuen hotzikara maite hura berreskuratu nuen. Hala ere, ez nintzen heldu ihesleku hartara, nire bihotz taupadak oraindik itzali gabe zeuden.

Orduantxe ohartu nintzen farmazia ikasketak egiten jarraitzeak ez zuela zentzurik pilulekin konpondu ezin zen bataila hartan. Ikasketak utzi eta soldadutza egin behar izan nuen, derrigorrezkoa zen gerrarako entrenamendu hura egin behar izan nuen. Bizitzan zehar egin nituen guztiak, behartuta egin nituenaren sentsazioa sentitzen nuen, derrigortua izan banintz bezala, inoiz ere askatasunez aukeratu ezin izan banu bezala. Sentsazio berbera zen askatasunaren alde borrokatzen zuten beltzek sentitzen zutena, baina desberdintasun bat zegoen: haiek inoiz ere ez zuten izan aukeratzeko eskubidea, ezin izan ziren libre izan; eta ni, libre izanik eta aukeratzeko eskubidea izanik, ez nuen arma hura erabili, ez nintzen izan nire herrikideek hainbeste deseatzen zuten askatasuna erabiltzeko gai. Jada garaia aukeratzen hasteko. Soldadutza utzi nahi nuen, baina nire alferreko saiakerek ezetza izan zuten erantzun. Batzuetan, aukeratzeko eskubidearen erantzuna bakarrik iristen da, eta hori gertatu zen. Gudu hartako bonba batek ekarri zuen irtenbidea, nire irtenbidea behintzat. Eraso hark hainbat gizonen odola banandu zuen Johannesburgoko kaleetatik, eta niri aukeratzeko eskubidea eman zidan, bizirik irten eta zauri larrien ondorioz soldadutzatik joan egin bainintzen.

Nire nortasuna berpiztuz zihoalarik egin nuen topo nire bizitzako lagunik onenarekin: argazki kamerarekin. Apartheid haren aurka borrokatzeko gudu partikularra eraiki nahi nuen nire diapositibekin, ebanozko herriaren askatasun deiadarra nire irudietan zehar mundu osoan entzun zedin.

Horrela hasi nintzen argazkilaritza munduan, nire bizitza aldatuko zuen mundu hartan. Gudu haren irudia lortu nahi nuen, borroka haren benetako aurpegia, jatorrizko beltz kolorearen eskubideen oihua errespetatzearren borrokatzen zutenen gerra latz haren samin argazkiak ziren nire objektiboaren jomuga. Nire begiek ikusi eta nire barneak sentitzen zuen mina erretratatu nahi nuen, nire babeslekuaren argi izpi goxoak difuminatzen zituen kea erretratatu nahi nuen, injustizia hura munduak ikusi zedin. Apartheid haren basakeriak salatzeko garaia zen. Eta nik bide hori aukeratu nuen.

Hala jaio zen The Bang Bang Club. Living aldizkariarentzat egiten genuen lan, Ken Oosterbroek, Greg Marinovich, João Silva eta nik. Guda odoltsu haren erraietan jartzen genuen kameraren objektiboa, benetako bataila sutan zegoen lurretan, hauts eta gorrotozko urakan haren erdi-erdian. Ez ginen yankee kolonial aisenahi haietakoak, ez. Ez ginen gerra haren aurrean hotz geratzen, eta ez genuen utziko gure pasibotasuna ager zedin. Odola oraindik bizi zebilen gure zain gazteen barneetatik, adrenalina nahia genuen, abentura gosea.

Apartheid hura eta haren ondorioak harrapatu zituzten gure begiek, gure begi ziren kameren objektiboek, haiek baitziren gure eskudo bakar, guda hartako tiroen koraza, beraien eskubideak defendatzen zituztenen garrasi gogorren aurrean genuen armadura bakarra. Gure begiak hartara eginak zeuden, armen sinfonia hura entzutera eginak, eta baita gure arima ere, irazgaitza zen odol jario sumin haien artean. Goizero goizero agertzen ginen afrikar haiek bere azken arnasa airean utziko zuten lur hautseztatuetan, itxaropenaren indarra bukatzen zen leku haietan. Bihotz taupadak ziren argazki kameraren klik bakoitzeko gero eta biziagoak egiten zirenak, gerra hartako suzko armen soinu gorraren gainetik gailentzen zirenak, nire barnera iristen zen sintonia bakarra bihurtzen zirelarik. Taupaden erritmoak markatzen zuen nire gorputzaren dardara, nire begi ninietan erreflektatzen zen minaren aurrean sentitzen nuen dardara.

Emozio arerio haien aurrean sentitzen nuen dardara jasanezina gertatzen hasi zen, eta jasanezintasun haren lagun berriro ere bizitasuna ematen zidan hauts zuriaren beharra etorri zen, kameraren kliskaden artean tartekatutako esnifatzeak, ahultasuna indartzen zuten arnasak. Laguntzeko ezintasunaren sentimenduak agintzen zuren nire barnean, nire begiek ikusi eta bizi izandako nahigabe izugarri haiei erantzuteko ahultasunak eragindako frustrazioa. Kameraren klik bakoitza ehun arimen heriotzaren ordezkari zen, argazkiak errebelatzean berriz ere bizia berreskuratzen zutenak, sentitu zuten mina argitara eramaten zutenak, hil ondoren ere ahotsa altxatzen zutenak. Nire erretinak filmatutako pelikulan geratu ziren irudi haiek guztiak, eta ahulezia pizten zuten irudiak ziren, irudi haien samina salbatzeko ezintasuna gogorarazten zidatenak. Gauero nire amesgaiztoen kide egiten ziren egunean ikusitako exekuzio hunkigarriak, belauniko jarritako gizonen aurpegi lazgarriak, gasolinaz bustitako autoen hagunak lepoaren inguruan sutan zituzten gizonen aurpegi ezabatuak. Babesleku baten beharra nuen, ihesleku bat, txikitan Braamfonteinspruit ibaiko bazterretan aurpegia laztantzen zidaten eguzki izpi goxoez eraikitako barrera haustezinak inguratutakoa. Baina ihe-

sleku maite hura ere gerra arrotz hark isuritako tinta gorriz zikinduta zegoen, garbitu ezin zen tinta gorriaren marka zuen.

Sudanera egin nuen ihes, bertan babesa aurkitu nahian, lasaitasuna eskuratzeko asmoz. Baina ez nuen aurkitu. Argazkilaria zen nire arima hark hegazkinetik jaitsi bezain laster egin zuen lehenengo klika, kamera hark egingo zuen klikik garrantzitsuena, eta auto honetara gidatu ninduena. Neskatxa bat izan zen instantanea haren objektiboa, goseak hezurrak bistan utzi zizkion neskatxa beltzarana. Lurrean makurtuta zegoen, burua belar lehorraren gainean zuelarik, zutuntzeko indarrak jada joanda zituelarik. Atzean, putre bat zelatan zegoen, neskatxa noiz hilko itxaroten, haren gorpua bere janari bihurtzeko. Hura izan zen sentitu nuen azken dardara, irudi batek eragindako azken dardara. Hura izan zen nire arima berreratu ezineko zatitan birrindu zuen argazkia, ahulezia sentimendua gorputz osoan zehar barreiatu zuena, betiko gelditu z.

Pulitzer saria irabazi nuen, neskatxaren argazki hura nire karrerako garrantzitsuena bilakatu zen. Garrantzitsuena izango zen, baina gorroto bizia nion, ez nuen berriz ikusi nahi, ez nuen berriz ere une hartako sentimendua berreskuratu nahi, oraindik ere damututa nengoen irudi hura aldatzeko ezintasuna ezin gainditu izanagatik. Gainera, mundu guztiak zuen galdera berbera buruan, arazo moral berbera: zergatik ez zuen neskatxa lagundu? Argazkilaria naiz, inguratzen gaituenaren testigu, gerra latzen begi, eta soilik begi. Begiek ikusi egiten dute, eta ez sentitu. Eta neskatxa eta putrearen irudi hura izan zen nire kameraren begiak ikusi zuena.

Eta hemen nago, Kevin Carter, nire ihesleku maitean, Braamfonteinspruiteko ibaiertzean, walkmaneko aurikularrekin nire autoaren barrualdean, gas usaina inguruaz jabetzen doalarik. Iluntzeko zeruaren koloreek sortarazten didaten hotzikara epela gorputzean dut, nire begiek ikusitako min eta gorroto irudien oroitzapenetan murgildurik. Bizitza osoan zehar ikusitako argazkiek harrapatu naute, begiek ikusitako argazkiek eragiten dituzten sentipenek nire bihotza itotzen dute. Ihes egin nahi dut betiko.

Garazi Olazar Natxiondo
BT 2. maila
"Hobe eginaz damutu egin gabeaz baino"

TXANTXANGORRIA

Bizitza aldatzeaz amesten zuen
eta arratsalde batean
altzariak lekuz aldatzeaz
konformatu zen.
JEAN-MICHEL MAULPOIX

Denak garbi eta perfektu dirudi nire inguruan, ez dago ezertaz kezkatu beharrik, dena dago besteen esku baina nik bitartean eskuak oheari lotuta ditut. Ordenaren adiktu ongi ikusitakoren bat pasako zen hemendik. Objektu guztiak sailkatu eta kaxetan sartuak kaxa horiek beste kaxa batzuetan sartu eta dena ikusmenetik urrun gelditzeko. Nire barneko nahastea ingurukoaren ordenaz konpentsatzea ideia ona litzateke funtzionatuko balu.

Ohe izena merezi ez duen etzateko leku metaliko honen gainean gela kubo zuri perfektu bat dela konturatu naiz. Ondoren horman abstraktu deritzon irudi bat dagoela ohartu naiz baina hau ere ezin da horrela izendatu karratuz osatua baitago. Hortik aurrera dena da karratu, zuzen, garbi, perfektu. Ordena konpulsibo honekin mareatuta komonera egin dut ihesi begiradarekin ezin bainaiz altxatu. Nire desesperaziorako baldosa zuri karratuz osatua dago. Ispilu karratuak ez dit nire irudia itzuli, ez zaitut ezagutzen, nor zara? Benetan neurea den isladaren bila abiatu naiz. Kristalek ordea ispilua harroputztzat dute eta bere mailara ez jaistearren ez dute eskatzen nien lana bete. Komuneko zuloa gutxienez biribila dela ikusteak lasaitu nau eta disfraza kentzea lortu diot perfektutzat pasa nahi zuen inperfekzio honi. Errealitate deritzon kaosetik urrundu nahi duenak abisa nazala eta pozik sartuko dut kaxa batean ondoren kaxa hori beste baten barruan sartu eta nire ikusmenetik urrun uzteko. Nik bitartean nahiago dut norbaitek zer gertatzen den azaltzen badit, erabakiko dut gero ea hobe den itxuraz bakarrik arduratzea.

Bat-batean zarata disimulatuak, mugimendu ikusezinak, txutxumutxuak, jendea bestaldean. Hori guztia bere kabuz sor ezin zezakeen pertsona bakar batek ematen du aurpegia nahiz eta uste dudan amarena ere ikusi dudala gelako ateko bestaldean.

"Nola deitzen zara?","Zenbat urte dituzu?" ,"Non bizi zara?"
"Zer da hau? Galdu egin naiz ala?"
"Hori al da uste duzuna? Non zaude oraingoan Marten?
Venusen agian?"
"Adarra jotzen ala? Bromaren bat al da hau?"
"Erantzun galdera"
"18. Ondarru, Euskal Herrian eta munduan nik dakidala"
"Ongi, ongi"

Zuriz jantzitako nesken pasarela jasan behar izan nuen ondorengo orduetan joan etorrian baina egiten zituzten galdera inozoekin beraien ezkongaiak agertuko ez zirelako esperantza mantentzen nuen. Orduan gurasoak agertu ziren inoiz baino zaharkituago Gutierrez doktorea delako bati jarraika. 19 urte ditut eta istripuren bat dela eta lo pasatu omen dut azken urte hau, gainerako informazioa (lurrean nagoela barne) zuzena da. Gurasoek beraiek ere amnesia antzeko bat erakusten zuten,ezer gertatu ez balitz bezala esplikazio gabe lagunek jadanik egina zuten kurtsoa hastera bidali ninduten. Hasieran arraro egin bazitzaidan ere bizkor itzuli nintzen egunerokora ez bainuen hizketarako, mugimendu sinpleetarako eta harrigarriena idazteko

ezta oinez ibiltzeko abilezia ere galdu. Oraindik honen azalpen argiegirik ez dut entzun. Niretzat gau bateko lokuluska bat baino ez zen izan eta besteak nire jokoa jarraizeko prestu agertu ziren denei ere inkomodoegi egiten baitzitzaien egoera. Baziren ordea aktore lana txarto egiten zutenak eta batzuei ezinezko zitzaien urte horretako zerbait ez zutela gustuko izan ezkutatzea, Ekaitzi kasu. Dena ondo dagoela erakutsi nahian institutua, etxea eta bestelakoak antzeztoki inprobisatu bilakatu ziren. Hala ere antzeztokiko dekoratuekin nahaste txiki bat banuen, ospitaletik etxera itzuli nintzenean nire liburu bildumaren ordez plasmako telebista bat aurkitu nuen eta gitarraren tokian bideojoko multzo bat ikusteaz harritu nintzen. Gutierrez doktoreak oker nengoela eta objektu horiek inoiz ez ditudala izan esan zidan, lotan nengoela errealitatea izandako ametsekin nahastu nuelako uste nuela horrelakoak gustuko nituela. Nire buruko nahastea eszenatoki handiagoetara ere zabaldu zen antza eta oraindik ez dut ulertzen: Zerua inorena eta denona da , aske eta zabala baina AEBetako base baten inguruan dago eraikia; askatasun bila joan diren eulien gorpu hilak nazkaz kentzen ditugu leihoen ingurutik; astero “maitasunak” hildako emakumeak albistegietan; makinentzat zailago da marra oker bat egitea zuzen bat egitea baino eta kasualitatez agian baina misilek supositorio forma dute. Kurtso horretan zehar zoriontsu nintzen lagun eta institutuaren oreka horretan nahiz eta aitortu beharra dagoen batzuetan zoriona larregi oinarritzen nuela ikasketetako zenbaki horietan.

Oraindik arraro sumatzen banuen ere nire hain lagun izandako Ekaitzekin nuen harremana ere hobetzen joan zen eta zoriontasunaren eskujoko horri hirugarren pilota gehitu nion berarekin irtetzen hasi nintzenean. Lagunek ere aurpegi arraroz hartu zuten notizia baina besteen zoriona partekatzeko denok dugun ezintasuna zela horren arrazoia uste nuen.

Izan ere, komunitate demokratiko handi bat garela pentsatzera ohituta gaude. Denok irakurtzen ditugu egunkari berdinak, denok janzten ditugu arropa berdinak eta dieta berdinak egiten ditugu. Kanpotik lotzen gaituen itxurakeria honek barnetik ere lotzen gaitu eta denok izaten ditugu sentimendu berdinak, artalde zoro baten moduan alde batetik bestera zulo berdinetan erortzen goaz. Baina bat-batean pertsona bat lo honetatik esnatu eta askatu egiten da denok biltzen gaituen existentzialismo honetatik, bizi nahi du eta ez korrontea jarraitu. Zoriontsu izateko era bat aurkitu du eta denei kontatu nahi die, profeta bailitzan berak ikusten duena denek ikus dezaten, mundu zoriontsu bat sortu nahi du hitzen bitartez. Zoriontasuna pena bezain legitimoa bada ere norbait negarrez hastean denok laguntzen diogu

krokodiloak bezala negar eta negar eginaz, zoriontasun eztanda baten aurrean ordea gainerako ardien erantzuna espero zitekeena da, zorotzat edo harroputztzat jotzen dute hiztuna ulertzera heltzen ez diren sentimendu bat esajeratzearren. Ekaitzekin nengoen denbora horretan ez ezik beti ere zoriona lotsaz ezkutatu beharra dago eta laino ilunen azpian melodeatzen dugu beraien gainetik ibili beharrean eguzkiaren beroa kokotsean sentitzen.

Uda heldu zen azkenean eta eguzkia ezkerraldean genuen, atzeko plano horretatik intentsitatea gehitzen zion zure begiradari. Nik begiak ikusi ohi ditut barruko gauzei kanpotik begira.Denbora pasa ahala jaisten zihoan belarrak tonu desberdinak proba zitzan. Iluntzeak ekarri ohi duen sentsazio arraro hori nuen tripak aztoratzen eta belarrei tiraka hasi nintzen zure begiradatik aldendentzeko ahalegin triste batean. Ekaitz, zuzentzen dizkizudan hitzek gezurrak esan baditzakete ere ezin ditzakete adieraz nire begietako dirdirak. Dena bertan behera uztera gonbidatzen nauen pentsamendu bakoitzeko tirakada bat eta eskuak laster bihotza eta samina bezain gorri. Lehen odol tantarekin irribarre arraro bat zuzentzen didazu, esan dizut antzeko bat duzu aurpegian marraztuta baina ez dakizu umeen entretenimendutzat duzun hau zein konplexu izan daitekeen momentu honetan. Buruak pisu handiegia du nire gorputzarentzat. Eskuak irrintzika, sorbaldak hasperenka eta oinek ezin dute gehiago oreka mantendu.

Gure artekoa ez da elkarrizketa bakarreko hizketaldia baizik, bakoitzak gertatua bere buruari ozenean kontatzen zizkion eta besteak errespetuz itxaroten zuen bere txanda noiz iritsiko. Anekdota guztiak kontatuak daude jada, ez zaigu ezer gelditzen eta bihotza belar txarrez estaltzean agurra ezin da gehiago atzeratu. Bihotzaz pentsatu eta buruaz lagundu ondoren maite zaitut baina ez nago maitemindua.Azkenerako denbora-pasa baino ez zen Ekitzekin nuen harremana apurtu eta klaseak bukatu ondoren malabareak egiteko erabiltzen nituen hiru pilotak bakarrean gelditu ziren.

Ikasgeletan testu liburuen atzean benetako bizitzatik ezkutatzeko aukera eta denbora-pasak bukatuta udak denbora asko eskaintzen zuen baina ezer gutxi gelditzen zen egiteko. Lagunekin jairik jai jende berria ezagutzen, erosketak egitera... azken batean dena zihoan ildo beretik baina egun batean zinera joatea otu zitzaien. Pentsatzen hasita ni aspaldian joan gabe nengoen beti baitzen denbora falta, etxean lagundu behar nuela, osaba bisitatzen joan behar genuela eta antzekoak. Oraingoan ere amak bazuen zerbait esateko, estutasuna aurpegian ikusten zitzaion baina aitak eskua sorbaldan jarri eta “pasa da denbora nahiko” antzeko zerbait xuxurlatu zion belarrira.

Guztiz zirraratuta itzuli nintzen etxera Haizearen Itzala pelikula ikustetik; argi tonu berezia estena mota bakoitzeko, bigarren planoko aktoreen mugimenduak ia ezinezkoak igartzeko baina inguruari bizitasuna ematen, hitz gabe espresatzeko ahalmena... Aitak aspaldiko partez horren alai ikusita nondik atera zuen argiegi ez dudan Haizearen Itzala liburua luzatu zidan. Orain hemen nago ohean etzanda liburua bularraren gainean dudalarik eta goizeko lehen ontzien eta lotatik esnatzen ari den herriaren soinua sartzen da gelako leihotik. Loa eta atseden beharra atejoka dabiltza baina ezinezko zait irekitzea irakurriak eta honek sortutako ezinegonak zarraila kateatuta utzi baitu. Narrazioa mila istoriotan deskonposatua zegoen, ispiluen galeria batean balego bezala bere identitatea milaka islada desberdin eta aldi berean bakarra ziren. Pertsonaien sentipenei motibazioei eta frustrazioei jarraika nabil oraindik eta ez ditut joaten utzi nahi. Begiak ixtearen ahaleginetan nabil baina iluntasunean argiegi zaizkit gauzak eta paper batzuetan agertu den edertasun sinpleak aztoratu egiten nau. Hitz pare batek, hor zegoela ez nekien zuloa bete dute eta hitz faltak orain zuloak osorik irents nazan lortuko du. Mundu honetako kaosak kaotiko egiten nau. Zenbakiei jarraika ibili naiz letrak zer diren jakin gabe eta behin ezagututa ez naiz hauek lortzeko borrokatzeko gai, nahiago izan dut agindutakoa betetzera mugatzen nauen ogibidea hautatu datorren ikasturterako. Azaldu zaidan egiak, loaren beharrarekin batera desesperazioaren hipnosi antzeko batean sartu nau eta boligrafoaren abiaduran aurkitu dut morfina.

Esperantza handiak, joaten uzten ditugunak ondoren gure existentzia ziztrinean rekonfortatu ahal izateko, lasai azkenean, ezin baitugu jada ezer egin. Espaloietan bizitzari falta zaizkion puzzle zatien bila gabiltzala badirudi ere, ez gara eroritako minutuen bila makurtzen. Munduak gure begien inguruan jarraitzen du biraka.

Golpe guztiek esnatzen gaituzte zerbait baina golpe hau ignorantziaren lokuluska pentsa bezain atsegina ez dela izan konturatzeko bestekoa izan da. Lotan pasatu genituen egunak, asteak, hilabeteak erlojuari hare aleak irabazten utziz duna erraldoiak eratu arte. Frakasoaren beldurrez itxaron genuen itxarotean galtzen ari ginela konturatu gabe.Zerbait egitearen nahiari bularra estutzen utzi nion eta frustrazioaren arnasestuak bakarrik botatzen ditut orain. Min egiten badu, bizirik nagoela esan nahi du eta nahiago dut behin eta berriz eroriz zerbait sentitu ezinezko deritzen horietan errefuxiatua egon baino. Erori egin nahi dut berriro altxatu ahal izateko. Frakasatu nahi dut berriro ahalegintzeko, horren zaila ematen duen arnasa sakon hartuz bizi ahal izateko.

Nekatuegi barnean eztanda egin behar zidatenak paperera oka egin ditudanean baina idatziak ikusitakoan nolabaiteko lotsa sentitu dut eta dena ezkutatzeko beharrizana etorri zait. Irratiak eta berogailuaren zarata gogaikarri hauek zoratu egin behar naute!orduan otu zait paperak sobre batean sartu eta berogailuaren atzean itsastea baina bazegoen jada horitutako gutun-azal bat. Paperez gainezka dago eta ateratzean azkena erori egin zait eta idatzi berri dudanaren berdina dago. Gutun-azal hau nondik irten den ezin ulerturik paperak bota eta puzle honen piezak ohean sakabanaturik utzi ditut.

Ekaitz izena leku guztietatik, 19 urte bete nituen eguna, 2009a hasi zen gaua eta orain egiten ari naizen ikasturtearen milaka kontu,urte honetan zehar burutik pasatu zaizkidan ideiak paperean plasmatuta. Egin ditudak ez ezik egin ez izanaz damutzen naizenak ere ageri dira. Bat-batean kantu bat irratian:

Neukan guztia zen amets bat
amets bat.
Beti egoten nintzen,
haren bizitan zain,haren bizitan zain.
Ai ene amak euria,
eta baso ilunak seinalatzen zizkidan ez,
ez ez dira etorriko inoiz.

Mantso zijun, denbora niretzat,
leihoan jarrita euriari begira,
eta jendeak zion mutil horrek
amets bat bakarrik dauka.
Baina egun batin esnatzerakuan,
txantxangorri bat,ikus nuen gelan,
gero beste bat,beste bat ta beste bat,
inguratua nengoen.
Oh txantxangorria.
Gelako sabaian oh txantxangorriak!
Orain herritik mutil bat falta da ,
ez dago inor bere etxeko leihoan,
baso ilunetan dabil hegaletan,
txantxangorriak bezala.
Orain badu bihotz ñimiño bat
eta bi hegal euriz bustitakoak,
bularra du ere gorri kolorekoa eta

txantxangorria naiz
Baso ilunetan bete zait ametsa,
baso ilunetan txantxangorria naiz.
Hegal egiten
hegal egiten.

Entzuna dut kantua eta oroitzapenen olatua ekarri zidan bat-batean.

Ni ere uda berriro bukatu eta lehen nuen zoriona berreskuratu nahian nabil, eguzki hau noiz itzaliko esperoan mantso joaten zait denbora. Leihotik begira euria noiz itzuliko itxaroten nagoela ikusten dudan itsaso lasaiak urduritzen nau, itsaso zakarra behar dut nire barnea entretenitu eta pentsamendu hauek urruntzeko. Itsaso horretako ekaitza zen azken batean Ekaitz eta nire ezjakintasunean bi aldiz ahalegindu bagara ere ezinezkoa da gureak aurrera egitea. Orain lehorreratua nagoelarik sikatu zait jada azala eta ez dago egiatan ihes egiteko modurik. Nire zoritxarra artearen bilaketan bizitzeko adorea ez izateari egotzi badiot ere aurreko urtean ahalegindu nintzen bide horretatik eta momentu honetako egoera berdinera heldu. Alferrikakoa da poema, badakizu, gaur egun ez da inor ezinezkoetara dedikatzen. Dena da alferrikakoa sistema, gehiengoak jarraitzen duen zurrunbiloa, gogorregi finkatua dago eta ez berari men eginez ez eta oldartu eta beste balore batzuen alde agertuz ere ez dut lortu zoriona. Aske izan eta hegan egin nahi dut eta besterik ezean, ignorantzian dago zoriona. Gizakiak garuna garatu badu ere irautea lortzeko, zoriontsuago nintzateke txantxangorri batenarekin bizitzen ikasteko.

2010eko uztailaren 8a

Bizi osoa inongo transtornorik gabe (kontutan hartu beharra dago ordura arte ere bizitzaren kontzeptu konplexua zuela eta psikologiaren analisian hastapenak izandakoa zela era autodidaktan) igaro ondoren, 2009ko ekainean pazienteak nolabaiteko influentzia negatiboak bultzatuta idazteko beharrizan konpultsiboa jasan zuen. Delirio batean murgildurik bi hilabete igaro zituen hitz egin beharrean idatziz komunikatzen eta sentipenak adierazten. Denborarekin gaizkiagotzen doala ikusirik idazteko herraminta guztiak kendu genizkion baina zuen jarrera aldatu beharrean istorioak asmatzen jarraitzen zuen eta hauetako protagonista zelakoan antzeztu egiten zituen. Horietako gehienek hegan egin zezakeela pentsarazten zioten nolabaiteko askatasunerako bide zelakoan eta bere buruari min egin ez ziezaion ohera lotzearen erabakia hartu genuen. Hasieran gogor hartu bazuen ere denbora-

rekin lasaitzen joan zen eta egun batean igarotako urtearen inolako oroimen gabe esnatu zen. Lehen izan zituen fakultate guztiak mantentzen zituela ikusirik eta pasatakoa hiru fase horietan superatua zegoenez egunerokora bueltararaztean ikusi nuen soluzio onena. Horretarako ezinbestekoa zen jaso zituen influentzia negatibo horiek bere bizitzatik kendu eta gurasoek gauza artistikoak beste denbora-pasa bategatik ordezkatzea izan zuten eginbehar. Gitarra eta liburuak kendu zizkioten musika eta letretaz urruntzeko eta ezer gertatu ez balitz bezala eguneroko arruntean hastearen ideiaz pozik agertu ziren. Orain zarratutzat utzitako kasu hau berriro ireki beharrean aurkitzen naiz atzo, 2010eko uztailaren 4an pazientea baso batean nolabaiteko hegaztia bailitzan jokatzen aurkitu dutenean. Oraingo honetan lehen izan zuenaren kontrako jarrera agertzen du ez baita hitzak eta orokorrean esaten zaion ezer ulertzeko gai. Inoiz horrelako kasu bat izan ez dudalarik zuengana jotzen dut psikologoen elkarteko kideok laguntza eske. Informazio gehiagorako beherago dituzue nire helbide eta telefono zenbakia. Eskertuko nizueke erantzun bizkor bat egoera larriagotzen baitoa. Aurretiaz eskerrak emanez agurtzen zaituzte,

Gutierrez Doktorea
Ospital Psikologikoa

Itsasne Lauzirika Lafuente
BAT 2. maila
" Nora eraman gaitzake maitasunak?"

URAK DARAMANA ITSASOAK BATU DEZALA

Urte osoa ikasturteko txangoaren zain egon ostean, heldu zen hainbeste itxaroten nuen eguna. Azkenean, klaseko egun bat galduko genuen irakasle hitzontzi eta neketsuei entzun gabe. Esango nuke egun hau jai emango ez baligute, ikasketekin jarraitzea ala ez serioki pentsatzen hasiko nintzatekeela. Otsailaren 5a nire urtebetetze eguna izanik, institutuko irakasleek inoiz egingo zidaten oparirik onena litzateke hura.

Oraindik ez genekien nora gindoazen, baina aurreko egunean tutoreak Artearen Historiako irakaslearen gelan goizeko zortzietan bildu behar genuela esan zigun.

Institutuko korridore zaharreko azken gela txikitxoan ematen genuen irakasgai hura. Nahiz eta gela hura beste guztiak baino txikiagoa izan, gure

gelako ikasleok beste gela guztietakoak baino gutxiago ginenez, nahi adina leku geneukan.

Guztiok generaman motxila bizkarrean eta barruan genituen ogitarteko ezberdinen usainak geure barre algara eta hitzekin nahasten ziren armonia gazi-gozo bat sortuz.

Gogoko nuen usain hura, elkarrizketek eta irriek freskotasuna eta alaitasuna ematen baitzieten askotan azterketak egin aurretik hain une luzeak iruditzen zitzaizkigun minutuak zenbatzen ematen genituen korridore beldurti eta zalantzaz beterikoari.

Artearen Historiako gelara sartu ginenean, han aurkitu genuen irakaslea bere aulkian eroso eserita, inolako presarik gabe eta liburu batzuk behatzen. Guztioi geure aulkietan eser gintezela agindu zigun. Une hartan, aulki asko hutsik zeudela ohartu nintzen, baina ez nion garrantzi gehiegirik eman, normalean baino bizkorrago ohetik jaiki behar genuenez, ziur aski jendea lo geratuko zen eta beranduago iritsiko zen.

Nire eguna zen eta irakaslea ikasleon zerrenda pasatzen ari zela klasekide guztiek zoriondu ninduten, Beñatek izan ezik. Baina honek ez ninduen bat ere harritu, hogei urte zituela eta besteon gainetik zegoela uste zuen, beno, hobeto esanda, nire gainetik zegoela uste zuen. Ez zuen inoiz nirekin hitz egiten eta zerbait halabeharrez esan behar zidanean, zakar eta gogoz kontra egiten zuen. Gainera ez zidan inoiz aurpegira begiratzen eta nire lagunek niri buruz hitz egiten ziotenean, nazka aurpegia jartzen zuen, baina nik ez nuen hori merezi eta ezin nuen gehiago jasan, noiz edo noiz nire barruko amorruak eztanda egingo zuen eta egun hura nik hemezortzi urte bete nituenean izan zen.

Irakasleak zerrendako ikasle erdiak falta zirenez gero, txangoa bertan behera gelditzen zela adierazi zigun. Orduan denok kexaka hasi gintzaizkion irakasleari. Ni argudio sendoak ematen hasi nintzaionean, Beñat aulkitik altxatu zen eta isiltzeko agindu zidan, kontakatilu bat nintzela esanez. Une hartan barneko adore guztia bildu nuen eta amorruz betetako hitz zaparrada bota ostean, harengana hurbildu eta berak hainbestetan jarri zidan nazka aurpegi berberaz begiratu nion goitik behera.

Irakaslea asaldaturik biongana hurbildu eta banandu egin gintuen. Liskarraren ostean, irakasleak notarako baliagarri izango zitzaigun lan bat pro-

posatu zigun. Jarraian, diapositiben aparailua martxan jarri zuen eta koadro baten irudia ikusi genuen pareta zuriaren gainean islatua. Irakasleak John Evert Millais pintoreak bere karrera piktorikoan ospetsu egin zuen obrarik adierazgarriena aurkeztu zigun, “Ofeliaren heriotza” artelana.

Shakespearen Hamleten pasarte batean inspiratuta zegoen koadro eder horren errealismo eta kutsu poetikoak zeharo txunditu ninduen eta arestian izandako liskarraz ahaztu nintzen.

Irakasleak koadroaren istorioa aztertu behar genuela esan zigun eta beste ikuspunturen bat gehitu behar geniola. Horretarako lana binaka egingo genuela eta pertsona bakoitzaren ideiak batu beharko genituela esan zigun. Bikoteak, noski, irakasleak aukeratu zituen eta niri zoritxarrez, nire auzokide gorrotagarriarekin, hots, Beñatekin tokatu zitzaidan.

Irakasleak esan beharreko guztia esandakoan, etxera joan gintezkeela esan zigun, denbora behar genuelako lan hura egiteko, biharko baitzen. Nire harridurarako, gelatik irten ginenean, Beñat gerturatu zitzaidan eta aurpegi atsegin batez lana bere etxean egiteko gonbidapena luzatu zidan. Ahalik eta hitz atseginenak erabiliz, lan honetan nota ona ateratzeak asko axola zitzaiola aitortu zidan eta hobe genuela gure arteko tira-birak albo batera uztea, nire urtebetetze egunean, behintzat. Aurpegi-handi galanta iruditu zitzaidan, baina hala eta guztiz ere, nik ere lan hura ondo egin nahi nuenez, gonbidapena onartu nion.

Beñaten autoan sartu ginenean ez genion elkarri hitzik esan, baina isiltasunik ere ez zegoen, izan ere kanpoko euri zaparrada eta tximistek irratiaren musikarekin batzen zen zarata zurrunbilotsua sortzen zuten.

Hogei minutu astun generamatzan errepidean, baina zazpi bat bihurgune barru iritsiko ginen etxera. Bat-batean autoa alde batera eta bestera mugitzen hasi zen likidoren batekin irrist egin izan balu bezala eta Beñatek autoa geldiarazteko esku-balaztari tiraka hasi zitzaion baina alferrik. Autoak aurkako bidera eraman gintuen une berean beste auto batekin aurrez aurre topo egin eta istripua izan genuen.

Autoaren aurrealdetik ke asko ateratzen zela ikusi nuen, baina ezin izan nuen autotik atera, hankak zerbaitekin harrapatuta baineuzkan. Une hartan Beñatek kontu handiz segurtasun uhala kendu zidan, besoetan hartu eta autotik atera ninduen. Beste autoan zegoen gidariak ez zuen minik jasan, ezta

bere autoak ere. Beraz, Beñaten autoa errepidetik ken zezaten garabiari deitu zion eta ondo geundela ikusita etxera eramango gintuela esan zigun.

Beñaten etxera heldu ginenean, behin ezustea pasatuta eta gurasoekin gertatutakoaz luze hitz egin ondoren, artelanaren lanarekin hastea erabaki genuen. Solasean genbiltzala, bion iritziek askotan bat egiten zutela konturatu ginen, aldi berean, elkarri begiratzen hasi genion era berri eta berezi batean. Orduan koadroaren gaineko informazioa irakurtzeari ekin zion Beñatek:

-"Obra guztia sinboloz beteta dago, zuhaitzaren eta arrosen tolesgabetasuna maitasuna eta sufrimenduaren sinboloak izan daitezke, arropen gainean dauden loreak neskaren burutazioak eta erantzunik gabeko maitasuna, lepo inguruan dauzkan bioletak kastitatea eta heriotzaren sinboloak dira.." Benetan harrigarria bezain ederra da.

Burua gora eta behera mugituz baietz erantzun nion mutututa.

Beñatek zera erantsi zuen orduan:

-Nire ustez, Ofelia ez zen erreka hartara erori loreak batzen zebilela, Hamletenganako erantzunik gabeko maitasun sutsuak itsututa bere buruaz beste egin zuela uste dut.

Txundituta gelditu nintzen pentsatzen nengoena bere ahotik entzunda.

Lana bukatzean etxeko sarreraraino lagundu ninduen eta mahai gainean zegoen lorontziko bitxilore bat hartu eta hura nire eskuen gainean utziz, zera esan zidan:

-Zorionak, Elene!

Hurrengo egunean irakasleari lana eman genion eta azkenengo ordurako zuzendu zituenez, jarri zigun nota ikusi ahal izan genuen.

Guztiek zoriondu gintuzten atera genuen hamarrarengatik. Hura ospatzeko Beñatek "Lekupe" tabernara gonbidatu gintuen klasekoei.

Ostirala zenez gero, berandura arte egon ginen bertan hitz eta pitz, ordulariari begiratu gabe.

Jendea erretiratzen hasi zenean, neu ere eserlekutik jaiki eta berokia jartzera nindoala Beñat barratik bi garagardorekin nigana hurbiltzen ikusi nuen.

-Azkenengoa elkarrekin hartuko dugu, ezta?- Galdetu zidan irribarretsu.
-Nola ez, horrela gure arteko tirabirei amaiera emango diegu...
-gehitu nuen.
-Hara bestea! Zer tirabira eta tirabira ondo! Akabo rollo txarrak!

Ni ere ados nengoen eta hizketan jardun genituen bizpahiru ordu haiek Beñatenganako sentimendu berri batzuk sorrarazi zizkidaten.

Telefono zenbakiak trukatu genituen eta ordutik aurrera elkarrekin ia egunero biltzen ginen.

Otsailaren 14an, San Valentin egunean niganako maitasuna aitortu zidan eta bikote bihurtu ginen. Egunak, asteak eta hilabeteak ziztu bizian pasatzen ziren bere ondoan nengoela eta konturatzerako udaberria iritsi zitzaigun.

Udaberria iristean, etxe inguruko belardiak eta zuhaitzak lore kolore ezberdinez josi ziren. Herriko errekaren gaineko zubitxotik horren urruti ez zegoen itsasoaren kresala eta errekaren usaina lotzen ziren. Zuhaitzen artetik pasatzen ziren eguzki izpiek errekako urari distira eragiten zioten. Bertan pasatzen genituen ordu luzeak Beñatek eta biok belarretan etzanda, elkarri begira.
- Badakit datorren urtean hiri ezberdinetan egongo garela ikasten, baina edonon nagoela ere honelako erreka eder bati begiratzen badiozu eta uretan bitxiloreren bat ikusten baldin baduzu, jakizu neu ere errekaren batean uretara begira nagoela eta horrela, azkenean, geure begiradak, nahiz eta erreka desberdinetan izan, itsaso berdinean elkartuko direla eta beti egongo direla batera.

Beñaten hitz ederrak entzun ostean, errekatik behera urarekin batera zetorren bitxilorea hartzera hurbildu nintzen. Tupustean ia eskuetan neukala harri batekin irrist egin eta burua lurrarekin kolpatu nuen. Bat-batean pareta zuri bat ikusi nuen eta aurpegi lanbrotsu bat nire izena behin eta berriz errepikatzen. Beñat zela pentsatuz, haren izena oihukatu nuen, baina nire oihuak ez ziren nik espero bezain sendoak, ahulak baizik. Dena argiago ikusten hasi nintzela, aurpegi lanbrotsuaren pertsona nire ama zela konturatu nintzen.

Lasterrera, ondo hitz egiten uzten ez zidan plastikozko aparailua kendu nuen ahotik eta ama lasaitzen hasi nintzen:
- Ama, zergatik zaude negarrez? Errekan irrist egin dut eta askoz jota buruan koskor galanta izango dut, beno, baina hori kontatuko zizun Beñatek...

- Elene, zer diozu? Zein erreka?- Zioen nire amak ni besarkatzeari uzten ez ninduelarik.

Momentu hartan bata zuridun medikua sartu zen eta ni behatu ondoren zoriondu egin ninduen. Orduan amak zera galdetu zion:

-Ondo al dago? Itzartu denean, gauza arraroak esaten hasi zait.
Medikuak orduan:
-Bai, ondo dago eta nik uste bi egunen buruan alta emango diogula. Ah! Gauza arraroengatik ez kezkatu lehenengo egunetan koma egoeran egon den jende askori gertatzen baitzaio.

Nik ezin izan nuen mediku gezurti hark esaten zuena sinestu.
-Zer koma eta koma ondo! Nik etxe alboko errekan irrist soilik egin dut!

Medikua gelatik irten zen eta ama eta biok bakarrik utzi gintuen. Orduan ama nire ondora hurbildu zitzaidan eta eskuineko eskua bere bi eskuekin leunki estutuz, zera esan zidan:

-Laztana, badakit gogorra egingo zaizula. Gogoratzen al duzu nola duela hiru hilabete gure auzokidearekin zure urtebetetze egunean autoz izan zenuen istripu ikaragarria? Bada, ordutik gaur arte ospitale honetan egon zara koma egoeran...

Bizkarra ohe gainetik altxatuz eta oso urduri zera esan nion:
-Ama, ezinezkoa da! Non da Beñat? Bera ere koman egon al da?
-Ez, laztana. Beñat...
-Zer ama? Zer gertatu da Beñatekin?
-Beñat istripuan bertan hil egin zen.

Hitz horiek entzundakoan konortea galdu nuen.

Berriz ere jaiki nintzenean, nire inguruan klaseko lagunak ikusi nituen eta beraiei galdezka hasi nintzaien negarrari eutsi ezinik:
-Non da Beñat? Mesedez, esan ez dela hil, esan ez dela hil!
-Elene, mesedez, lasaitu, Beñat duela hiru hilabete hil zen, baina inork ez du haren heriotzaren errurik...-erantzun zidan Anek.

Jarraian zera gaineratu zuen Garazik:
-Gainera, guztiok dakigu katua eta txakurra bezain txarto

konpontzen zinetela. Ezin zenuten elkar ikusi...
-Hori gezurra da!-erantzun nien haserre- Nik Beñat maite dut eta berak ere maite nau.

Nire urduritasuna ikusita eta entzuten zutena sinestu ezinik, gelatik alde egin zuten.

Medikuak amari esan zizkion bi egunak pasatu zirenean, alta eman zidaten eta etxera itzuli nintzen. Medikuak amari lo egiteko pilula potetxo bat eman zion urduritzen nintzenean emateko.

Etxera itzulitakoan gorputzean hotz izugarria sentitzen nuela aitortu nion amari eta berak nahiz eta udaberria izan eta eguzkia dir-dirka izan berogailua piztu zuen. Neukan hotza jasanezina zen, Beñatek eman zidan berotasunaren beharra neukan.

Amari hobeto nengoela esan nion eta osteratxo bat egitera nindoala esanez, herriko hilerrirantz abiatu nintzen.

Beñaten hilobiari begira nengoela zenbat maite nuen aitortu nion berriz ere. Iluntzen hasi orduko nire lorategitik hartu nuen bitxilorea bere argazki parean utzi eta herriko gure erreka maiterantz abiatu nintzen.

Bidean nindoala, patrikatik lo egiteko pilulen potetxoa atera nuen eta seina pilula batera irentsi nituen.

Erreka maitera heldu orduko, pilulen eragina nabaritzen hasi nintzen. Ni guztiz lokartu aurretik erreka barruan sartu nintzen.

Hurrengo goizean errekara Beñat eta Biok bezala sarritan etortzen zen bikote gazte bat joan zen. Eta han, uretan, neskato gazte baten gorpua aurkitu zuten bitxilorez inguraturik.

Hilerrian udaberriko haize leun eta epelak hilobien gainean nahasturik agertzen ziren hosto eta loreak laztantzen eta lekuz aldatzen zituen. Hilobi batean, aurpegi irribarretsua azaltzen zuen mutil gazte baten irudia ageri zen, Beñat. Harria igurtziz, izenaren azpian neska baten izena aurkitzen zen, oraintxu gehitua izango balitz bezala: Elene. Beherago, irakur zitekeen: “URAK DARAMANA ITSASOAK BATU DEZALA”.

Leonor Korta
HHIko ikaslea
"Herriko neska betidanik eta betiko, pozez"

NIRE HERRIA ETA BESTE KONTU BATZUK

Nire herria oso polita da, eta txikia, neguan pertsona gutxi bizi gara Ean. Baina udan jende gehiegi etortzen da uda pastatzera eta ia ez daukagu lekurik. Ean gauza asko dago egiteko. Hondartza gustokoa ba duzu hondartz haundi bat daukazu itsas behera dagoenean. Baina kontuz, itsas gora dagoenean txikiagotu egiten da eta.

Mendia ere badaukagu beste iru alboetatik, mendia gustokoa ba duzu. Hondartzan ipintzen bazara uretara begira, ezker aldera daukazu Barbaika mendia Eatik Natxitura dagoen mendia. Hondartza ondoan dagoen bidezigor bat hartzen baduzu, kilometro batera heltzen zara Lapatxa deritzo leku polit batera, atsetatik ibili lapak eta karakolioak hartu eta bainatu egin dezakezu. Leku polit hau Barbaikako amildegi azpian kokatuta dago.

Orain eskumako aldera joango gara ere bai. Badago mendia Eatik Bedarura arte. Hemendik ere badago paseatzeko leku ederra. Portu ondotik hartzen duzu bidezigor bat eta igoten duzu eta kilometro batera topatzen duzu baseliza txikia, Talaia izena daukana. Han Talako Ama Birgina dago, itsas gizonak zaintzen dituena eta handik ikusten da itsasoa, Ogoño eta arkaitz pilo bat eta leku horrek Talape dauka izena. Hara joaten dira arrantzan itsas behera dagoenean. Hondartzatik joan daiteke baina kontuz igoten bada itsasoa, ezin zara bueltatu eta itxaron behar duzu beste itsas behera arte, edo topatu behar duzu bideren bat Talara igoteko.

Orain begiratuko dugu atze aldera. Ikusiko dugu ieko herria eta goian ikusten da beste mendi bat Allu izena daukana. Etxeak amaitzen diren lekutik dago bidezigorra aldapaz gora eta handik gora igon eta heltzen zara Allura. Orain kotxez igon daiteke baina ietik pasa eta kilometro bitara dagoen bide bat hartu behar da lehenengo, aldapaz behera eta gero aldapaz gora, eta gero bidetxu bat hartu, ezkerretara igon beste aldapa bat eta heldu zara.

Ni Leo naiz, herri polit horretan bizi naiz betidanik. Famili handi bateko zazpigarren alaba naiz, eta oso pozik bizi naiz nire herrian. Txikitan gauza askotara jolasten genuen. Jolasteko denok batzen ginen, handiak eta txikiak, denok batera jolasten genuen, neskak eta mutilak. Barikuetako gauetan jolasten genuen kanpo erretan. Gaueko zortzietan hasten ginen eta hamaikak arte han. Batzutan amak deitu ta deitu eta guk “Ointxe goaz, ointxe goaz”, baina hamabiak arte hantxe. Gu ahizpa asko ginenez, ba gero denok batera errieta jaso, kafesnea hartu eta lotara.

Biharamunean zapatua goizez bakoitza beren kuadrilarekin ibilitzen ginen hondartzan mendiak egiten, gero salto egiteko gainetik, edo pista bat egiten genuen kanikekin edo “iturri”ekin ia nor heltzen zen lehenengo helmugara. Gero arratsaldeetan “merendola” egiten genuen. Bakoitzak otartekoa eta sangria poltsan harturik, joaten ginen landa batetara eta han pasatzen genuen arratsaldea jolasten, irakurtzen, edo kontuak esaten. Gaua heltzen zenean ostabere batzen ginen denok, mutil eta neska, adin guztietakoak, eta jolasten genuen ezkutatzean. Bat gelditzen zen, kontatzen zuen 50 arte eta besteok ezkutatzen ginen, eta denak topatu arte. Batzuk libratu egiten ziren baina norbaitek ikutzen zuen libratu orduko eta bera geditzen zen gero.

Bueno, domekara heldu gara, domeketan amak pagie emoten zigun eta 11 etarako mezetara joan behar genuen. Mezetatik urten eta gero, gozotegian zeozer erosi eta portura joaten ginen olatuak ikustera eta kizkilak hartzera. Gehienetan etxera bustita joaten ginen .Gero arratsaldean paseatu egiten genuen edo elizpean jolasten genuen txorro-morro-piko-taio-ke. Jolas hau mutilena izaten zen baina guk ere jalasten genuen. Elizpean ere jolasten genuen infernua eta zeruan, kaniketan, eta trukamean.

Gero astelehenetan eskolara eta bakoitza beren kuadrilan eta bere adinekoakin jolasten genuen errekreotan. Eskolan neskak neskekin eta mutilak mutilekin. Nesken eskola behekoa zen eta mutilena goikoa. Mutilek maisua eukitzen zuten eta neskek maistria, biak erdaldunak.

Urte batean pentsatu zuten gimnasia, ingelera eta frantzesera ematea, holanik bakoitzak arratsalde bat astean libre edukitzeko eta hobeto preparatuta joango ginen Gernikako ikastetxera. Orduan hasi zen nahastea, astean arratsalde bat neskak igoten ginen mutilen eskolara ingelera ikastera. Oso ondo pasatzen genuen baina ikasi ezer ez. Beste arratsalde batean mutilak jaisten ziren nesken eskolara frantzesera ikastera. Orduan ere oso ondo pasatze genuen, baina gure territorioan ikasi tamainan.

Gimnasia egiterakoan joaten ginen herriko frontoira eta sekula gimnasiarik egin gabe egon eta gero ikusten zen neskentzat errezago direla horrelako

gauzak. Barre asko egiten genuen mutilekin baina gu ere oso torpeak ginen eta mutilak gure kontura ere egiten zuten barre.

Urte hori izan zen Gernikara joateko entrenamendua; uda pasatu ondoren irailean gure kurtsotik gorakoak Gernikara eta zazpigarren eta zortzigarren kurtsokoak Bilbora joan ziren azterketa egitera, graduatua ateratzeko.

Nire taldekoak nagusienak ginen baina oso dezberdin zen dena. Lehenengo esa ziguten aukeratzeko ingelera eta frantsesera artean. Denok aukeratu genuen frantzesera, zeren ingelerak w eta h asko zeukalako.Gainera erderaz oso txarto ibiltzen ginen ube eta beak aukeratzean, eta izki mutua beti jaten genuen. Beraz, ez genuen pentsatu bi biderrez, aukeran frantzesera errezagoa zen.

Gernikan ikasi genuen zer zen andereño bat gauza bakoitza irakasteko. Guretzat dezberdintasun itzela zen andereño bataz egonda azkenengo urtean eta gero sei andereñorekin eta 30 neska gauza bardinak ikasten eta orduero andereñoa aldatzen. Zelako pasada eta txarrena izan zen gimnasiora joan ginenean ikusi genituenean plintoa, potroa, barrak, eta abar....., pentzatzen genuen: «Nora bialdu gaituzte, hau da infernua!».

Baina azkenean infernuan bere ikasten da ibiltzen, eta guk ere ikasi genuen eta oso ondo ibili ere bai . Goizean goiz altxatu, autobusa hartu eta eskolara ikastera. Errekreotan soka-saltoan jolastu edo kampo-erretan eta bostetarako Ean.

Oso ondo pasatzen genuen baina aldaketa handia zenez, notetan igarri zen. Lau penko ez nituen kentzen gainetik. Dene den, ez zen bakarrik aldaketa, ni oso ikasle txarra eta jokalari ona bainintzen, dena ezin da izan, beraz seigarren maila errepikatu egin nuen eta zazpigarrena ere bai.

Ikasten ikasi nuenerako, lanean hasi behar nuen, nire ahizparen ezkontza zen eta nire ahizpa txikiak hasten ziren Gernikako eskolara, eta ez geneukan dirurik hainbeste gastutarako. Orduan beharrean hasi eta nire ahizpei eskolako lanak egiten laguntzen nien eta pozik bizi naiz nire herri polit honetan.

Amaia Lizundia
HHIko ikaslea
"Herria da gorputza, hizkuntza bihotza."

IRAKASKUNTZA EUSKAL DUNTZEAREN BEHARRAZ

"Hizkuntza bat ez da galtzen ikasten duenak ikasten ez duelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik" esan zuen Bitoriano Gandiagak gure historia xumera pasatu den esaldi honetan.

Egia den arren eta beraien hizkuntza erabiltzen ez duten "euskaldun" horien kontzientzia astintzeko balio duen esaldia izanda ere, ideia oro bere kontestuan kokatu behar dela uste dut nik eta argi dago momentu historiko bakoitza ez dela berdina eta garai bakoitzak jarrera ezberdinak eskatzen dituela.

Hogeita hamaseiko Guda Zibilaren ostean, nazionalek irabazi eta gero, “generalísimo”ak hainbat proiektu jarri zituen abian bere “una grande y libre” hori eraiki asmoz; horien artean, gure Herri honi zuzenean eragiten zioten ekonomi politika eta politika antikulturalak.

Ekonomi politikari dagokionez inmigrazioaren gaiari atxikiko natzaio (gure hizkuntzan eragina izan zuelako eta ez beste ezergatik), bertorako diseinatu zuen industriaren garapenean eskulan ugariren beharra aurrikusten baitzen. Ondorioz Estatuko hainbat lekutatik jende mordoa etorri zen bizi hobe baten ametsarekin. Pertsona hauen gehiengo handiena jatorri umilekoa zen, langile xumeak ziren, Gerra Zibil nardagarri horren miseriak pairatu ondoren bizimodu duin baten alde borrokatzera etorri zirenak. Espainiarrak ziren gehienak, nahiz eta galiziar asko ere bazeuden tartean.

Alde batetik gogoratu beharra dago garai haietan euskaldun gehienek ozta-ozta zekitela espainiarrez berbetan, eta bestetik, etorkin haiei guztiei burutik pasa ere ez zitzaiela egin euskara ikasi behar zutenik, beraien aburuz Espainian zeudelako. Askok ez zekiten hemen beste hizkuntza bat solasten zenik ere; are gutxiago hain mintzaira ezberdinik. Hona hemen, Gandiagak zioen bezala, geure hizkuntza erabiltzeko arrazoi garrantzitsu bat berau ez galtzeko.

Arestian aipatu dudan politika antikulturalari buruzko aipu batzuk egin behar ditut ondoren: euskara guztiz debekatu zuen “general txikiak”, beraz, ezinezkoa izango litzaiekeen etorkin haiei guztiei euskara ikastea bururatu izan balitzaie ere. Euskal kutsua zuen guzti-guztia ilegalizatu eta zapaldu zen. Gure hiztunei euskara barbaroen eta ezjakinen hizkuntza zela errepikatu zieten behin eta berriz eta zoritxarrez askok sinetsi egin zuten konturatu ere egin gabe. Horregatik hasi zen jende ugari espainiarrez hitz egiten bere ama hizkuntza erabiltzeko aukera zuenean ere. Hau da gaur egun “euskaldun akonplejatuaren sindromea” esistitzearen arrazoia: barne- barnean, espainiarrak hizkuntza modura kategoria handiagoa duela sinesten duen jendea egon badagoelako, kontu hori hainbeste entzutearen poderioz. Kasu hauetan ere idazlan hau hasteko erabili dudan Bitoriano Gandiagaren esaldia oso harira dator.

Jende askok gazteleraz mintzatzeko joera izatearen beste arrazoietariko bat gizalege edo “edukazioarena” da: Aitorren hizkuntza zaharra ezagutzen ez duen norbait hurbilduz gero Cervantesena erabili behar omen baita beste horrek gizalegerik ez duzula pentsa ez dezan. Baina horrela, zoritxarrez,

gure mintzaira gero eta esparru murritzagoetara kondenatu dugu denbora luzean zehar, kasurik ugarienenetan agertzen baita gure hizkuntza ez dakien norbait. Hau zen hasierako esaldi hura erabiltzeko oso egoki iruditzen zaidan eta aipatuko dudan azken egoera, nahiz eta badakidan gehiago ere egon badaudela.

Horrela, kanpo inmigrazioa, zapalketa, konplexuak eta "gizalegea" direla medio gure hizkuntza gaixoak nabarmen egin zuen atzeraka. Frankismoa bukatu zenean, baina, berriz egin zuen goraka, nahiz eta guztiz nabarmena den hizkuntza gutxiratua dela oraindik ere.

Hego Euskal Herriari dagokionez EAEn hizkuntza koofiziala da espainiarrarekin batera, baina, Nafarroa Garaian UPNren Foru Gobernuak oraindik ere trabak besterik ez ditu jartzen beronen mantenu, berreskurapen edo ikasketarako, kasuan kasuko, "Ley del vascuence" delakoa aplikatuz.

Are txarragoa da Ipar Euskal Herriaren kasua, han euskarak ez duelarik inongo ofizialtasunik. Pirinioez bestaldean, Ikastolek egin duten lanagatik ez balitz ez legote kasik euskaldun alfabetaturik.

Buelta gaitezen, baina, gure hizkuntza zaharrak ofizialtasuna duen guneetara (hau da, EAE eta Nafarroa Garaiko Iparraldea, edo "Zona Vascófona"). Elebitasuna ei da nagusi beraietan … Nik barre egiten dut hori entzuten dudanean, batez ere negarrik ez egitearren. Gaur da eguna, oraindik ere, euskara diglosi egoera gogorrean aurkitzen dena; nola ez, diglosiaren alde gutxiratuan.

Kontua da, espainiar konstituzioak dioen bezala "(…) euskaraz berba egiteko **eskubidea**, baina, espainiarrez berbetan jakiteko **betebeharra** (…)" dagoen bitartean, beti baztertu ahal izango dela euskara Cervantesen mintzairaren mesedetan; eta ondorioz gu egongo gara baztertuak; "Betebeharrak" "eskubideak" baino pisu gehiago duelako.

Nola heldu, beraz, benetako elebitasunera, hori baldin bada helmuga? Bada, inongo zalantza izpirik gabe euskararen jakintza ere "betebehar" bihurtuz. Gero bakoitzak hitz egin dezala nahi duena. Arrazonamendua oso sinplea da eta berau azaltzeko, berriz ere, Bitoriano Gandiagaren berbak erabiliko ditut: "(…) euskara ez dakien horrek berak jakingo du zergatik ez dakien euskaraz. Baina, euskara ez dakien horrek ez digu uzten euskaldunoi euskaraz hitz egiten(…)".

Hain sinplea eta era berean hain konplexua! Zer gertatuko ote litzateke euskararen jakintza derrigorra izango dela esango bagenu? Espainirren eskubideak zapaltzearren makina bat jende kartzelaratuko luketela, gutxienez. Euskal hiztunok ez daukagu, beraz, "betebeharra" den eskubiderik.

36ko Gerrate ostean bezala gaur egun ere etorkin piloa ari da lur hauetara heltzen, beste hainbatetara lez. Askok eta askok espainiarrez hitz egiten badakite gainera; euskara falta ordea. Dena den, nahikoa daukate gehienek beraien biziei aurre egiten… Lanean utziko ditugu, horretara etorri dira eta. Baina zer gertatuko litzateke jende guzti horrek, berdin da jatorria, beraien umeak A ereduan matrikulatuko balitu? Kontutan eduki gainera hemengo jendeak baino haur gehiago ekartzen dituztela bizi hontara, oro har. Bada erantzun hau ere oso sinplea da: gure hizkuntza eder eta zahar hau oraindik gehiago gutxiratuko luketela denen arten; batzuk nahita eta besteek konturatu ere egin gabe.

Iritsi gara, beraz, ondorio nagusira: irakaskuntza euskaldundu egin behar da ("E.P.A." barne) gure hizkuntzari leku duina bilatuko badiogu gizarte hontako esparru guzti-guztietan. Ez delako posible euskararik gabeko Euskal Herririk. "Herria da gorputza, hizkuntza bihotza." (M. Laboa)… Euskara da bihotza… beronek sortzen baititu Herri zahar honen taupada beroak… pun-pun, pun-pun, pun-pun, pun-pun, pun-pun, pun-pun …